

JUAN SAN MARTINEN
ANTOLOGIA
(*EGAN* aldizkarian argitaratuak)

Juan San Martin
Prestatzailea: Oier San Martin

JUAN SAN MARTINEN ANTOLOGIA

(EGAN aldizkarian argitaratuak)



EGAN

AURKIBIDEA

Sarrera. Oler San Martin	7
Munduaren gurpilla.....	9
Zuloaga ta gu.....	15
Eibartar zelebriak.....	28
Eibartar zelebriak -I- Kaitano Kareaga-n urtera zelebriak	29
Olerkiak. Aresti'ri	34
Eibartar zelebriak -II- Galdo-Txikin zirikadak	37
Eibartar zelebriak -III- Petitarren eztenkadak	44
Eibartar zelebriak -IV- Mariño-n pasadisuak	49
Eibartar zelebriak -V- Felix Legarren txispia.....	54
Eibartar zelebriak -VI- Ojanguren fotografua	56
Zatoz.....	61
Gabon janariak folklorean.....	64
Sagarra eta sagardoa Euskal Herrian	68
Xalbador.....	72
Antonio Arrue	79
Salbatore Mitxelena, aberri-minak eragindako poeta.....	82
Zuberoa gaindi	86
XVIII. mendeko gabon kantak euskal literaturan.....	89
Èguzkia gurtzea	93
Euskal-literatura bere barnetik ikertuaz.....	96
Euskal literaturaren beste aurpegiak.....	99
J. Zaitegi joan zaigu	105
P. Bordazarre "Etxahun" koblakariaren oroiz	108
Bakarrizketa Mikeli.....	111
Berriz ere Unamunoren inguruan.....	114
Mitxelenaren ekarpenez.....	134
Lizardi eta Lizardiren inguruan.....	137
Joan Inazio Goikoetxea «Gaztelu» olerkariatz zenbait aburu.....	141
Norbert Tauerren ondasuna.....	150
Langileriaren kezka eta borroka Lexo zenaren bertsotan	156
Nor zen Aita Lizarralde?.....	162
[Liburuak].Aita Donostia, <i>Obras completas</i>	167
[Liburuak]. Bitoriano Gandiaga. <i>Gabon dut anuntzio</i>	171

SARRERA

Eskuetan duzun aleak Juan San Martinek *Egan* aldizkarian argitaraturiko lanen antologia jasotzen du.

San Martin Koldo Mitxelenaren eskutik hasi zen aldizkari honetan kolaboratzen eta ia 30 urte eman ditu lankidetzan. Irigarai hil zenean, Mitxelenak eskatuta, zazpi urtez zuzendu zuen publikazio hau, 1989ra arte.

Aldizkariaren gidaritzza hartu bezain pronto, honen itxura gaurkotzea beharrezkoa zela iruditu zitzaion eta horretarako, beste gauza batzuen artean, arte kontuetan lehen urratsak ematen ari zen Unai semeari eskatu zion azaleko hegalean iruditxoa berregitea. Baten faltan, hiru egin zituen.

Ègun, aldizkari hau zuzentzen duen Guillermo Etxeberriak bilduma honen asmoa azaldu eta testuen aukeraketan eta hitzaurrean laguntza eskatu zidanean, pozik eta emozioz eman nion baietza, eta anaiari oraingoan ere azaleko irudia eskatu diogu.

Hementxe duzu beraz, 1960tik 87ra artean *Egan* aldizkarian argitaraturiko lan sortaren antologia hau. Literatura eta euskararen inguruan idatziriko artikuluak dira gehienbat. Juan San Martin izenarekin sinaturiko kontakizun, aburu, pasarte eta kritikak. Baina badira Otsalar goitizenarekin laguneri eskainitako poesiak ere. Ipuin eta narrazioetarako berriz J. Egigurendarra erabiltzen zuen, Eibarren Egueren bezala ezagutzen den aitonaren baserriaren izena.

Orain hauek guztiak ale bakar batean bildu ditugu, lan honetaz gozatzeko aukera izan dezazun.

Oier San Martin

Editorearen oharra: Juan San Martinen ortografia bere horretan mantendu dugu. Era horretan garbi geratzen da batura bidean eramane duen garapena.

MUNDUAREN GURPILLA

Maiz izaten ditugu norperekautan, zera, orrelako pentsamen igeskorrak, astrakto antzera, askotan pillaka burura etortzen direnak, ta arrapatakako bizitza estu au dalata edo, idazteko zaletasuna izana-gaitik ere, idatzi gabe gelditzen diranak; eta belañoa bezelaxe, kea bera baño ariñago etorri ta, une batzuetan idea lauso bezela buruan ibilli ondoren, idazteke, azkar suntsitzen direnak.

Orrelako unetan, sarri izaten ditugu bestelako lanik gabe bizi naiaren opariak, bañan oraingo bizitzak berakin duan estutasunak debekatzen digu gure gogoko bizitza orretatik joatea. Zein nekegarria dan beartsuaren izamena. Aberatsak ba-giña norperaren gogoko gauetan jarduteko. Zoritxarrez ez gera, ta ba-giña ere, bear bada, aberatsik gelenak bezela burgesia. ustelean aulduko giñake. Ta iñoiz ezdakit zer litzaken obe: burges oien antzerako bizitza lasai ta egintzaz antzua; ala estua bañan eraginkorra, naiz ta batzuetan norperak izaten dituan pentsamen oiek aidean gelditu, aizeak ezerez-teko.

Bañan askozaz ere tamalgarriagoa da norperaren etorkizuna aukeratzeko eskubiderik eza. Ta gaitzerdi, bizi-moduaren bideak ain garratzak ez-palira.

* * *

Iruña'n nago, "Cafe Iruña"-ko belador batean, Plaza Castillo aurrez-aurre dedalarik. Neguko egun sargori baten. Noizik peinean egoalzearen firi-firiak matrallak igurtzitzen didalarik. Azkenengo "Euzko-Gogoa" dut esku-artean eta Etxeberria jesuitaran "Nik ez!!", irakurtzeak zenbait pentsamentu igeskor dakarkida.

China'ko ipui bat da guztia; ipui laburtxo bat. Sorkaldeko filosofiaz kutsutua.

Erri guztiak dute edo izan dute beren folkloreko filosofia, orrelako ona ta txarra berezten dakiena. Erri batzuek beste batzuek baño

obeto sendotu dutena. Ozeania'ko ugarte askotan, China'n, Indi'etan eta bai Ameriketa'ko zibilizaziño zarretan arkitzen dira orretariko erri-
ipuañak. Maiz, naturaleza bertako gauza askotan arkitzen ditugun bi
indar dira; gizonen gogoaren izakeratikako txarra ta onaren indarrak.
Gizonaren istintoan sakon dauden bi indar. Indar bi oietariko bat
paltatuko balitza, gizonak bere ekilibrioa galduko luke. Txarrik gabe
ez legoke pekaturik, eta pekaturik gabe, gizona ez litzake berean
arkituko, istintoak dakarren almenetariko bat aulduko litzake; txarrak
berak ere bizi bearrari errazoia ematen bai dio. Sortzetikako pekatu
nagusi ori ere orrelako zerbait izan diteke, erri literaturara Adan eta
Eba'gan sinbolizaturik.

Onutsetik bakarrik ezta bizi nairik; onutsa oso aula da. Seguru
asko, txarra ez ba-genuke ain tentakorra, gure gogaketetako ona
aulduko litzake. Ori gertatzen da fisikako legeetan, ori berori da
politika arazoetan ere gertatzen dana, ta munduak bi naziño aundi
alkarren etsai izan bearra aurrerapenak lasterrago bultzatzeko. Errien
filosofia orrek, garaia aldatu-ala, beti izan ditu aldatu bearrak, aurre-
rapenak gauzen uste izanak ere aldatzen ditualako; gizonaren sikolo-
jian, bere oñarriak lenean izanarren, era berriak eskatzen dute orrela
jokatzea.

Filosofiak, sarri, gizon bat izanarren eredu, erriaren uste izanak
ditu bere oñarritzat, ta konzeptu oiek, aro bakoitzean bere tankera
izan dute, garai bakoitzeko zientziak eta usteak eskatu izan duten
neurrian. Orrela dugu Sokrates'en filosofia.

Sokrates giroak bultzaturik mintzatu zan, bestela bere garaikoak
etzieten ulertuko. Problema bat aztertzen danean, problema dagola-
ko izaten da. Orrela, Sokrates'i, orduko bere erriko idiosinkrasiatik
sortu zitzairen, berak biribildu, era-berritu, egokiagotu ta malla
batzuek goratuta erriari irauli zizkion gogaketa aiek. Ori dala ta, erri
bakoitzaren esaerak, ipuiak eta gañerakoak, bere muña dute. Orrek
banantzen ditu erri bakoitzaren zentzunak, ta zentzun oietzaz
mintzatzen geranean, jermaniar mentalidadea, latin mentalidadea,
ipartarren mentalidadea edo sorkaldetarren mentalidadea ta abar,
erabiltzen ditugu gure jardukizunetan.

* * *

Onak, berriz, bere alderdia du, ta ain zuzen ere bere alderdi ona. Ta, gizonagan, onak txarraren beste indar ez balu, gure mundu onenak aspaldi egin zuan.

Bizitza sortu zuen lenengoko zelulak ere, berentzako giro egoki batek sortu zituan. Eboluziñoak ere or ditu bere oñarriak. Izadiaren zear, giroak aldatuz, asimilatu ezin izan ziran biziak, il-zorira joan ziran. Zoolojian aunitz abere ditugu bizitzaren magaletatik galdu ziranak.

Gizonak oraindañokoan lortu du naturalezaren aldakuntzak eskatu ala, bere bizi-bearra irauneraztea. Errazoiaren bideak indartuaz asi zirelarik, gizonaren zentzuna geituaz etorri da. Bere izadiaren gauzetariko bat: errazoiak pentsamenaren egoak txertatu zitzaioia, eta orrek, eriotza ondorerako zerbaiten bearra edo naia.

Berekiko gogamenetan sakonduaz, misteriorik-misterio zamalkatu izan du; berakin ditularik ona ta txarraren burrukak. Ezkutu ori berori ez ote da naikoa errazoi, bere ulerkaiztasunean, aruntzagoko zerbaiti begiratzeko? Izaditik txertaturik daramagun zerbait orren ezkutuak, ez ote digu ipiñi bizirik barne burruka ori? Lauso artean zerbait estaltzen da. Ta ori gabe ez zegon gizonaren alderdi onarentzako indarrik ere. Bakoitzak daroagun barruko burrukak gordezten gaitu bizi onetan aurreruntz.

Baldintza atetan, onaren paltaz, askok beren buruak eraĩduko lituzteke; ta txarraren paltaz, nagikeriak eta bizi-pozik ezak etengo luke gizonaren bizitza. Zentzuetik eta osasunetik neurri zamarrean dabillen gizonak, txarra ta ona bere batean izango ditu. Ta beste asko, kanpoko itxurok gorde arren, ikustekoak izango lirake beren barruko burrukak.

Txarrarentzako barruko arra, misterioz beterik arkitzen da; ar ori: kontzientzia da. Ta, jakiña, ba-dakigu kontzientziako parte asko zelan edukatzen danaren gora-beran dagola. Bañan, baita, jakiñekoa da, bi gizon berdin edukatuak, beti ez direla berdiñak izaten kontzientzia kontu orretan. Ikusi besterik eztago familia batetik nolako anai ezberdiñak ateratzen diran.

Gizonaren izakerako misterioetan sakontzeak berak, orduan eta gelago sartzen gaitu ulertu eziñeko gauzetan. Orregaitik, emen ere, garai bakoitzak bere uste izateak ditu. Gelen bat ere, zientziaren aurrerapenak arkitzen dituan bide berrieri loturik. Ortik datorkigu:

"Doctores tendrá la Santa Madre Iglesia, que te sabrán responder", esaera ori.

Bañan Heard, Simpson eta Teilhard de Chardin'en bideak eztira atzokoak, atzokoeri loturik egonarren.

Gizonagan arkitzen diran pentsamenaren burruka auek, errietan ere berdin azaltzen dira.

Munbait, izamenean billatu bear beren arrazoiak.

* * *

Erruki ditugu txarraren indar gelago duten erri alek. Bañan onaren aldetikoak, kontzientziaren altzo nasaian lo daude. Ori adierazten digu Etxeberria'k "Euzko-Gogoa"-n dakarren China'ko ipuiak. China, bere erlijio ta filosofietan etzanda dago-edo, gaur bear bada obeto legoke, etzanda egoan. Ameriketa'ko Maya'k eta Azteca'k ere orrela egon ziran, ta europarrok kendu genizkien bartzak. Ejito'ko zibilizaziñoa ere orrela galdu omen zan. Aientzako gu izan giñan beren kulturaren zapaltzalleak. Ta egia esan, besteak txartzat egin da, amaika gerra eman dugu europarrok. Zer dan zillegi ta zer eztan, ez de erreza jakiten. Baña ukatu ezin duguna da, beste kontinente guztiak geuk zapalduak izan dirala. Indarrez edo zentzunez aldatuaz menderatu arte; lo zeudenak eta esna ziranak.

Inperio egarriz bizi izan diran erriak, eztira berez izan erri onak, ta orain, barruko arrak ez bañan kanpoko etsaiak bildurten gaitu. Lenago gure menpeko izan eta orain gu baño gorago arkitzen diran erriak beldurtzen gaituzte. Gure pekatuen ordañen bildurrez gera. China'k zapalduko gaituala? Napoleon batek aspaldi eman zien aitzen Europa'n batasunaren aurka zebiltzaneri, esanaz: "Ikusiko duzute China erraldoia itzartzen danean" Okerrrik egin ez ba-genuan, munduan gauza ona bakarrik zabaldu izan ba-genuan, orain ez giñan" etsaien bildur izango, ez orixe.

Bañan ezta ori bakarrik. Chinarrak ere kontzientziaz ornituak izango dira noski; gutxi edo asko, alderdi ona ere berekin izango dute. Guk, europarrok, kristauak geranok, beti pentsatu dugu geu bakarrik gerala munduan onak, geu errazoidunak eta geu guztien jabe. Zientziaren aurrerapenak eskatu diguten aldakuntzak ausnartuta gero ere, uste dugu geu bakar-bakarrik gerala errazoidunak. Pearl S. Buck gutxi izan dira gure artean, beste erriak aintzakotzat artzeko.

Bañan beltzagoak ba-ditugu geure gain. Geuk egindako makiña askoz azkarriagoa dugu. Geu bere menpeko biurtu bear gaitu, kontzientzia bako makiña onek.

* * *

Aurrerapen onek errotik eten ditu gure moldeak. Makiñaren zientzia, gizartearena baño bizkorrago doa; sarri, Alexis Carrel. Ortega y Gasset eta beste askok aitzen eman diguten bezela.

Bestaldetik, mundua geroago ta azkarrago biztanlez ganezkatzen dijoa ta aurrerapen oiek bearrezkoak ditugu guziok biziko ba-gera. Bañan, aurrerapen auek, erri bakoitzaren idiosinkrasia berezia, gordetzea ukatzen dute. Errien arimak nasturik dabilta. Ebo-luziñoan ordez kataklismoa ote dan ere. Orrelako giro urduria dator-kio gizonari, ta kataklismo ori, ez jakin bear dan neurrian iruntsi al izango duan: zortzikotik jazz'era, Velázquez'engandik Van Gogh'engana, sagardantzatik rock and roll'era, Descartes'engandik Kierke-gaard'engana, Adan'dik oreopithecus'era...; aldia aundiak daude ain denpora gutxian aldatzeko.

Munduaren gurpilla biraka dabil. Eta orrelako gauzak ikararik egiten ez diona ere, ez jakin bere-berean dagoan.

Uste izanak aldatu dira; filosofia ere bai. Filosofia bat bide dalarik jarri izan dira bizitzaren iritziak, agian bizi bearrarenak, eta orrek eman izan dio gizonari bearrezko itxaropena, mundu ontatik baikortasunean igarotzeko bestetarako izan ez bada ere. Gizonaren pentsamenak eta iritziak orain baño lenago ere izan dituzte aldakuntzak; ez ain denbora laburrean, noski.

Etsipena ta itxaropena, or beste bi indar errazoietan bakarrik deskantsatzen eztiranak. Auek ere neurtzekoak lirake.

Askorentzat problema auek oso sinpleak dira, guzia erabagita dute; bañan nik ez; nik ez bai dut zerura osterarik egin.

Orrelako pentsamenetan murgildurik jarri nau, garrantzi bageko ipuintxo batek. Bañan, garrantzi bagekoa ote? Badu ipuin orrek nun ikasi.

* * *

Oartzeke, eguzkia jetxiaz zijoan. Plaza Castillo'n, etheen keriza luzeak moteldu dituzte len bizi-bizi agiri ziran koloreak. Itzal oiek,

nerekiko irudimenean, Oswald Spengler'ek ikusten zuan Sarkaldearen gainbera bezela nabaitzen dituda; gizonak bere aurrerapenen teknikakin ito bearrean.

Lazgarria zait orrelako pentsakizunak azaldu bearra; bañan gaurko giroaren arnasaizeak dira, uxatu ezindako arnasaize indartsuak.

Alperrik izango litzake orrelako indar baten aurka jardutea, ta mingarri bada ere, idea asko aidatu bearrean gaude. Ala ere euskaldunok, geure mendi artetik mundua txikiagoa ikusten dugun euskaldunok, geure itsumustuan besteen onik ere ikusi nai ez dugularik, alkarrenganako zapukeria bizi gerlako.

Geureari eutsi? Ori bai. Aldan guziari eutsi, baña asko ditugu erbesteko aizeak ikutuak, geienak noski, ta ori ere ezin genezake ukatu. Mundukoak dira eta mundukoak gera.

Gu, "Geografia" izena euskerara artu edo ez-artu eztabaidaka gabiltzan artean; gure erria, Ameriketa'tik bueltan datorren, Afrika'ko beltzen oitura asko artzen ari zaigu. Ta alperrik guk nai ez izan, ala da.

Gizonaren bizia laburregia da, alkarri mutur joka ibiltzeko. Usteak. uste dira; eta guztiok gera, geure ez-jakin gorrian, Ona ta txarraren jabe...

Iruña, gure uri nagusia, illundu da, nere barneko kezkek ukakorrek bezela. Bañan pesimismo auen barruan, adiskide euskeltzale batzuekin biltzekotan naizela ni, argi apur bat usmatzen dut. Unerik etsigarrienetan ere beti agertzen zaigun itxaropen urri orrek ez al gaitu inoiz abandonatuko.

SAN MARTIN'DAR YON
1960, 1-2, 59-64.

ZULOAGA TA GU

Orain iru urte Eibar aldizkarian idatzi nuan ontaz zerbait. Zuloaga ta eibartarren artean izan diran tiki-mikizko auziak errialde guzietan gertatzen diranak izanik noski, ongarrri deritxot gai au berriz astintzea probetxugarri izan ditekealako.

Zuloaga da mundu guzian bere izena geien zabaldu duan eibarra. Ta bere ospetsutasuna eztu sortu istoriako beste gizon batzuek bezela, gerratik edo politikatik, ez: arte kulturaz baizik.

Inazio Zuloaga Zabaleta, Plazido ta Luziaren semea, Eibar-en jalo zan 1870-garren urtearen uztaillaren 26-an. Artista jatorria ekarren. Eusebio, bere aitona, 1808-an Eibar-en jaioa, Fernando VII-garrena-ren armeriako buru izan zan. Plazido berriz, bere aita, damaskinau kontuan Eibar-era ainbeste aurrerapen ta ondasun ekarri zuan gizona genduan. Bere aurrerapeneri esker amaika famillk jan du ogia Eibar-ko errian. Oraindik gaur ere asko bizi dira ortatik; baña lastima da Plazido joan zanetik ez dala beste aurrerapenik egin esan bearra. Gaur, damaskinaua, berak utzi bezela agertzen da, gaurkoz eratzeko bera bezelako beste artistaren bati begira, Mesias aipatuari bezela.

Bere osaba Daniel zeramista ontzat ezagutu da. Baña guzien iturburu Eusebio aitona izan zan. Orfebrerian eta repojaduan besterik ez lakoa zan Eusebio. Orrelako aita maisu zalarik ezta arritzekoa semeak artista izan bearra.

Aitona, aita ta osaba entzute aundiagokoak izango ziran Inazio pintorea orren ospetsua egitera eldu ez-balitz. Inazio-n izen aundiak besteena zerbait itzali du, Zuloaga, bera besterik ez balitz bezela.

Arrigarria bada ere, Zuloaga etzan pasatu iñungo eskolatik, bere aitarena eta mutikotan Eibar-en Fausto Mendizabal-en dibujo eskolatik izan ezik. Bere etxeko arterako giroa ondo aprobetxatu zuan, ta naikoa izan zuan bere barnean bein eta betiko egiazko artearen kezka bat sortzeko. Eta bere bizitza zear arte kontuko eskolak uxatu zituan. Beretzako, artista bakoitzak bere burua landu bear zuan,

zergaitik, berak esaten zuanez, maixu ona zan pintorerik ez omen zan.

Akademismoaren betiko leloari iges egin zion. Kezkatia zan iza-tez eta berak bere bidea aukeratu nai zuana. Orregaitik ez zituan orduango artistarik geienen antzera kuadru istorikorik eta marchands-entzako kromoak egiten; ez zan joan saritxoen ondoren, ezta maixutarako alki billa ere. Egia, arroegia zan orrekin konformatzeko.

Bere pintura bortitza urriñago zijoan. Bear bada, orregaitik ez zan sortu Zuloaga-ren eskolarik. Berak alegiñik egin etzuelako, iñork etzion jarraitu. Flores Kaperotxipi-k dio, arriturik: "Zuloaga-rekin gertatua, bear bada lenengokoa da historian. Maixu bikaña izanik, teknika baten jabe eta mundu guzian aundietsitako dominio bat izanik, ez du utzi jarraitzallerik. Euskalerrian bertan iñork ez du jarraitu Zuloaga-ren bidetik. Txalotzen da, baña etzaio kopiatzen. Ikasbidetzat artzen da, baña etzaio antzik ematen." Ori gañera, berak lagunduta, pintore bat baño geiago aurrera atera dirala; zergaitik, bera izan zan, beste askoren artean, Balenziaga ta Arrieta poztu ta animatu zituana.

Bere lenbiziko lanak Eibar-en egin zituan, Orrela ziran "Arrateko itsua", Curtis-l ain atsegingarri izan zitzaiona; ta "Eibar-ko iturria" (Urkuzu-ko iturria), bere aitari asko gustatzen zitzaiona. 1887-garrenean, artean mutiko bat zalarik, azaldu zituan bere lanak, "Un sacerdote rezando" zan beren artean onenetariko bat. Garbi ikusten zan bere erriarentzako izan zituala lenengoko maitasunak. Baña, jakiña, artea ez da errizulorako egiña, arteak ez du mugarik, eta ez eskatu artista bati au edo bestea erriaren alde. Bera, mundu zabalerako egiña da, Au, askok ezin dute ulertu ta artista bati eskatu nai diote poeta bati, militar bati edo politiku bati eskatu bear zaion doaia.

Ala ere, Zuloaga-ren bizitzan zear, argi adierazten digu bere biotza errimiñez beterik bizi izan zala, ta 1900-ean, Segovia-ko puntan, "La corrida de Eibar" pintatu zuan Plaza ura, Untzaga-n, San Juan jaietan "Andres arotzak" urtero jasotzen zuana zan; bere atzekaldean Untzaga-ko torre renazentista zaarra agiri zala.

"Andres arotza" aipatu degunez, bere gertaera bat kontatu bearean arkitzen naiz: antziñako Eibar-en, erretore jaunak, eleizan ziran lan guziak "Andres arotza"-ri eragiten omen zizkion, tellatuak ez beste guziak; tellatuak Txantxiku-k egiten omen zituan. Aste Santuko prozesiorako Jesukristo-ren gorputz illaren irudi berri bat erosi omen

zuan erretore jaunak, Enbil jauna omen zan. Zurezkoa omen zan, baña bikain landua, ta kristalezko kajo bat egiteko agindu omen zion "Andres arotzari". Ez dakigu "Andres arotzak" neurriak nola artu zituan. Lenagoko Plazentzia-ko arotzak bezela edo; ollo-txabola bat egin omen zuan bere arotzerian eta gero ezin omen zuan atera, atean etzalako kabitzen. Ta, "Andres arotzak" ere, Jesukristo baño kaja txikiagoa egin omen zuan. Erretore jauna larri, biaramunean prozesiñoa egin bear zala-ta. Baña, gure Andres maña askodun "biargiña" omen zan ta, egiñak-egin, ez omen zan asko larritu. Arotz batek ez izatekotan aterik aña maratil, nor izango zituan ba? Bai asmatu ere "Andres arotzak". Irudiari, belaun ingurutik, oñak ebaki omen zizkion eta kontu guztiakin ipiñi omen zituan ezkerreko ankia ezkerreko alderdian eta eskubikoa eskubiko aldean. Erretore jaunak konpostura ura ikusi zuanean, eskuak burura eraman da, esan omen zuan: –"Baña, Andres! Zer ein dok?" Ta, Andres-en erantzuna: –"Jauna..., ba... Jesukristo zan kajoian kabitzen ez zana, ta, burua ebatea baño obe zala pentsatu dot".

Orrela zan Zuloaga-ren gaztaroko Eibar. Ez ote zan bere amesetako Eibar Segovia-n pintatu zuana? Zuloaga bezelako ederzale bati, atsekabe aundia eman bear zion Untzaga jauregi renacentista ura botatzeak. Eibar aldatu ala, bere erriarentzako maitasuna galduaz joan zan. Ta, ori ezta arritzekoa. Nor ukatuko luke gaurko Eibar-en bizi geranontzat lenagoko Eibar ez zala atsegiñago ta maitagarriago? Zuloaga-k bazuan erri-miña, baña bere gaztaroko erriarena, ta ez gero ezagutzero eldu zanarena. Ortan, uste det eibartarrik geienok gaudela Zuloaga-ren gisan.

Zuloaga-k, aurrera urtetzeko ta aurrera urten eta gero ere, gizon aundi guztien antzera, gorriak ikusi bearra izan zuan, naiz ta eibartarra izan. Gorrotogarrizko inbidia agotan erabilli zuten. Artista aundi guziak bezela, eztabaida asko sortu, zuan bere denboran. Eta erbesteokoak orrela baziran errikoak ere etziran atzean geldituko: Kristo-k esan zuan lez, iñor ez omen da izaten bere errian profeta.

Euskaldunak esan izan dute, Zuloaga Gaztela-zale amorratu bat zala, eta Gaztelakoak beti asarre, beren miseria besterik pintatzen ez zuan euskaldun madarikatu bat zalako. Baña, egia esan, Zuloaga-k berak nai zuana edo sentitzen zuana pintatzen zuan iñori jaramonik egiteke. Pancorba-k zion Gaztela lur-gorritz ikusten zuela, txiro ta kultura gabe, aurrerapeneri atzea emanda; Gaztela legorra, arri zaa-

rrak, zeru larriak, bere monstu iduriko gizon itxusi ta zakarrekin. Orrela dira izan ere "Las brujas de San Millan", "Grégorio" (El botero), "Mujeres de Sepúlveda", "Castilla la Vieja" ta abar. Beren onduan, oraindik Erdi Aroko zentzuz bizi diran "El Cardenal", "El Cristo de la Sangre" ta gañerakoak jarriaz. Zuloaga-k pintatu zuan España oñazez, gogai larrietan odolusten bezela. Ta, oraindik ere, askok, ez die parkatu bere erejia. Baña, azkenengo aldiz Trabazo-k "Indice"-n esanak gora-bera, pintore aundi bat izaten jarraituko du. Trabazo bera ere pintorea da, baña urteetan naikoa aurrera joanarren, oraindik bere lanak ez dira gauza kritika bat merezitzeko ere. Txarreanean ere, zozoak beleari: ipur-beltz.

Zuloaga-ren kolore beltzak, ijito, gaztelar nekazari, arpegi illun eta tristedun toriadore, ta abar, Zuloaga-k bere barnean trajediren baten burruka zeramala ematen du. Paris-en pasatutako bohemio bizitza nekegarriak nunbait biziazen garratza erakutsi zion larrimiña nabari du eta miseria ta trajediaren deiari jaramon egin zion bere paleta ta pintzelakin beren aldarrikak jasotzeko. Rusiñol-ek esaten zuan bezela, Zuloaga-rentzat ez zan gozotasunezko kolorerik eta arpegirik, lienzoak gordintasunez pintatu bearra sentitzen zuan.

Berriz, Euskalerriko gauza gutxi pintatu badu ere, egin dituanak Aurelio Arteta baten mallakoak izan dira. Kritikuen iritziz "Bersolari" ta "Amarretako" jarri bear omen dira goren.

Baña orrela ere euskaldunok ez gera konforme. Ez dakigu, ba, gure baserriko bazter-txuloak loraz pintatzen edo pasatu bear zuan bizitza, errimiña adierazteko. Ez al da gutxi, gurea egin duan gutzia apal eta goxo egitea? Nola pintatu digu Euskalerrria "Orixe"-k gure poema nagusia dan "Euskaldunak" liburuan? Paketsuak, apalak, epelak, motelak eta totelak. Langille, jakiña. Zuloaga-n antzera gutxi gora-bera. Eta etzan asko obea izango "El botero"-ren antzekoetatik asi ta ijito, jaubeltz, puta-zar, inkisitore, erortzen dauden erri-zar tartean toreadoriak jauntxo dirala pintatu baginduz. Orduan bai izango zala zer esana.

Izan ere, Zuloaga-gandik intelektualak bakarrik libratzen dira, neska merezigarritzko edertasunaren jabe danen bat edo beste gandik aparte. Oiek ikusten ditu ongi: Larreta, Valle Inclán, Falla, Azorin, Ortega y Gasset. Beobide-n antzerako artistaren bat edo beste ta abar. Toreruak arpegi illun larriekin ta Duque de Alba arro despota, zuzenki begiratzeko ere gauza ezala.

Baita baziran beste asko "El Greco", Velázquez, Zurbarán eta Goya-gandik ikasitako pintura zala esaten zutenak ere. Lau pintore oiek, estiloz, bata-bestiagandik ain desberdiñak izanik. Laurengandik ikasi bazuan ez zan mutil txarra. Baña Zuloaga-k gauza bat bakarrik zuan oiena laurona: beren malla ingurura eldu zala. Kaperotxipi-k garbi asko esaten duan bezela: "El arte de Zuloaga no nace en otra fuente –por lo menos visible– que no sea la suya. Nace en él. Y quedará en él, cuando desaparezca, después de haber dado abundantes glorias al pueblo vasco." Ikusita dago, Zuloaga maitatzeko artea maitatu bear dala, ta jardun guztien gañetik, gure pintoreak famadun jarraitzen duala. Gauza guztien gañetik, jenio bat zanik iñork ezingo du ukatu. Gañera, eibartarrok ukatu ezin genezakeana da, Eibar-ek mundura eman duan gizonik aundiena dala.

Bere lanetan, atzekaldeak eta soñekoak arin dibujatzen, ba-zuan Olabe-ren eite bat. Ori zalata, gure erriko pintoriok akademismotik larregi biurrituta zabiltzala esaten zutenak ere baziran. Baña, orduan ori esaten zutenak, gaurko surrealista ta astratoak ikusiko balituzteke zer esango ote zuten? Zuloaga-k eta Olabe-k anima gabeko akademismoari iges egin zien, bakoitzak bere tankeraren bidea jarraituz. Izan ere, galduta dago iñoren eretara jausten dan artista. Bere nortasunaren kezka azaltzen ez duan artista ez dabil zintzotasunez, eta arteak sentipenen zintzotasun utsa izan bear du. Norberekiko biozkadak ausnartuz egiten da artea. Besteena ezagutu bai, baña besteena ezagutuz norberana sortu, barne-muñetan murgilduz.

Geroago, zenbaitek esan du klasiko-egia zala. Arteetan aldakuntza aundiak asi bear ziran garaiaren mugan bizi zan, ta etzan erreza, orduan, geroago izango zanaren bideak artzea. Aldizka, modak sortzen dira ta asko eramaten ditu korrontak nora dijoan konturatzeke; len gauza bat defenditzen zutenak, beralek, beste gauza bat diote orain. Era berriak ez dira oraindik burutu, ta burutzen diranean ere, ezta elburu izango. Gizonaren sorketak ez du bukaerarik, nolabait, beti joango da bide berrien billa. Orregaitik, gaur, zenbait gauza ta uste aldatu ondoren, ez gera nor aurreko arorik urrena bear bezela juzgatzeko. Oraingo moldeak burutzen diranean, ta beste era berri bat sortu, orduan pasatuko dute galbaia nork balio zuan eta nork ez jakiteko. Zenbat eta zenbat ustel baztertu bear izango ote dira orain ontzat daudenak. Eta zenbat jaso orain konturatzeke bazterrean daudenak.

Denak mintzatzen dira penaz Van Gogh-i bere denboraz goramena egin bear eza. Bere bizitza ziara ondatuta gero konturatu ziran, beraz. Ta, gutxi oroitzen dira bere bohemio bizitzaren larritasunik aundienetan, Zuloaga izan zala Van Gogh aundietsi zutenetan aurrenengo bat. Nun ziran kritiko onak? Ta "El Greco" ezaugarri, gorengo jarriaz, nortzuek egin zuten lanik geien 98 jeneraziokoak izan ezik? Ta beren tartekoa ez al zan Zuloaga? Beren tartekoa eta tarte orretan lanik geien egin zuana "El Greco"-ren alde? Gaur, nornaik daki "El Greco" nolakoa dan, baña denbora artan Velázquez, Zurbarán eta Goya zirala uste zan bakoitzaren garaian, ta orain iñork ez du zalantzan jartzen aiek añakoa edo aien gañetik dagona zala. Ta zelan ez, gaurko artearen tajueri antz geiago badu?

Ta Utrillo gizajoa? Paris-ko bohemiak alkoheletan suntsitu zuan gizajoa? Bere lanak, bere animaren barrukaldetik ertenak dirala esaten da. Ta Utrillo-ri atsegin zitzaion Zuloaga-ren lana. Iñoiz etzun jarri zalantzan.

Eskola berriak ikaragarritzko aldakuntzak izan dituzte azkenaldi ontan. Batez ere inpresionismotik asita. Era berri oietan Picasso izan da buruzagi, baña Picasso bat bakarrik da munduan. Igaro diran eskola guzietan nagusi azaldu zaigu; dakielako nundik zear dabillan artea bere bendu du. Azkenaldiko era berri auekin konforme eztanak ere an ditu, bere begien eta sentipenen atsegingarri, rosa ta urdin kida artako lanak. Zuloaga berarekin konparatzea astakeria bat litza-ke. Munduak mende askoren barruan ematen duan bakana degu Picasso.

Aroetan zear, kulturaren gurpillak bere malla eskatzen du. Zientziaren jakintzak filosofiari loturik buru dirala, artea eta literatura bere garaiko usteeri loturik dijoa. Ta, uste oieri lotzen ez dana, ez dijoa gurpil orrekin, atzerago edo beste bide batetik baizik. Geienetan atzeregi joanaren pekatua izaten du gizonak. Artea, arteari bakarrik lotzearren edo poesia, poesiari. Orduan gertatzen zaiguna da, geienean, lenago egiña obetu bearrean, egiña egiten ibiltzea. Baña, aurrean esan dedan bezela, gizonak duan almenik onena, ta beste animaliak ez dutena, gauzak sortzeko almena izanik elburu berrien billa joatea da mundu onetan. Ori da gauza guzien egia. Ezta izango bizitzaren errazoi bakarra noski. Ez baita errez bizitza onen egia-zen errazoiak ziarri jakiten. Zerbait gerala? Jakiña; geranak ez bagera, gu, zer gera? Izatetik, zentzunez, zertako gaudenaren ustea oso urruti

iduritzen zaigu. Gerana dakigu, gaudelako, ta gauden malla ontan ditugun almenak gauzak sortzeko. Sorketarik ez dago jakiteke. Era guztietako sorketak zientzia dute beren iturburu. Filosofia, gizonaren pentsamentueri loturik egonak, berakin ditu milla korapillo. Filosofiak jartzen dizkio gizonaren errezoari formak, ta andik zabaltzen dira bizi moldeetara, artea tartean dalarik, bere giroari dagokion era. Gaurkoari lotuta ez dagon filosofia ez da filosofia zintzoa. Gaurkoa utsutsik ere, ez da ezer, edo ez beintzat guztiz garbia. Lena ezagutu eta gaurkoan biarkoari begira. Ori da gizonak berarekin duan legeetan bete bearrik aundienetako bat. Orregaitik, gaur, oraindik Velázquez-en erara pintatzea, orduko moduaren moldeetan egotea litzake, gauza berririk ez sortzea. Ta ori litzake gizonak duan doairik onenetarikoa ukatzea: sortarazitze doia.

Aldakuntzaren mugetan ez dala bereizkuntza ziurrik? Tartean-tartean tranpa asko izango dala? Bai, ala da. Zuloaga, artearen mugimentu aundien muga-mugakoa degu. Garbi bereiztea gaitza dan garaikoa. Lenari geiago lotu zala berriari baño? Egia ori ere. Bidea garbi ikusten ez duanak berarekin du ezagututakoari ur emanaz joan edo, ezagutzen ez danetik jokatzuz, galdu edo ohea billatu. Zuloaga, bear bada, lenari larregi lotu zan. Arteta ez ordea. Tamalgarri izan da Arteta orren gazterik mundutik joan bearra. Aurelio Arteta bere tankera berezi baten jabe zan eta bertatik jarraitu zuan aldatuz: obetuz. Bere barnemiñaren dei otsak jasotzen zituan noski.

Zuloaga etzan uste bezin klasikoa, inpresionismoa ere ederki menderatu zuan, eta baditu zenbait kuadru ziara inpresionistak zirenak. Esate baterako, "Sitges", bere familikoak Zumaya-n gordetzen duten lana, inpresionista da, ta eskola onekoa gañera. "Cerros de Calatayud" eta "Plaza de Albarracin" ere, beste batzuek bezela, inpresionista tankerakoak ditu. Berriz, gaurko astraktoak, guziak ontzat artu bear baditugu, naikoa litzake aipatutako lan auen baztertxo bat bakarrik artzea astraktorik onenekin konparatzeko. Zergaitik, gaurkoak ere ez bai dute oien baztertxoetatik jaso genezakeana baño geiagorik. Donostia-ko Eguberriko konkurso oietan azkenengo urteetan ikusi ditudanak beintzat eztidate geiagorik esan. Asmakizun berri asko dabil, baña tranpa asko ere bai. Berria eta berrikeria ez dira berdiñak.

Zuloaga-n zeruak buruko min aundiak eman dituzte eta ematen dituzte. Batzuen iritziz "El Greco"-gandik jaso zituan tankerak ditu,

beste batzuentzat Euskalerriko zeruak Gaztelara aldatuta, ta Trabazorentzat gusto gabeko fantasiak, iñun arkitzen ez tiran asmakizun itxusiak, atmosfera pintatzen etzekiela betegarri egindako zikinkeriak. Trabazo-k ikusi balitu Arrate-n dauden lau kuadroak, bearbada etzuan orrelakorik esango. Arrate-ko pinturak giro berezi bat dute Zuloagaren lanen tartean, ez dute bere gañerako lanen antzik; atmosfera giroa dute. Ori egiten ere bazekiela adierazgarri baño ez badira ere.

Badakigu bere lanetan atmosferaren lausoa falta dala, baño ori ezta etzekiela juzgatzeko. Artistak eskubidea du bere gogoaren erara pintatzeko. Ribera-ren lanak nun dute atmosfera? Ta iñork ukatu aldio jakitea? Eta zergaitik Zuloagari bai? Ori diotenak Arrate-koak ezagutzen ote dituzte?

Nik esango nuke "El Greco"-gandik zetorkiola eibartarrari era ori. Bear bada, "El Greco"-rena Euskalerriko zeruakin eta bere barnego-
goakin lagun-erazirik.

Irudien ostekaldea ez lausotzea eta kontraste gogortasuna berakin zuan Zuloaga-k, ta bere errazoia bere euskotar izakera bortitzean bakarrik billatu genezakeala uste det: euskaldunok arterako degun gogortasuna nabari du. Gure sikolojiaren giarra da, ta or dago artista-ren euskalduntasuna ta ez emengo gaiak erabiltzean. Bestela, orrela ez izatera, China-ko gaiak pintatzen dituzten inglesak, chinoak izango lirake; ta Inglaterra pintatzen duten chinoak, inglesak. Zuloaga Gaztela zale izateak ez du euskotar izakera ukatzen. Euskarologo guztiak ez dira emengoak, ezta hispanista guziak españolak ere.

Esanak esan, Zuloaga-n lanetan, bada gure giarra; bortizki gañera. Dibujoa ezin ohea du, indar aundiko lanak dira, gogor egiñak, ta era ortako lanak berekin izaten dute kolore beltza. Beltza, beltza! Or dira pintorerik geienak pekatari. Kedarra dariola daudela bere lan batzuek? Beltzetik gutxi atera dira Zuloaga baño dotoreago. Bere beltzak erdaldun bati ez dio gauza aundirik esango, baño bai guri. Gure izakera ez dago Montes Iturrioz-en bigun maxkalean. Euskalduna ezta orren epela. Ori epeltasun ori gure erromantikoak bakarrik nabari dute, ta oietarikoak ditugu gaurko euskal idazle asko ere.

Kareaga gazteak, eibartarra ta impresionista berri oietakoa degu, ez du iñundik ere Zuloaga-ren eskolaren antzik, baño, Zuloaga bezela, beltza ukatzeke dabil. Kareaga, temperamentuz, Zuloaga-ren gisakoa da, ta apaltasunean Olabe ber-bera, ta ezta milagro eibarta-

rra izatea. Zuloaga oso artoa zan, elbatar asko bezela, baña ez guztiak bezela, askok uste duten moduan. Olabe, berriz, apalegia ta bere apaltasunak ondatu zuan artista; egia esan, bere apaltasunak eta bere jenio txarrak. Kritikku batek beragaitik gaizki esan zuala ta beste gabe, ogei urte igaro zituan pintatzeke. Kareaga-k, Zuloaga-ren aide bortitza du, ta Olabe-n apaltasuna, ez ordea bere jenioa; baña, penaz naiz, bere erritxokotik iretzeke, etorkizuna galduko ote duan. Adibidez, Kareaga paisajista uts-utsa da, ortarako jaioa, beste biak erretratu ta konposizioan ziren bezela. Paisajeen besteen gañetik dago.

Asko erabilli da agotan Zuloaga-ren erriarentzako maitasunik eza. Aurrean esan dedan bezela, nik eztakit nungo eskubideak ditugun pintore bati maitasun ori eskatzeko, ta gañera milla progantza daudela Eibar ta Euskalerrria malte zituana.

Madrid-en eta Paris-en bere denborarik geiena igaro bazuan ere, ori zegokion bere lanari zenbait erakusketa antolatzeke. Oietatik kanpora zenbat tokitan egin izan ditu, bai Frantzian eta bai Españian, ortariko erakusketak Bilbon eta Donostian baño geiogo? Paris-en eta Madril-en udazkenetik udaberrira arte lana egin ondoren ez al zuan udarako atsenaldia Zumayan igarotzen? Ta, Urraki mendian, Goyaz-gañekaldean ez al zuan estalpe bat egun batzuetan gure mendiekin asetzeke? Gabriel Zelaya-k bere poeman esanarren Zumaya-ren edertasunak etzituala ikusten, ori ezta egia. Ez bazitzaion atsegin etzuan bizi lekutzat aukeratuko, ta gutxiago atsedenaldiko bizitzarako. Zumaya etzuala pintatu? Ori beste gauza bat da. Zumaya-ren goxotasuna, bizitzeko obeki zegokion bere kuadru gogorretarako baño. Nik, ori dala esango nuke bere eritzia.

Ta, gauza guzien gañetik; ukatu ezin genezakeana da Zuloaga-k Eibar oso maite zuala. Udara Zumaya-n igarotzen zuala ta ez Eibar-en? Zuloaga etzan orren kaikua udara Eibar-en igarotzeke. Paris-tik edo Madril-dik etorri atseden billa ta nola, zentzundun gizon bati, bururatuko zitzaion Eibar-ko zuloan igarotzea? Uri aundi aietan bezela arnasestuan bizi izateko? Eguzkia ta batez ere aizea urri ta kea ugari diran txokoan sartu? Erritik urbil gelditzea ez al zan gutxi? Maiz ez al zan agertzen Eibar-era bere autoakin? Bere eriotza aurretxoan, orain dala ogeitaseiren bat urte ere, entzun zuanean Eibar-ko eleizan Araoz-en erretablu ederra (Gipuzkoa-n danik renazentistarik oneneta-koa noski) garbitu ta berriz pintatzeko ideetan zirala, aguro mogitu

ziran bere oñak, polikromia zaarra errespetatu eragiteko. Ta eskerrak bera arduratu zanai Eibar-ek duan monumentu onena zan bezela gordetzen da; zergaitik, euskerazko sermolak debekatuta zituzten orduango erretore eta koadjutorra gora-bera, morokil ederra aterako zan polikromia berriakin.

Erbestean bere izena ospetsu egin ondoren ere Eibar-entzako errimintasunez bizi izan zan. Ta, Erroman lenengo saria jaso zuanean, poztu zan Eibar-ko erria ta sekulako jai-aldia antolatu zuen, bere omenez. Salvador Eizagirre, Casino de la Amistad'eko presidentea buru zalarik, Eibar-en orduan ziran bazkun guztieri dei egiñik, 1912-garrengo libeltzaren 6-an aukeratu zan omenaldi ori egiteko. Eguna eldu zanean, Udaletxean, txistu ta danboliñez egin zien ongi-etortia, Astaburuaga alkateak eta Eibar-ko 21 bazkunen ordezkariak. Ondoren, Hospitalera ostera bat egin zuan ta milla pezeta ta sei oe berri eman omen zituan pintoreak. Gero, Astelena frontoian izan omen zan bazkaria. An izan zan Fausto Mendizabal, bere lenengoko dibujo maixua ere; ordurako larogei urte zituan. Ta, alun eder bat eman omen zien zortzi millak izenpeturik. Bazkalondoa, Zuloaga-k, zutinduta, eskerrak emanaz, itzaldi bat egin omen zuan erderaz, gero euskeraz bukatzeko itz auekin: "Eibartarra naiz, eibartarra izango naiz, eta eibartarra ilgo naiz. ¡ Viva Eibar !"

Inazio-k, bere emaztea paristarra zuan eta bera ere Frantzian famatua egin zanez, maite zuan mugaz-andiko erria ere, ta Europa-ko gerra ondoren, ango umezurtzen alderako diru batze bat egin zuan ta Eibar-ko "biargin" guztiak egun bateko irabazia eman zuten. Ogeita amalau milla pezetaraño batu zan ta Zuloaga bera izan zan Poincaré, orduango presidentia zanari, eskuz-esku eman zizkiona.

Gero ta gero ere bere erri ingurua zeraman berekautan: mundu guzian ibilli ondoren, bere izena goren igo zanean ez al zuan atsedean toki dago arkitu bearrez, 1914-an egin Zumaya-ko Santiago-etxea?

Arrate-ko eleizara lau kuadro eman zituan. Azkenengo gerratian zerbait estropeatu zirala ta berriz ipintzera etorri zan. Ipiñi ta gero, Ama Birjiñari errezzatu ondoren, bere kuadro oieri begiratuz esan omen zuan: "Ortxe usteldu zaitxie".

Baña, Eibar maite bazuan ere, nai ta nalez, min aundia artu bear izango zuan beren familiko jauregiakin gertatu zanagaitik. Errebal kalkan egoan "Kontadurakua" deitzen genion zuloagatarren jauregia,

kantoiakalde batean balkoia zuelarik armarri batekin, Bergara-n diran batzuen antzera (adibidez, Bergara-ko Arrese jauregian bezela), ta gure errian egin diran urbanismoko beste astakeri askori ezarritzeko; bere illaran etxeak egin ziran balkoi ta armarri alderdi bata tapatuz. Errebaletik Bidebarrietara zear-kale bat atera bear zan, eta alderdi ori errespetatuz egin bearrean, metro batzuek gorago egin zan zear-kale ori, Trokolaneko kantoiari.

Eibar-en ez zan gauza berria arteentzako maitasunik eza. Arrezkero ere jokabide berdiña jarraitu degu eibartarrok, ta genituan monumentu apurrak, premiña gabe, lekurik ezaren atxakian galdu ditugu. Zuloaga asarre izan zan beren jauregi ederrari ori egin bearrez. Gañera, Errebaletik Bidebarrietara kale berri bat zabaltzeko ain ederki etorrela "Kontadurakuan" kantoiia. Noiz ikasi ote bear dute, arkitektoak batez ere, len diran edertasunak galtzeke berriak sortzen?

Nik neuk bizi guzian ezagutu nuan alderdi bateko arma ori tapatuta, baña erriko zaar asko oroitzen dira orduango Udaletxeoak zuloagatarrekin izan zituzten eztabaldekin.

Jauregi orretan, Luzia, Inazioaren ama il zanean gertatutakoak adierazten digu Inazioaren jenio bizi ta kartsua. Amaren eriotzaren berri eman ziotenean Paris-era; berealaxe jarri zan bidean. Ta nola ez, batetik ama bazuan, bestetik bere artista bidearen laguntzalle izan zuan. Paris-en diru gabe bohemiari gorrienean agertzen zalarik, bere aitak etzion nai dirurik bialtzea, Eibar-era itzuli ta bere ondoan damaskiñaduan lanean astea baizik; Inazior, ordea, pintore izanaren egarria zuan bere barruan ta, gero berak esana, amak laguntzen zion zertxo bait aitaren ixillean. Orregaitik, eguerdi artan, amari lur ematera ozt-oztan iritxi zan. "Kontadurakora" joan zanean, inguru onetan oraindik baserri, erri-txiki ta zenbait baserritik jetxitako famili artean oitura dan bezela, "onra-jana" (ildakoaren izenean jateko oitura zaar batetik dator, luzea litzeke orain emen azaltzeko bere zeazkizuna, baña noizbait mintzatuko naiz ortaz) egiteko gertu billatu omen zuan bere etxeko maia. Bazkitan asteko zain zeuden senide, adiskide ur ta gañerakoen aurrean, mutur batetik oratu omen zion maiko mantelari ta indarrez tira eginda bota omen zituan lurrera bertan ziran ontzi ta janari guztiak, esanaz: "Gure ama il dalako, nik ezin neike ontzat artu gure etxean banketerik."

Azkenengo gerratean erre zan "Kontadurakua". Gaur ezta bere lorratzik gelditzen; Malleatarrenekin batera desegin zan.

Zuloaga-k Eibar-entzako otzaldia izan zuala bere azken urteetako bolara aretan? Arritzekoa al da ainbeste min artu ondoren? Bere etxea galduta, lagun zaarrak berriz, il etziranak artean, geienak munduan zear sakabanaturik. Bere denborako Eibar falta zitzaion. Bereztat Eibar ez zan lengoa. Eta, bere zaartzaroan Eibar-era gutxi agertzen zan, ta ez zan Eibar berri onek aztu zualako, ez; bere adiskide zaarrik gordetzen etzuan Eibar onek samintzen zuelako baizik.

Azkenengo urteetan ere barnean zeraman bere Eibar. Eta, Madril-en bere zaartzaroko azken urteetan jarri zuan erakusketa batean, bodegoi batzuekin naastean, mutikotan Eibar-ko etxean izan zuan lenbiziko pinturako estudioa azaltzen zan. Zaaturik, bere lenagoko izakeretara gogoz itzulirik, biotzetiko ames bat balitz bezela, sorterriko oroitzapenetan murgildurik ibiltzen omen zan gure maixua.

Eta, duda gabe, azken urte aietan, bein baño geiagotan ibilliko zan bere buruan Eibar-ek egin zion omenaldi ura. Zergaitik, Eibar-ko damaskiñau-gintzako "biargiñak", urtero, San Plazido ondorengo igandean Zumaya-ra egiten duten ostera ortan (Inaziok berak, bere aita-zanaren oroitzapenez ipiñitako jaia da), entzun nion urte batean bere alabari: beren aita noiz-naiz gogoratzen zala Eibar-ekin; bere ustez Eibar izan omen zan bere aitarentzat erririk maitagarriena.

Eibar-ko erriak, ondo merezita, estatua bat jaso zion eleiz-aurreko jardinean, Elgezua eibartar eskultoreak egiña. Eibar-ek bere alde egiñagaitik ez du bere izena asko geiago jasoko; bera da, bere izen aundiakin, Eibar jasotzen jarraituko duana. Eibartar askoren artean somatzen det bereganako oztasuna. Arro bat zala, etzuala erriaren alde ezer egin... esamesak. Arrotasunean eibartar-eibartarra zan, ta gañerakoan norperagandik neurtzen asi. Eibar-ek, aberats asko ta Mecenaz gutxi ditu.

Zorionez, gure baratza, ezta dana arantza. I. E. Andikoetxea eibartarrak, Argentina-n idatzi zuan liburu bat, laudorioz beterik, Zuloaga-ri buruz. Gañerako euskaldunok ere ezin genezake guregandik uxatu, Frantzi-Españietako kritiku guziak ao-batez mintzatzen diralarik, bere pintatzeko tankeren giarra Euskalerriko semea izatean dagoa diotenean.

Zuloaga-k, bere bizitzan zear, maiz agertu zuan Euskalerriarantzako maitasuna, bere bizi-modu langillearen atsedean kabi zalarik. Artista zan asi oiñetatik eta buruko illeetaraño, mundu zabalerako jaloa eta ez erri-zulorako Iparraguirre-n mintzairan esango genukean bezela: "...eman da zabal zazu munduan frutua".

JUAN SAN MARTIN.
1962, 4-6, 173-183.

EIBARTAR ZELEBRIAK

Izen onekin argitaratzera nola eibartar zelebren batzuen gertaera umoretsuen barrixak.

Eibar-ek, Zuloaga-k pinturara edo Juanito Gisasola-k musikara moduan, emon ditxu beste gizon batzuek umorerako. Ze, ezer goragarririk izan bada erri onetan, bertako semien umore garbixa da ezaugarriarik onenetarikua, ta umoria be bere arte berezi baten jabe da.

Bertan ikusiko dogu erri-giro batek sortutako jatortasuna, lengo Eibar-ko gizonen argitasuna, euren izketa jatorraren indarra, bakotxaren zirikadak euren sikolojia modua aglrixan ipintzeskuela. Orregaitxik, egizko mamiñari ezer ez ukatzeko, elbartarren euskera berian emongo ditzudaz.

Emengo gertaera batzuek Fernando Plaentxiatarra ta Zirikidak liburuan argitaratu ziran. Beste batzuek laster azalduko dan Eztenkadak liburutik ataratakuak dira, baña geixenak iñoiz eztira argitaratu. Era onetara batzia nai izan ditzudaz, zelebrequeri bakotxak bere jabia dabelako, ta jabe bakotxak bere joera, emen garbi ikusiko dogun letz. Eibartar jator bat iltzen dan bakotxian, badirudi gure errixan zati bat daroiala beste mundura. Ta, ondo merezitxa, emen gelditxu deixazela zelebrienen izenak, euren izakeratik sortutako gertakizunekin.

Geixagoko presentaziño barik, ara emen erri baten gatza unetaraño aglrixan.

J. S. M.

-I- KAITANO KAREAGA-N URTERA ZELEBRIAK

Kaitano Kareaga, bere 86 urte gaz, oindio osasuntsu bizi da Eibar-en bertan. Txikixa da baña buru argiduna. Txikixa izana gaitxik edo, beti dan baño gaztiagua agertu izan da. Ori dala-ta, bein batian, esan ei zetsan plaentxiatar batek:

–San Antonion ume txikixa dirudizu.

Zer ba? –erantzun zetsan Kaitanok.

–Ba, aretxen moduan, beti igual-igual zara-ta. Sekula ez zara zartzen.

Beste baten be, urtietan aurrera zoiala, aspaldixan alkar ikusi bako lagun zar batekin tope ein ebanian. Denpora bateko aiskide arek esan ei zetsan:

–Oinezkero i be urtiak aurrera oia, Kaitano.

–Baí, gizona, irurogetamar ointxe bete.

–Ene! Ez ditzuk emoten.

–Ez ba, ezin emon; emon al ba-naitxukek ez naitxukek eukiko.

...? Beintzat, emoten ez baditzuk be gogor agertzen aiz.

–Jakiña, geruago ta gogorrago.

–Ee!

–Baí, gogorran-gogorrez makurtzeko be gauza ez naixela.

* * *

Biargiña gutxi lazkoa izan da Kaitano ta gañera grabauan ezautu danik puntarenguen. Alfonso XIII-garren erregiarentzat pistola bat grabau ei eban, eta aiñ arritxuta gelditxu ei zan erregia eze, Gernikara etorri zan batian, deitxu ei zetsan biarrian ikusi naixan. An zan gure Kaitano bere erremintxegaz trankil-asko erregia ta bere inguruko

Jaunen aurrekaldian bere biarrari jardunaz. Ta jaun batek esan ei zetsan:

–Ainbeste lagunen aurrekaldian biarra eitxen ez al zara nerbioso ipintzen?

–Ez. Dakidalako zuetariko Iñork ez dakixala nik aña.

* * *

Bein, Mercedes bere alabiak esan ei zetsan:

–Aitxa, Koliseora Juan biar ziñake, Santa Teresitan bizitza emoten dabe zinian. Negar eraitzekua da, baña asko gustauko jatzu.

–Negar eraitzekua ta gustau? Nola leiken ori? Ik esateko ezton asko.

Juan zan ba domeka arratsaldian Koliseora bere alabian eskariz eta ixa zine guztia andraz josita billau ei eban. Gizonezko banakaren batzuk or-emen, ta ume mordua.

Butaka numeraua eukan da andra artian tokau ei jakon. A ei zan zoriona bere buruantzat: “Bedinkatua zera zu andra guztien artian”, bururatzen ei jakon.

Pelikula erdixa baño len, bere alboko andra bat, pañuelua atarata negar-zotinka asi ei zan Santa Teresitan martirixuari begira. Kaitanok, ori ikusixaz, gozatu naixan, preguntau ei zetsan:

–Senidia dozu ala?

* * *

Marixa ei zan zorren lorratzak aldia guztietan lagatzen zitxuana. Urrinetik ziar baño ezpazan be, Kaitanon senitxarteko eitxen ei zan, ta sarri juaten ei jakon illetia joaz diru eske, al ebanian berriz itzul-tzekotan. Bakarrik, aren al izatiak aiñ urrixak ei ziran eze, emondako diruak paseko usuana eitxen ei eban: Juan da geixago etorri ez.

Or bein, beste askotan moduan, nun agertu jakon biarrian euan lekura bertara. Ikusi orduko, Kaitanok esan ei eban berekautan: “Emen dok eskalarixa: Padre Juan eztanian, gure Marixa; beti itxuraz larrixa. Onok jaukak arpegixa. Izango dok oiñ be diru egarrixa ta Kaitanori boltsilluan zulo barrixa: au bai gauza agirixa.”

–Ai! Kaitano, ointxe estu nago ba...

–Baitxa neu be.

–...ez dakitx zer ikusi biar dodan.

Kaitanok bere buruari: "Nik ba-jakiñat ba zer ikusi biar dodan".

Baña gure Kaitano beti bezela errukitsua:

–Zer pasatzen jatzu, ba?

–Ogei duro falta ditzut. Derrigor biar nitxuke.

–Ara ba. Autsiz amar bai ta olan bixok amarna duro galduko ditzuguz.

* * *

Lagunekin broma ederrak pasatzen be ezta izan mutil txarra.

Egun batian, ondo bazkaldu ondorian, Kasino Artistan, kafiakin Martell kopa bat eskatu eban. Lagunak arritxuta gelditxu ziran, baña Kaitanok, serixo-serixo jarraitxu ei eban jai arratsalde aretan, zein da zeremonia baten balego letxe, lantzian-bein poliki tragotxu bat einañ Martell kopiari.

Arratsalde erdirutz asi zan oika ta aika, tripara eskuak eruanda, miñez balego moduan. Alboko batek esan zetsan: –Baña, zer dok Kaitano, zer pasatzen jak?

–Nik jaukat txixalarrixa, mutillak!!

–Lelua aiz ala! Ez ago leku txarrian. Juari komunera ta baketu ari.

–Ez olakorik, mutillak. Ez orraitxiok. Bein bost duro pagau ezke-ro Martell kopia, eutsi al dan guztia! Eutsi!!

* * *

Eibarkurutzeko Kasino Artista izan da beti Kareaga ta bere lagun-en leku artua, beste eibartar jator askoren letz. Da, Kaitano, Arra-gueta aldeko kantoi ertzeko bentanan ikusi izan dogu amaika aldiz.

Diñuenez, azpikaldian, Patxi-txikiñeko tabernan batzen diran Peña Gallastegi-kuak, balara batian ixa egunero eitxen ei zitxuen afari-merianda ederraskuak. Oitxura zarra da, bai Eibar-en eta bai inguruko errixetan, jan-edanak eitxeko aitxikiz soziedadiak organi-zatzia. Izentzat pelotarixa, ziklistia edo toriadoria, "Peña" aurrian ipiñi-txa bardin-bardin da, kustiñua da lagunartian umorez pasatzia. Oiñ, Kaitano Kareaga, Galdo-txiki, Petit, Felix Legarre ta olako ale-takuak ez dauke lagun biarrik umore onian pasatzeko; euren personalida-diak naikua indar dauka.

Ba, Peña Gallastegi-kuak afari-merianda ederrak eitzen zitxuen bolara aretantxe, Kaitanori allegatzen jakon bera egoten zan bentanara kazuelen lurrunaren usain gozua. Ta, egun batian, ogi utsakin juaen ei zan Kasinora, ta bere txokuan nasai jarritxa, lantzian bein puxketa-txo bat kendu ta bentanan euki ondorian, jaten ei eban. Lagunak arrixuta begiratzen ei zetsen, zoratu ete zan, ta bestia, bentanan eukitxako ogi puxketak mausta-mausta uts-utsik jaten.

Batek galdetu, ei zetsan:

Zer darabik, Kaitano, ogixa alzetuta jaten?

–Patxi-txikiñetik okelarik eztok etortzen, baña pena emoten jeta-
tak usain onurakor onek galdu biarra. Au lurrun-au aprobetxagarria dok.

* * *

Kasino Artistako kantoiko bentanan esan ei zetsen laguneri:

–An joiak aintxiñako nobixia. Entzutiaz bat, abixau ziran lagun guztio-
k Kaitanon aintxiñako nobixia nor izan zan jakitzeko. Ta an ikusi eben Emilia, bere andria.

* * *

Aintxiña batian, ederra zirixa sakatu bihar izan zetsan Mari-Ospitxal zarrari. Eibar guztiak dakixan letz, Mari-Ospitxaleneko dinastixia izan dira erriko pregoilarixak. Kareagak asmatu eban kantzontzilluak galdu zitxuala ta Mari-Ospitxalenera juaen da esan ei zetsan pregoia joteko errixan, ia iñork billau zitxuan, euren labandiriari bidian galdu jakozela-ta.

–Bueno, ta zelan igarri euriak dirala jakitzeko? Ezaugarri-rik bai al jauken? –Esan ei zetsan Mari-Ospitxalek.

–Bai gizona. Eukiko etxuen-ba. Neure inisialak jarioezen, Kaitano Kareaga: K.K.

Geixagoko barik, asi ei zan Mari-Ospitxal pregonerua Eibar guztian kalez-kale, tanborra joaz, olan diar eitzen:

–Jaun-andriak: Atzo, erri onetan, kaltzontzilluak galdu dira; ezaugarritzat: K.K. daroie!

* * *

Beste bein.

–Gauza bat nai neuke nik jakiñ.

–Zer?

–Nun il biar naixen.

–Zertako?

–Araxe ez juateko.

* * *

Kaitanok bere ago-miñian erabiltzen ditxuan esaera bi dira:

“Tontuan seniderik urrenengua: arrua.”

“Bada gauza bat gutxiago daukanak geixago daukanari emoten detsana: lotsia.”

* * *

Onek agiri bat besterik ez tira Kaitanon urtera zelebriena. Bere denporan batu izan balira, liburu eder bat betetzeko aña be-euan. Olako urterak berban-berban izan ditxu, ta bera ezta gogoratzen, ze bera izan da balixorik gutxien emon detsena berez urtetzen zetselako.

Geria-ko sakristauan lojikiak ez eukan errazoi makala (gerratian, Eibar-tik aldetara, Mallabiko Geria auzuan egon ei zan), bere urteregaitxiak esan ei zetsan: “Kaitano, kudranuan eskribitzeko moduko gauzak esaten ditxuzu zuk.”

Ta ara emen nun ikusten doguzen EGAN kudranuan.

J. SAN MARTIN
1963, 1-3, 11-15.

Olerkiak. ARESTI'RI

Zo ri,
ez argi,
ez garbi.
Mundua geuri,
edo geu munduari.
Nor nori?
Garaia izlari.
Mundua
ezta "gure biran"
baizik gu
bere jiran.
Utsean.
Len utsean
orain zerbaitean
ta geroan
berriz utsean?
Korapilloa emen,
korapilloa an.
Birtartean,
gogo kezka
barne satorrak jan.
Berriz, geroan...
Autsean?
Bakarrik autsean?
Ezer-ezean
uts betikoan?
Aski obeago da
betiko sutan,
sentipen barnekorrean,
gogoaren naian.
Baña, ezer-eza agian.
Ce sar-en gero betiko
izan naia

fede asmatzalleen gaia;
 leengo usteen doaia.
 Gaur, ezta ortan
 Errazoa.
 Zori,
 Kezkari,
 irriari,
 negarrari.
 Litzakeanari
 ta ukatzen danari,
 garaia izlari.
 Darrai,
 naiz alde batetik
 edo naiz bestetik,
 korront beltzetik
 ez da salbaziorik.
 Ba ote da gerorik?
 Oraindik,
 beldurrez gaude
 kukurturik.
 Izadi oni erantzirik
 bada galtzekorik:
 maitasuna ta kanta,
 dira gauz garbirik.
 Garai mintza.
 Garaian, garaizkoa
 jardun berdiñean,
 Jerusalengoaren
 ¿??
 Zentzunaren ontzia doa
 aurrera nekean,
 idea zaarrak dirala
 munduaren proan.
 Zertako azkarrago joan?
 Zer arkitu genezake
 sufrimentuen ugaritean?
 Zori,
 ez argi,
 ez garbi.
 Al baña,
 garaia izlari

gizonari.
Ta, ez jostari.
Galdezkari
ebillen jendeari,
lauzkari,
etsipenez ziraneri
geznari
naiz zalantzari
utsari,
zenbait pentsalari
gidari,
oratuz funtsari,
ameslari,
zorrez egi-bideari
ari
ta lau olerkari
agiri:
Kierkegaard aurrelari
argiari,
Ibsen antzelari
berari,
Nietzsche jarrailar
aleri,
Unamuno kantari
danori.
Laukoitz teolojilari
gori,
lotuaz giroari,
bidari,
igesik gezurrari,
billari.
Etziran pekatari.
Zori,
ez argi,
ez garbi.
Begira
muñari
ta beti,
garaia izlari.

OTSALAR
1963, 4-6, 100-101.

EIBARTAR ZELEBRIAK -II- GALDO-TXIKIN ZIRIKADAK

Kaitano Kareagan umoria filosofikua izan da beti, metafora oso fiñak enpleau izan ditxu. Azkenengo beragandik jaso neban onen modukak: "Auxe dok, auxe, urtiak artzia nai ta eukitzerik nai ez". Baña Galdo-txikin umoria, bein berak, Kaitanok, ederki esan zestan moduan: "Galdo-txiki, okerkerixetarako umoria eukana genduan". Olaxen da bakotxaren idiosinkrazia. Ta, nai edo ez nai, gizon, bakotxa bere tajuz errespetau biar dogu.

Bere anaia zan Erromaldo Galdos Jesuitxa. A be umoretsua ei zan, baña ez anaia añakua. Naikua ezauna da Azkue Euskaltzaindiko zuzendariakin Erroman gertatua. Eztakit zelako funziñuak zirala-ta, kanonigutik berakorik ez ei eben lagatzen Kapilla Sixtina-ra sartzen, ta Azkue zana, bein juango Erromara ta, pena eban a ikusi barik etortzia. Baña, atan orretan, gutxien uste eban lekuan, ara nun tope ein eban gure Aita Galdos-ekin, ta zer pasatzen jakon kontau. Galdos-ek jakiñaren gañian ipiñi zanian, azkar jaso ei zitxitan anakak. Sartu ei zan ate batetik eta andik una batera, an azaldu ei zan eskuetan kanoniguaren soñekuak zitxuala; ta, eskerrak berari, Azkue jaunak kanonigu jantzita ikusi ei eban Kapilla Sixtina. Or nundik izan eban Azkuek kanonigu izateko bidia. Ori, Aita Galdos zalako; ha, Galdo-txiki bere anaia izan balitz, seguru gara gutxienez Aita Santuan erropak ingurauko zetsazela.

* * *

Bein, Galdo-txiki, bere lagunekin jua ei zan Donostiara agostuko Andra-Mari jaixak pasatzeko asmuetan, bidian kantauaz: "Festarik bear bada, bego Donostia...". Ze, donostiarren antzera, anakak arin ei zitxuan jai zarraparria zan aldera.

Iñork ez ei eukan agiñeko-miñik eta kantsaziñorik, ta errazoi orri oratuta ibilli ziran orduekin konturatzeke. Orraitxiok, berandu batian,

naizta gazte sasoiari izan, errendidu ei ziran. Ta, orduan kontuak oia billau eziñik. jo batera ta jo bestera, lo-kamusa bat eitxeko besterik ezpazan be, kostata billau ei eben ostatua. Baña, kondeziño batian: oge banatan biñaka eitxekotan. Ta, gañera, batzuek koltxoia lurrian botata, ta beste batzuek muelle utsian.

Suertera jaurti ei eben ta Galdo-txikiri Anbroxio Balenziagakin tokau ei jakon oeko muelle gañian, beste bi lurrian koltxoi gañian ziralarik. Ta, gañerako lagunok oe-biko kuartu baten sartu ei ziran, aldan moduan.

Galdo-txikik, beti bezela, ein biar eban fetxurixaren bat, ta bestieri ezer esateka baña ondo ikusteko moduan, asi ei zan, oeratu aurretik, tapak jaso ta periodiku papelak kurioso-kurioso izara gaiñian ipintzen. Anbroxiok, ori ikusirik, esan ei zetsan:

–Baña, mutil; zoratuta ago ala? Zertan diarduk papelok zabal-zabal ipiñiz?

–Ara Anbroxio, ta beste bixori be bardiña esatera najoiak, baña gure artian gelditxu deilla sekretu au. Momentu onetara eldu garanez, nere desgrazia bat konfesau biar detsuet. Sekula-santan ez esan iñori. Lagun onak zariez, da uste juat ixillik gordetzen jakingo dozuela...

–Bueno, bueno. Zer pasatzen jak. Ainbeste erretolikakin zer esan nai dok—esan ei zetsan Balenziagak.

–Lagairak ixillik, Anbroxio. Au eztok afariketako ipuña ta...

–Baña, zer pasatzen jak.

–Ara. Nik... Ixa gabero... oian... zera eitxen juat.

–Ei —bestiak batera-batera— Zer esan dok? Oian kaka eitxen duala?

–Bai mutillak. Baña mesedez ezaixozue iñori esan.

Anbroxiok:

–Ni ez najoiak ire onduan lorik eitxera. Ire antsak artzia baño naixago juat Bulebarrian paslau. Beste bixak pe bardin.

–Guk pe bai. Ire kakarantsa aguantatzia baño obe dok aixe freskua artu.

Egoera orretan, bakar-bakarrik gelditxu zan Galdo-txiki kuartuan. Ta, orduan, koltxoia ipiñi eban biar zan lekuan ta oge bigunian sartu zan.

Alperrik orduak aurrera jua, egun-sentia luzia izan, eta bestio, aldi baten, Galdo-txikiren kakarantsaren inbidixia be izan ei eben. Lurrian lo ein ebenak bizkar-azurreko miñez, bestaldeko kuartuan Galdo-txikin lo-zurrutzak entzunaz, ta kalera jua ziranak barriz Bon Pastorreko erlojuari bultza eiñ nairik.

Goizian jua ziran lagun guztiok Galdo-txikin kuartura, bere lepotik barre eitxeko asmuhan. Baña an ez zan ezer pasau. Galdo-txiki billau eben lotan nasai, bera bakar-bakarrik oe zabaljan, bestieri adarra-joaz.

* * *

Orraitxik, berari be ez zetsezen gauza guztiak ondo urtetzen.

Kuadrilla berakin Elgoibarko ferixara jua zan batjan, bururatu jakon basarritar batzueri adarra-jotia. Ta, ona ipiñi zetsen plana bere lagueri:

–Zuetariko batekin burruka itxurak eingo jixuat, ta gero nere bende ankapan artu ondoren jeupada batzuk eingo jixuat basarritar saillari begira: Badago bat, etorri deilla, deituaz. Nere moduko gizon txiki bat ain indartsu ta adoretu ikustiakin danak arritxuko ditxuk. Guk eingo jixuagu barre-algarak. Baña iñor urtetzen bada indarrak neurtzera, zuek nere alde urtetzeko kondeziñuan. Ba-deitxozue?

Baiezkuhan gelditxu ziran.

Eiñ zitxuen ba burruka itxurak da erabagixa euan bezela, Galdo-txikik urten eban irabazle. Lurreratu ebanjan, gañjan ankia ipiñitxa; inguruko basarritarrerri:

–Badago bat, etorri deilla neregana! Badago bat, emen neurtuko gara!

Ain txatar, kaka-narro ziztriña ikusitxa, ezan-ez iñor ikaratu.

Bai azaldu be neurtu ezindakua. Pagu arbolia baño gizon mardulago zan Artazo pelotarixak artu ei eban esku artjan ta pelotia balitz letxe erabilli ei eban, Galdo-txiki gizajua, bere lagun guztiak ollotuta ospa eiñ ondoren.

"Badago bat!" deixai erantzutzeko, iñor ba-euan edo ez-paeuan, belarronduak ondo berotuta urten ei zan saltsea aretatikan gure Galdo-txiki.

Orregaitxi, bein, Eibarko Astelena Frontoian Artazon pelota partidua ikusi ondoren, bertako gora-berak kontatzen ziarduela, euren arteko batek esan ei eban:

–Artazok gogor joten jok.

Ta, Galdo-txikin erantzuna:

–Etxaukat iñork esan biarrik. Artazok gogor joten dabena ondo probauta jaukat.

A!, baña, ordien epia elduko zan dudarik ez ei euken lagunok. Bi illabete ez ei ziran pasau. Orduan izaten ziran zaldizko kotxe dotore bat ei euan Agiñazpineko taberna aurrekaldian lagata, bere uezaba bazkaltzen euan artian. Aixen zan Galdo-txikin momentua. Artu kotxe doteriori ta eruan eban Untzaga plazara. Ta an, bere laguneri:

–Tio etorri jatak Ameriketatik ziero aberastuta, ta bere kotxia laga jestak, artsaldia pasatzera Debatik ziar Ondarrua aldera nai bagendu jua. Zer deitxozue mutillak? Ez bat eta ez bi, esan orduko an ziran guztiak anka ta buru zalpardi barruan.

Guztiak arro jua ziran Bidebarrixetan bera, ezauneri agurka. Urkuzuko plazan, Agiñazpiñeko atai aurrekaldian gelditxu ei eban kotxia, laguneri esana:

–Itxoin pixkatian. Errekau bat emon biar jetsat Erromana etxe-koandriari.

Sartu zan tabernan errekaura zoian letz. Kotxian uezabagana jua zan ta aitzen emon zetsan:

–Kargu eixozu zeure kotxiari, Bost kankallu sartu dira barruan ta asko deskuidatzen bazara, eruango detsue auskalo nora. Orrek mutillok ondo ezautzen ditzut nik, eztira erriko zuzenenak ta bai lenago be ainbeste olako diabrukeri eindakuak dira orrek. Onen-onena zendu, ezertariko esplikaziño barik egur batekiñ daneri bizkarra berotu.

–Ori laga neure kontu–izan zan kotxeruan erantzuna.

Berakin euan beste gizon bat lagun artuta, urten eban kalera. Ipiñi ziran kotxian ate banatan. Ta esan ei zetsen:

–la mutillak! Urten banan-bana! Azurretako miña zer dan jakin deizuen. Galdo-txikik, Barakaldo-kaleko kantoitxik begira, a ei zan funziñua ikusi ebana.

* * *

Galdo-txiki ziri-sartze kontuan atzian gelditzekua ez-pazan be, beti izaten ei zitxuan bere inguruan su-emolliak, axaxa emoteko gertu, beste iñori bururutzen ez jakon demoniokerixaren bat eiñ zeixan.

Gañera, txikixa zalako bere buruari gutxi-etsita bizi bazan be, ori zala-ta tentaka ibiltzen ziran lagunak pe. Naiz da iñoiz berak esan, gizonak ez dirala metruakin neurtzen, bakotxaren abillidadiakin baño.

Bein, ba eizoiazen trenian Deba-rutz. Maltzako estaziñuan gelditxuta euazela, andenian zutiñik euan gizon morrosko bategaitxik, lagunak tentau ei eben, esanaz: “Ori bai ori gizona ta ez l, Txiki ziztriñori”.

Galdo-txikik barriz laster ipiñi ei zetsen trabesa: baietz ari matralleko bat emon, ta beste lagunok ezetz.

Eztakigu andenian euan gizon erraldoiak zerikusi eukan euren auziak baña matralla berotzeko arrisguan ebillen. An ei euan andenian trankil asko trenerutz begira, ta trena martxan asi zanian, Galdotxikik, trenetik, luzetu ei zetsan errebeskada bat, ta an gelditxu ei zan karga-jasotzalle itxurako gizon morroskua ikubilla altzau-ta zentellak jaurtzen, ta ez gañera Sanjuan eguneko arpegixakin. Baña, gure Galdo-txikik trabesa irabazi.

* * *

Beste-bein, xemeikorik ez da jai itxuran pasauko bazan, nunbait bazkariren bat eiñ biar. Bera ta beste lagun bi, Juan ziran Elgoibar-era oñaz. Sartu ziran Txankianeko tabernan; beste bixak Galdo-txikin aginduetara obeiduz.

Galdosen zirikada lorratzak ezaunak ziran Eibar da inguruetan, baña gizona ei da bi aldiz arri berian estropozuta jausten dana, ta debillidade ori aprobeztatzen ondo ekixan Galdo-txikik. Esan zetsan Txankianeko etxeko-andriari, berakin ekarren aiskidietariko bata indiano etorri barrixa zala, ziara otxinduta, ta bazkaitxara konbidau zitxuala bera ta beste laguna.

Modu orretan ase ziran platorik onenak janaz, ta... gero, gero-kuak. Filosofia nasai orrekin bizi zan Galdos. Ta, lagunak pe ez estu, bere anparura. Eitxen eban gañera: "Ondo bazkaldutakua iñork ez jeskuk kenduko".

Kafia ta kopak artu ta purua erreaz, pagatzeko ordua etorri zanian, Galdo-txikik esan zetsan "indianuari":

–Juari antxitxiketan kalera, zoruana eiñaz.

Urten eban, egaztadan, diabruak daroian animia baño azkarra-go. Baña baitxa uezaba be atzetik. Ta, ondoren, Galdo-txiki ta beste laguna.

Tabernarixak ixa arrapauta zeukanian, asi zan bide baztarreko arbola bati aginka. Ori ikusitxa, zeñek pentsau benetan zoratuta ez eguala?

Uezaba ikaratuta gelditxu zan. Galdo-txiki etorren atzetik delka:

–Kontuz! Kontuz!! Zoro aizian atakiak eldu detsa ta! Ameriketara juan aurretik pe izaten zitxuan olako bolarak, ta onian artzia obe da txakur-amorratuaren moduan ipiñiko ezpada. Jangoikuan izenian, baketan laga-iñozu bere onera etorri arte. Gaiztoaldixa juandakuan neuk eskatuko detsat dirua-ta.

Erukixu zan tabernarixa. Danen artian, ipiñi eben lurrian auzpaz etxinda konortik barik gelditxu zan eran ipiñi zanian, ta tabernarixa bera aurrengo pañuelua atarata aizia eitxen seneratu arte.

Alakoren baten jaiki zan arnas-estuka bezela. Ta, Galdo-txikik esan zetsan tabernarixari: "Seneratu arren asko kostatzen jako ton-toaldixa juatia, gizajuari. Ta obe dogu etxera eruatia. Urrenguan etorriko gara kontua eitxera". Esan-da juan ziran. Baña... gaur arte.

* * *

Antzerakua izan zan Maltzako tabernan eiñ ebana be. Lau edo bost lagunek, meriandau ta gero, kontuan jausi ziran iñork ez eukala dirurik, ta Galdo-txikik:

–Laster arreglauko juat nik ori.

Alde ta juan zan urren euan potzu batera ta etorri zan bertan arrapautako sapugurixekin (txalburu). Orretara, Galdosek bai jakin be, taberna aretan ardaia urakin bedinkatzen ebana. Bota zitxuan sapugurixok ardan basora ta deltxu zetsan etxeoandriari, esanaz:

–Zer da au! Ondo ezpadago ardauari ura eitxia, gutxiago potzuko ur zikiñetik! Sapuguri ta guzti gañera.

Etxekoandriak:

–Ène, enel Ixildu zakidaz mesedez iñork entzun ezteixan. Deskuidoren bat izango zan da parkatu.

–Parkatu? Sapugurixak tragan bagenduzen, eurak ezeskuen tripetako azkurarik parkatuko.

–Tira ha, tira ba. Gaurkuagaitxi ez detsuet ezer kobrauko, ta urrenguan be etorri.

* * *

Galdo-txiki, beti, asmakizun okerren maixua. Ba ei zan Eibarren olako gizon serixuan-serixuz “grabia” zan bat. Baña, Galdo-txiki-rentzat ez zan serixurik. Jaun ori aberatsa ei zan eta egunero pasiatzen ei eban makilla dotore bat eskuan ebalá. Baña, orduango Eibarren, Plaentxian bezela, ez ei zan iñungo aman semerik gaitzizenetik libratzen, ta nola jentia uskerixa bategaitxi uxatzen zebenetarikua zan, “Auspua” deitzen ei zetsen. Ta, berari ez ei zetsan ezerk su geixago emoten “Auspua” deitziak baño.

Baña ainbat txarrago beretzat. Orduan, gaitzizena ontzat artzen ez-eben guztieri adarjotze geixago eitxen zetsen. Izan be, adarjotzalliak, adarra jotzekuak biar ditxu, eta onek minberatzekuak izaten dira, ta ez jamonik eitxen ez dabilenak. Berriz, esan dogun bezela, Galdo-txiki-rentzat zelan ez zan dotorerik, aberatsik eta serixurik, ari “Auspua”-ri berari putz eitxia bururatu jakon.

Egun baten, Elgoibarko auspu-konpontzalle bati bialdu ei zetsan erreka, juteko Eibarren uleixa lekutara, auspu bat euala konpontzeko ta.

Juan zan auspo-konpontzallia “Auspua”-nera. Auspua konpontzera etorrela esan ebanian, makillian aurrian artuta atara eban kalera, kulparik ez eukan auspo-konpontzalle gizajua.

Gutxi-gora-bera, olakua zan Galdo-txikin umoria ta olakuak bere fetxurixak.

JUAN SAN MARTIN
1963, 4-6, 109-115.

EIBARTAR ZELEBRIAK -III- PETITARREN EZTENKADAK

Petitarren zelebrequiak pe eztira txikixak. Petiten familixan, semiak pe aitaren ezpalekuak urten dabe, ala be nausiña. Emen jasotzen ditxugun gertaera apurrak muestratxo batzuk besterik eztira. Penagarria da denporaz jaso biar eza. Asko ta asko galdutzat emon geinkez, baña ara emen jaso ditudanak:

1920-garren urte inguruan, Habanako frontoian ziran Nabarrete, Untzuetta ta Ramon Gómez "Petit" (aita) eibartar pelotariak.

Anakabe ondarrutarra be eurekin euan.

Anakabe, ondoezik txamar ebillelako, jokatzia gutxituta eukan eta ipintzen zetsezen partiduak galdu baño ez zitxuan egiten. Orraitxiok eldu jakon bere txandia, ta Petit lagun ebala, zorionian irabazi eben partidua. Ta, intendentiak esan zetsan:

–Muy bien, Anakabe, hoy has jugado como quien eres, te felicito. Has estado inspirado.

Gero; dutxia artzen zeuzazela, ixillian, Anakabek Petiti:

–Aitxi, Erramon..., zer dok "mixpillao"?

Petit okertxua izanez, garbi ikusi eban Anakabe gizajuak baekarela aldrebeskeriren bat. Ta, gaiztuak alakuak:

–"Mixpillao" esan dok? Batedon-batek bota deuk ala?

–Bota desten edo eztesten, iri ezteuk ardura. Esaidak zer dan "mixpillao".

–Ba..., benetan, Anakabe..., Neri "mixpillao" esango balestakiek, ara... Danbal, nik, betondokua.

–Ondo dagok, Petit. Esan duana naikua juat.

Bixamonian, goizeko amaikkak aldian, zuria edatera juateko usarixua euken tokian, an ziran pelotari, korredore ta abar, lagun mordo

bat. Euren artian Anakabe, arpegia kolore barik eta amorruez dardaraka. Petit bere aldamenian, zer ikusi biar ete eban, ezer esan barik baña bai Anakabe zaintzen, astakeriren bat eiñ ezeixan. Andik pixkatera, or sartzen da intendentia, ta juan zan beragana, Anakabe.

Eldu paparretik eta begietatik sua zerixola, esan ei zetsan:

–Aitxizu ia..., “Mixpillao” será usté... Intendencia y tu tia. Kakatsu! ... Kakatsu!

Petit albuán izan ezpazan, danba! be, or orrenbaten.

* * *

Petiten urterak, obeto esan da Petitarrenak, beti izan dira zelebriak. Aitxa-semiak, beti izan dira gizon argiak, batez be aita, oserbaziñoko sentidua bikañetakua eukana. Cubatik ziar ibilli ezker, ezta arritzekua, kaña baten lekuan biñaka eukitzia. Kaña leku aukerakua ei da ta.

Bein, eztakigu zer zala-ta, luzaro geixorik egon biarra izan eban. Ta berak diñuanez, etxe aurrera azaltzen ziran txoriak pe, bakoitza bere izenez ezautzeraño eldu ei zan. Orrez gañera, oserbatzen ei eban, zortzi eztul klase eukazela.

Orregaitik, errekonozimentura juan zan batian, medikuak agindu zetsan:

–Eztula eñeik.

–Zer tonutan?

* * *

Beste bein, eibartar guztiak gogoratuko dira, Eibarrera zelan agertu zan iñoliz ezautu eztan moduko automobil dotore bat. Uste dot, erri guztia aua zabalik laga ebalá. Kalez-kale buelta batzuk emon ondoren, Untzagako plazan gelditu zan.

Ain justu be, an euan Petit euzkia artzen. Ta berari dei egin zetsan automobilekuak, zerbait preguntau naian. Petitek berbia emon zetsen, da unatxo baten esplikaziño batzuek emon ondoren, be alderutz bialdu zituan. Ta Calbeton kaletik ezkutau zan “aiga” dotoria.

An inguruan muturra luzetuta ebizenan autubatzalle batzuek urreratu jakozen Petiti, galdetuaz:

–Zer esan deuk?

–Biar billa dabizela ta ia nun falta diran pioiak.

Ez ori boliori lñork sinistu ebalako, baña aretariko batek, autua jakitziak baño eztenkadaren bat entzun nairik, zirrikauaz:

–Da, zar esan detsek?

–Ba, Maltzako Barrabillazeneko kanterara bialdu jitxuat, antxe falta dirala biargiñak eta.

Petit bazan be, semia ezta gutxiago. Beinke: zer ikusi, a ikasi.

Neguko domeka otz baten, Kalamua inguruan kazañ ibilli ta, otzak gogortu biarran jo eben, bera ta bere lagun batek, San Romango txabolara. Sartu ta lelengo gauzia sua, ixotu, inguruan billau-tako abar ta egurrekin.

San Romanguak, euren txabolatik keia urtetzen ebala konturatu ziranian, erretzen ete euan estututa aintxitxiketari juañ ziran. Basarritarra, estu ta larri allegau zan, arnasia bueltau eziñik. Ikusi ebanian barruan batedon-batzuk euazela, pixkat trankildu zan. Baña, asarez esan zetsen.

–Zer mutillak! Zelan bururatu jatxue txabola barman sua eitxia?

–Ez, zera, "mantekaua" eiñgo genduan, dagon otzonekiñ.

* * *

Eskupetia bizkarrian, mendira juañ zan goizian-goizago. Jo batera ta jo bestera, erreka-zuluak ziar, sasikartietatik mendi-tontorretaraño ibilli ondoren ez eban alerik bota.

"Bueno, ez-biarrak partzeko, bazkari on bat eiñ neixan", esan ei eban berekautan, ta Egotxia aldetik jo ei eban Elgetako Martintxorena. Bere tratuak partu zitxuanian, patxaran, pasiauaz, mendiz etxerutz. Azurtza gañetik ziar, Altamiratik bera etorrela topau dau ollo bat bidian. "Oñezkerok, lumaduna, lumadun", esan eta tiro bategaz seko laga eban. Usterik ona egongo zala Mari-Katilluneko kazuelan.

Bixamonian, an da basarritar bat tallarrera bere billa.

–I, esan jestek, i intzala atzo illuntzian gure ollo bat il da eruan ebana.

–A! Zuen a al zan ba?

–Ball...

–Bueno, bueno: ez iraotu. Emongo detsut eta.

–Zergaitik il eban?

–Ez, zera eiñgo neban..., al nebana. Illunabarrian bidera urten estan *da en defensa propia*, tirua nik. Gero, gizajuak, pena emoes-tan, ta zelan ez nekian seniderik eukanik, bere on biarrez, neuk jabetasuna arturik ekarri neban.

* * *

Itziar aldian bazkariak merke eitzen zitxuen zaratiak, eibartar bat baño geixago eruan zitxuan alde artara kazara. Bein, euren arteko zan Petit gaztia be.

Bazkari merkiak artzeko okasiñuak zelan ez diran noiz nai izaten, aprobeztatze alde eiñ eban kriston "fafua", kafe konpleto ta guzti. Bazkalonduan, guztiak alai ebizen, unamorixuan, ango kantau biarrak ez ei eukan akaburik:

*Es det esango, bai det esango;
ez naiz ixillik egongo:
Nere erriko neska gaztiak
es dira monja sartuko.*

Jotakeia, ezerkin konturatzeke. Korua eiñaz kantau arren, ez ziran korurakuak:

*Aiek, oiek; aiek, oiek,
Arraguetako neskoiek...*

Baña, baña; urriñeko intxeurrak beti zarata ona ta ugaria. Eibar-tarrak ostatu aretarako euken joerari probetxua atarutzen asita eua-zen.

Pagatzeko orduan amaitu ziran aren kantuok. Orduan, Bilboko Carlton-a zirudixan. An ustu biar izan zitxuen boltsillo baztarrok. Inork ez eban izan adorerik kantuan jarraitzeko. Ala be, Petiten boza entzun zan:

*...txin-txin, txin-txin!
diruaren otsa...
Ederto uste joku
–Maitia!
gaur, soñeko boltsa.*

Apal altzau ziran jarlekuetatik.

Aldetzerakuan, etxeko-andriak esan ei zetsan Petiti:

–Laureano, gorantziak aitari.

–Bai, emongo detsadaz. Len be orretxek izaten ziran merkenak eta.

JUAN SAN MARTIN
1964, 1-6, 85-88.

EIBARTAR ZELEBRIAK -IV- MARIÑO-N PASADISUAK

Mariño, bere denporan pelotari ona izandakua, gerora peskari zalla biurtu zan. Da, peskari moduan, olako pasadizuak izan ei zitxuan:

Maltza inguruan peskan euan lekutik abade bat pasau ei zan, Mariño-n ezaguna. Malz ta bera elizatarra ez izan. Galdetu ei zetsan:

–Da, Mariño, zenbat? –esan ei zetsan abadiak, jakin nairik zenbat arraiñ arrapau zitxuan.

–Jangoikuak aña –Mariño-n erantzuna.

–Bat orduan?

–Ez! Batpeez!

* * *

Beste bein, inguru aretxetan peskan ebillela, Guardiazebil ezaun bat urreratu ei jakon.

–Mariño, badaukak peskarako lizentzia?

–Peskarako lizentzia?

–Bai. Peskan eitxeko lizentzia biok.

–Lizentzia ez. Peskak biar dana dok, pazientzia.

* * *

Beste bein be, erreka baztarrian peskan ebillela. Arrak, txitxarak, eta gañerako koko klase guztiak probau ondoren, ogixakin asi ei zan, baña iñolaz be ez ei eben pikatzen. Denporia aurrera ta ez loiña ta ez bargu, ez ei eban ezer arrapau. Orduan, asi ei zan inguruan euli arrapatzen. Baña eulixekin be alperrik. Arraiñak ez euken pikatzeko asmurik egun orretan.

Amorratu zan Mariño arraiñ egosgogorak ezerkin tentau eziñik, ta eskua boltsillora sartu ta errial bat atara ei eban. Ta, diño erre kara jaurtiaz:

–Txixxararik ez dozue nai, arrik pe ez, ezta ogirik pe, bai, ta asperu nok eta, aiba erriala ta erosi zeuek nai dozuena.

* * *

Domeka gabe batian, ayuntamiento ostian ixillikuetan txixa arra-bat bat eitxen euala. Atzetikara agertu jakon Alfiler aguazilla, ta:

–Mariño, peseta biko multia emen txixa eitxiarren.

Mariñok, batera-batera, txixa-eiñari lagaaz:

–Autsa peseta bat, erdi bakarrik eiñ juat eta.

* * *

Egun baten, beste batekin berbatu zan. Berotu ziran besakadeta-ara eldu arte. Baña, Mariño pelotari izana ta errebeskada ederra eukanez, betondoko bategaz bota eban anka-z-gora.

Bestiak, jaiki zanian, eskuak betondora eruanaz:

–Au eztok olan gelditxuko!

Ta, Mariñok:

–Ez orixe. Ez jak olan gelditxuko. Aunditxu eiño jak.

* * *

Eibarren bazan neurritz gañerako burua eukan bat. Errixan naikua berbakizun ipintzen eban Joxio buru-aundixak. Gijazuaren “ganbaria” zala-ta, amaika jardun ta amaika eztabaida izaten ziran. Baitxa, iñoliz berari preguntau be, ia baibenen bat izaten ebanian zelan maniatzen zan jausi barik ekilibrixua zaintzeko. Beste batzuek, ia buruko-miña eukanian zenbat aspirina artzen zitxuan; eta orrelakuak.

Bein, pelukerixa batian ulia mozten euala, sartu zan beste bezero bat eta barrukaldera begiratuta “Bixar arte” esan da alde eban. Orduan, pelukeruak:

–I, Manu, auxen bakarrik jaukat –esan zetsan atetik.

–Orretxegaitik pa, bixar arterañok badaukak.

Urte mordoxka bat da au pasau zala. Mariño pelotan onenian ebillela. Aiñ onenian eze, danak espero eben txapeldun izatera elduko zala, ta berak pe bai itxuria. Ba, bein, enpresarixuari esan ei zetsan:

–Zu, Bidarte. Ni iñoizko denporan txapeldun izatera eitzen ba-naiz, Joxion txapela nai neuke.

–Joxiona?

–Bai. Joxio buru-aundixana edo bestela bere neurriko bat.

–Zer dala-ta baña? –preguntau zetsan Bidarte enpresarixuak.

–Ba, Joxion txapelak barrukaldetik daroian ugalakin gerriko bat eitxia nai neuke.

* * *

Pelotan jokatzera kantxara urten zan batian, eztakigu zelan, baña zabaldu zan aurretiko egunian mozkortuta ibilli zala Mariño. Eta ori jakiñik, zer esanik pe ez; jentia, dirua bere kontra jokatzen asi zan, ugari gañera.

Orraitxiok, lelengo tantuetan, ondo be ondo jokatu eban eta bera zoian aurretik. Baña, jentiak, duda barik galdu biar ebala-ta, dirua bere kontra jokatzen jarraitu eban. Ze, baziran esaten ebenak, anken gañian oztoztan ebillela. Mariñok, barriz, jokua, geruago ta sutsuagua ekarren. Eta, jentiaaren ustien kontra, ta jakiña, baita kontradixuana be. Danen arrigarrirako, pelota-partiduori errez irabazi eban.

Amaitxu zanian, aiskide bat urreratu jakon esanaz:

–Sinistiak pe kontuak jaukaz, olako partidirik eztok eiñ eure bizi guztian. Ori zuan jokatu. Zelan konpondu aiz azkenera arte utsik barik eusteko?

Mariñok igarri zetsan nora zoian. A be, mozkortuta euan usterera.

–Zelan eiño najuan ba uts? Neukan mozkorrakin, lantzian lau pelota ikusten najitxuan, eta nai ta nai ez, txortara besakadia botata, lauretarikoren bat azertatzen najuan.

* * *

Denpora aretxetan zan, Ondarrabiko taberna batian bazkaltzea euala, sartu ei ziran frantzez kuadrilla bat. Ta, eurak dauken kunpli-

mentu oitxuraz, pasauala danak: "Bon profit" eta "Bon profit" etetzeka. Gero be, sukaldera ez-pazan, komunera edo danalakora pasatzen ziran bakotxian: "Bon profit". Eta, ainbeste "Bon profit"-i ordañez eskerrak emoten buruko ulietarañok aspertuta euan gure Mariño. Beti "Bon profit" eta "Bon profit".

Berriz be, jaiki zan bat norabaitx, baña Mariñok berekautan: "Entzun biar destak entzutzekoren bat, bai".

Frantzeza, ostera be pasau da esanaz:

–Bon profit.

Mariñok:

–Bestetik artik.

Frantzezak, nai 'baleuke edo aitxu, ta:

–Merci.

* * *

Gerratian, ez ba Mariñok iñori gaitzik eiñgo zetsalako, ze txarreakorik ez eukan da. Baña, deteniduta eroien, gizajua. Estaziñuan, trenera sartzerakuan, tren bertatik urten eban ezaun bat gelditxu zan, arritxuta begira. Ta, Mariñok:

–Or ba, zelan diran gauzak. Beñora ezkeriokan pelotarako gauza ez nintzalakuan, baña banajarioek... Ez jakixat nora; kontraturik ez jestek eiñ da.

* * *

Karzelan, Apotxiano, errepublika denporan konzejal izandakua, beti ei ebillen kezka:

–Ni, preso? Nik ez juat barren ezer eiñ... Ni ez nok barren ezertan sartu... Ni ez nok ezer... Mariñok:

–I, ez aizela ezer? Da, ni zer? Nik zer jaukat ba txarrik? Azido-nitrikua nok ni ala?

* * *

Gizon ixilla ta elizkoa zan Gonzalo Sarasua "kerizpera" sartzen ikusi ebanian, esan ei eban Mariñok:

–Ene! Ointxe etsi jetsat. Oingotik ez juagu emendik errez ur-ten-go.

–Zer ba? –aiskide batek.

–Apostoluak pe barrura sartzen asi ditzuk eta...

JUAN SAN MARTIN
1964, 1-6, 88-92.

EIBARTAR ZELEBRIAK -V- FELIX LEGARREN TXISPIA

Felix Legarre Balenziagianian biarran ebillela, kamiol bat etorri ei jakuen aspaldi zain eben materixalakin. Alanbre muelle-gaixxa ei zan rolluetan.

Kontra-maixuak agindu zetsen biargin batzueri kamioia deskargatzeko. Euren arteko zan Felix be.

Asi ziran karriuan. Ta, beste guztiak bizkar bakotxian rollo bana txintxilixka erioen artian, Felix Legarrek bat bakarrik. Ta, bera be patxaran, prixa barik.

Ori ikusi-ta, kontra-maixuori iraotu zan, ta esan zetsan:

–Zer, Felix, ik pe bestien pare, aldia bakotxian bana ezin ditzuk artu ala?

–Zer usten dok ba ik, belarritxakuak dirala ala?

* * *

Askotan izaten dan moduan, zozuak bellari, ipur-baltz. Olan ebillen erregaldarian lazkotxe burua eukan bat, Mari-Katilluneko tabernan, Felix Legarrieri edarra jo nairik.

Baña, asi besterik ez zan eiñ. Felixek, berak ekixan moduan, goxo-goxo berba eiñaz, esan zetsan:

–San Juan bisperan puxigiakin ibiltzen diranetako bat dirudik..

* * *

Beste bein, pase sasoi be bazan, ta ego-aixe eguna gañera, ta ez ebillen beste auturik usuak gora ta usuak bera baño. Felix, sartu zan Mari-Katillunian, ta Rufinok, zerbaitx esan biar ta berba eitxeko baño nagixago, esan ei zetsan:

–Felix, usuak ei dabixak.

–Bai. Iregaitxik ibilliko ditzuk bai.

* * *

Felix Legarre gutxin moduko zalia zan ollar-jokura. Bein. ba-ei zoian Untzaga-kalian ziar besapian “Kanelo” bere ollar maitxia artuta, zein da ume txiki bat balitza bezela. Isaak Biteri medikua etorren bestaldetik eta zerbaitx esan biarrez:

–Ba-oia...

–Ba-najoiak.

–Eure olluorrekin.

–Ollua? –Felixek erantzunez–. Ollua esan dok? Ollua ala ollarra dan igartzen eztakixanak, zera igarriko jok katarrua ala plumunixia dan.

JUAN SAN MARTIN
1964, 1-6, 92-93.

EIBARTAR ZELEBRIAK -VI- OJANGUREN FOTOGRAFUA

Aintziña asi zan Indaleki Ojanguren D' Agerre'ren artetik bizi izaten. Izan be, eibartarrik geienak bezela, zirt edo zart eitxeko gizona da, Indaleki. Fotografiaren etorkizuna illun egoan artian, orretara itzuli zan buru-belarri gure gizon au.

Gaurko teknikak benderatu barik egozen denporan, fotografiazteko makiñak ez euken oingo aukerarik nai zan moduan ataratzeko. Orregaitik, «anpladora»-rik ezautzen ez zan denpora aretan, Madrildo «ABC»-koak arrituta euazen Ojanguren'ek ataratzan zituan erretratu ederrekin. Eibarren bertan asmautako teknikaren bat edo ezarri ete zetsan, «ABC»-koak bialdu eben euren fotografu ezaguna zan Duque jauna.

–Zelan konpontzen zara zu pelotariak naiz foballistak olako ondo ataratzeko?

–Tripodiakin.

Bera bakarrik zan artian, naiz pelota partidua edo naiz fobaill jokua, gelditzen zitxuana bere erara fotografiatzeko.

* * *

Ojanguren'entzat dana izan da interesantia. Berak erretratau ez dabenik ez dago. Horacio Sarasketa'k bere lapiz azkarrakin karikatua egin zetsanian, azpikaldian au ipiñi zetsan: «Onegandik guztiok pasau giñan».

Bai. Ala da. Eibartar guztiok gaitu bere artxibuan, aldeko ta kontrako, kolorieri begiratzeke: bautizuan, komunio nausian edo ezkontzan ez bada, karneterako erretratuan, Aste Santuko prozesiñuan edo aratostietan izango da.

Era batian, sarri ebillen Bizkaiko errietan elizak, torre-zarrak eta abar. Leku askotan aitzen emoten zetsen beste jaun bat be baebille-

la era-bereko fotografiak ataratzen. Lelengo aldiz agertzen jakon konpetenziako bat. Emoten zetsezen aztarranetatik, errena ei zan. Ta, egun baten or nun agertzen dan, Eibarko bere estudiara, tajura, aretako gizon bat. «Emen dok nere kontradixua», esan eban Indalekik berekautan. Ta, igarri. Bera zan Jabier de Ybarra jauna, *Catálogo de Monumentos de Vizcaya* eitxen ebillela. Ybarra jaunari be berdintsu gertatzen jakon; zoian leku guztietan berba eitxen zetsen eibartarragaitik, eta ezagutzeko asmuz joan zan. Zorionezko ezagutza izan zan blientzat. Ojanguren'ek bere artxibua erakutsi zetsanian, arrituta esan ei zetsan Ybarra'k: «Sinistu ezindakua da eiñ dozun bihar guztial». Ta, Ojangurenen erantzuna: «Al, da zenbat biar eiñgo neban nik biarrik eiñ biarra izan ez baneu».

* * *

Negoziuan barriz, zintzua. Ez eban gelagorik emongo. ezta guxtiagorik artu be.

Bein, bezero bati, kontuak zuritxuaz: «Kanbixuak eitxeko ez jaukat errialbikorik. Autsa pezetia ta ekak errialbikoa».

–Neuk be ez daukat baiña errial birik.

–Orduan, zer eiñ?

–Artizu zeuk pezetia, ta urrenguan emongo destazuz errial biak.

–Baiña, ni aztuko nok, ta iri emoten ba deuat be i aztuko aiz. Ta, ara, kara-kurutz eiñgo juagu ta kitto.

Ola erabagitzen ekian kanbio kontua.

* * *

Ba ziran baiña erabagirik ez euken gauzak be. Pobria aberastu leike, ta aberatsa pobretu; baiña zatarrari... zer? Ziruja-estetikarik ez eguan denporan zer?

Bere kulpaz ez bada be, polita ez zan neskatilla bat erretratu eske juan zan batian; ikusi zitxuanerako esan zetsan: «Ene! Ojanguren; zelako zatarto atara nozun».

–Ez uste makiñian faltia danik. Emen ez dago tranparik.

* * *

Tola de Gaytán markesak sarri eskribitzen zetsan alako edo olako eskudoren fotografia eskatuz. Elizgizon ta titulodunentzat alerjia eukan eibartar adarjotzaille bat enterau zanian, esan zetsan:

–Konke, euk pe markesekin da tratatzen duala e?

–Nik ez eurekin. Eurak nerekin.

Ojanguren gauzegaz ezerekin ez naiz arritzen. Urte batzuek dira, zazpigarren eun mendiko konkursoa amaitxu ebala ta, artikulu bat egin neban bere zenbait gauza kontauaz. Nik *La Voz de España*-n argitaratu ta andik egun gutxira beste periodiku batzuetan etorren nere baimenik barik, baiña gatz-ozpinduz. Orduantxe bai benetan sinistu nebala «Fotografo Aguila» zala, askok ola apropos deitzen ba zetsen be. Ba, bere egaztada ez zan gelditzen, periodikutik periodikura ebillen; gelditzeke. Euren aria galdu neban. Andik denpora askora be, erriko-seme aisikide batek ekarri estan Madril'go 7 Fechas, artikulu berari konponketa dotoriak eiñ da. Ez dakit ega luziak ala ainbeste aldaketak, lumok, ondo aldatu etsezen gure «arranua»-ri, ainbestian eze, 7 Fechas-en erretratu orde z dibujua ekarren. Ta, ze lakua? Ojanguren mendi punta batian, gure «Fotografo Aguila»-ri tokatzen jakon moduan, baiña buruan kordobesen kapelia eroiala, berak erabiltzen daben txapelaren orde z.

* * *

Orrek ikusita ezerk ez nau arritzen.

Oraindik ixa mutiko bat nintzan Eibar'ko Club Deportivo'an mendizaleen sailleko karguan nenguala. Illuntzi batian eldu zan nere eskura konkursoarako aitzen emoteko eskribitzen diran papel orretariko bat. Ojanguren'ena zan. Astean Urko puntara igo zala-ta. Alperrik izan fotografua libertade askoko ofiziua, eibartarrentzat beti izan da sagraua astegunian egunerditxo bat biarrera barik galtzia. Orretan, or nun sartzen dan Ojanguren bera. «Zer, Indalezio, astegun buru-zurixan be Urko'ra?»

–Bai; Ermura Juan biarra najeukan ta bide-batez Urko puntara igo najuan.

Ori entzun da, zelan ez sinistu ega egiteko be gauza zala.

* * *

Gaiñera, ez da poliki ibiltzen danetarikua. Beti, okerkerixia eñ da anka-jokuan doian mutiko baten bare, pxiaka.

Untzagako plazatik ola zoian batian, bere edade inguruko agura batek esan zetsan:

–Ikasik polikixago ibiltzen!

–Euk ikasik bixkorrago ibiltzen!

* * *

Berriz, baztarrik ba ete da bera eldu bakorik? Ez Euskalerrian. Sarri pasau ditxu gure mendiak, alde batetik eta bestetik oiñaz. Ainbesterañok eze, ez da posible bera iñork ezautzeka pasatzia. Berakin ibilli garanok ondo dakigu ori.

Bein, Aramaixo'ko Gantzaa auzuan, bertako basarritarregaz berba alditxo bat egin ondoren, izketan Eibar aitxatu zalako edo, atso zartxo batek esan zetsan dirala urte asko ibilli zala an beste eibartar bat pe fotografiak eta ataratzen; eibartarra Ojanguren zala. Zelan ez zan arritxuko atsotxua, esan zetsanian bera zala Ojanguren. Orduan, andrionrek esan zetsan: «Baiña, zu ez zara izango aintziñako Ojanguren; zu, aren semeren bat izango zara».

* * *

Bein, «La Voz de España»ko redaziñora eldu zan paketetxo bat. Zafra'tik etorren. Antiaju batzuk ziran Guadarramako mendietan billautakuak, ta antiaju azalian «Eibar» ipintzen ebalako, beste barik. «La Voz»-era bialdu zitxuen Ojanguren'en izenian. Usterik beste iñor ezin zeikiala izan inguru aretan ibilli zeikiana. Ta, egia zan, iru aste aurretik an galdu zitxuan bere antiajuok.

* * *

Bein, jakin eban Arantzazun prozesiñua eguala ta China'tik etorri barri zan Aranburu obispua be an izango zala. Juan zan, okasiñua aprobetxatzera fotografia berezi bat ataratzeko (fotografia «aletakua» Ojanguren'en argoterako). Baiña, osteria aprobetxauaz, mendiren batera igo biar ba, ta Juan zan Aizkorriko gaillurrik gorenetakoa batera. Bueltzan, arratsalde erdian, prozesiñuori ixa akabauan billau eban. Obispua aurretik zala, bere jantzi apain guztiekin, elizarutz zoiazan. Denporarik ez eukanez, prozesiño guztian aurrekaldian ipiñiaz, esan

eban: «Alto!». Ta gelditu zitxuan. Gero, bere komenentzietara fotografiek atara ondoren: «Aurrera!». Agindu zetsen. Olako «aita santurik».

Baiña, guztia ez zan or amaitxu. Donostiako doctor Bidaur -lena-go «Montañeros Vetustos»-ko mendizalia izana- China'ra misionero juañ zanian, ta periodikuetan ekarri Aranburu'k egin zetsan sortaldeko lurretan buenajeria. Ez bat eta ez bi; Ojanguren ek alkarri eskua emoten ipiñi zitxuan ta, egun gutxira, «La Voz de España»k ekarren: «El doctor Vidaur, recibido por monseñor Aramburu, en China. Foto Ojanguren.» Bidaur mendizale jantzita, jersia gaz ta esku batian maki-llia ebala, ta, Aranburu, dotore mitra ta bakulu gaz.

Ojanguren ek ez eukan tele-foto ta tele-bisiño biarrik.

JUAN SAN MARTIN
1966, 1-6, 92-95.

ZATOZ

N. Alzola «Markue»n, olerkaritzako bide berrietara ongi-etorria emanaz. EGAN aldizkarian «Kantuz eta itxaropenez» sailari hasiera eman zionean. 1966. urtean.

Otsalar-ek

*Denok gara nekatuak,
denok,
kanta urratu horrekin.
Baina zure ta nere
gure
zorionak ez du mugarik
libertate haizeeri aterik
irikitzen ez zaion artean.*

*Oinaze minaren kantak
beti
persegituko gaitu zu ta ni ta
guziok
oro, tristeziak hatzemanik.
Munduko izakera, beltza eta
tristeia denez.
Zer dela uste bizitza bat?
Seigarren sentituaren mututasunean
ez zait ezer nabari.
Nere zentzugabetasuna
oso handia da,
edozein aberek,
edozein landarek
konprenitzen duen*

arrazoi ximplearekin jabetzeko.
Deusik ere ez dakit bizi
beharrez. Eta ogia eta
libertatea beharrezkoak
ditut iraun ahal izateko.

Edozein aberek,
edozein landarek
bezala nik ere,
guk ere, bizitza
bizi ahal izateko.
Eskuz-esku,
besoz-beso
urratuko ditugu
bide berriak
oihaneko
gogo zaharretik
hornituaz.

Gogoaren muina
izanaren iturburutik
jasoaz, mundu zabalari
aurrez-aurre:
"soiña zaar,
berri gogoa;
... muin betirakoa".

Minezko kanta zaharra
amaituko da zure ta nere
ezpainetan,
eta ez ordea gure herkideenetan.
Iraungo du muinez kideko
direnen artean. Iraungo du...
amodiozko kanta erroz
sustraitu artean alor helkorrean.
Larraka, luberri hezez
bihurtzean jarririk esperantza.

Iluntzi gorrizko
udagoieneko
arrats
hura
Itxaropenezko bide berrira:
zorionekoa izan bedi.
"Arrats gorri, eguraldi",
landare
berrien
ongarri.
Minezko kanta
amoriozko baita.
Bide landuak utziaz
ekin kemenez berriari.
Zatoz, adiskide;
zatoz, anaia
alor helkorren bidetik
eskuz-esku,
besoz-beso,
maitasunean
besarkaturik
inoiz ilunduko
ez den egun
sentiruntza.

1967ko otsaila.
OTSALAR

GABON JANARIAK FOLKLOREAN

Gabon zelebratzeko janari bereziak izan ohi dira, nonnahi. Abendu hilaren azken parteko giroari jarraiki eta kanta zaharren laguntzarekin, urte-aro honetako gastronomia aditzera emango dugu, ugari bezin aberatsa dugun folklore zati baten bidez.

Gai hau ezta lehen aldiz ikutzen dena, ezta guttiagorik ere, Antonio Arrue naro jarduna da hontaz, bereziki *EGAN* aldizkariko «Jan-edanak» sailean. 1956ko azken zenbakian. Gabon janarieri buruz soilki ari zelarik *Archipreste de Hita*-k «*Libro del Buen Amor*»'en (1389) Bermeoko bisiguak goraiatzuten zituela gogorazi zigun, eta bisigua, Euskal-Herriko Gabonetako janarietan fiñenetakoa dugu, noski.

Izan ere, jakien berezitasuna eta ugaritasuna elkarrekin ditugu egun hauetan. «*Natibitate, ase ta bate*», esaten da gure inguruetan. Baina goazen kanta zaharren arlora.

Euskal-Herrian zaharrik bada, Olentzarori buruzkoak zaharrenetakoak ditugu. Kristautzaren aurretiko jentilen garaian ditu bere sustriak.

*Horra, horra! gure Olentzaro,
pipa hortzian dula ixerita dago.
Kapoiak baditu arraultzatxoekin
gabean merendatzeko sagardoarekin.*

«Orixe»'ren *Euskaldunak* duen parterik hoberenatakoa Olentzarori eskaintzen dion kapitulua du.

Olentzaroren ase ezinak Grezia zaharrako Bako-ren irudi edo jainkokiaren antza du:

*Olentzaro jaun ordia,
buruz ederki jantzia:
edan batean ustu diguk
sei arrobako zagia.*

Beraz, ez harritu, mendiz-mendi edo kalez-kale doan taldearen doinu hotsetan holakorik aditzean:

*Olentzaro guria
ezin dugu ase,
bakarrik jan dizkigu
hamar zerri gazte,
saieski ta solomo,
makiña bat este...
Jesus jalo da eta
kotsola zaitetze.*

Denboaren joanez, siniskera zaharrek, erlijio berriari lekua utziaz joan ziren. Baina ohitura zaharrak euren lortzak folklorean utzi zizkiguten; batez ere, hain zuzen, Ekainean eta Eguberrietan, eguzkia goren eta beheren aurkitzen den garaietan. Igazko Eguberrietan eta aurtengo Ekainean egin nituen artikuluetan nahikoa argi utzi nuen bezala (Ikusi, «*Hoja del Lunes*», 20-XII-1971, 16-VI-1972 eta 25-VI-1973, 3.orr.).

Zer dira ordea Gabonetako janari bereziak? Eskualde guzietan ez dira zeharo berdinak, noski. Bizkaiko itsas-hegalean, Eusebio M^a Azkuek joan zen mendearen erdi-aldera idatzitako *Parnasorako bidea* liburuaren 91. orrialdean dakarrenez, «Gabon afari bat» izeneko bertsoetan: *orio-azea, lebatza, makallao-saltzea, besigu-erria eta intxaursaltsa*. Edaritzat: *txakolina, ardao* «ezta euskaldunik egin deustanik Erriogari biraorik», dio gainera), *kopea bete beterik kafeari botata, eta beste kopa bat aparte*.

Bizkaiko lehorraldean ere antzera izan da. Afalondoko edaritzat, Gipuzkoako muga eta Durango aldean, pattarra aurreztik aranekin gertatua hartu izan da. Nafarroa parteko «patxaran» (pattar-aran bera edo antzerakoa). Inoiz, aranen ordeztu, ginda-gereizekin ere egiten da. Gure gurasoentzat (nereentzat behinik-pehin) ezta izan Eguberriko orio-aza, marraskillu (= karakol), legatz edo bisigu eta intxaursaltsa eta aran-pattarrik gabekorik.

Aipatu dudan eskualde honetakoa dugu honako kanta hau:

*Gabon-gabeen ohitutuen dogu
guztiok afari ona:
besigu, lebatz, makailu-saltsa,
bakotxak berak ahal dauna.*

*Gero txurren plin-plan,
ardau ta paitarra,
katuak hartuta
zabu-zabuka.*

Durango aldeko ezpata-dantzaren soinuan ere bada Gabon jana-rien kanta bat:

*Aita Juaniko, seme Periko,
zer dogu aparitako?
Orio-aza gozo-gozoa
arto beroaz jateko.
Kazuelatxoan intxaur-saltsea
txarra morkoan txunpletin;
eragin eta beti eragin,
atsoak bauke zeregin.*

Gabon egunez kantari taldeak etxez-etxe eskean ibiltzen direnean ere, era berean, janariak dirua bera baino estimagarriago ager-tzen dituzte. Adibidez, «Albako gultzurrunak» izenez hasten den kan-taren honako bertso hauetan bezala:

*Kantuak utzi digu
lehor eztarria,
betor etxeko-andre
orain edaria.
Hotz dago edateko
sagardo mikatza,
nahiago dugu beraz
nafar-ardo beltza.
Arkumerik ez bada
betor oilaskoa,
dozena arraultzakin
bada solomoa
ta besterik ezean:
hamar durokoa.*

Familiak elkaturik zelebratzea da Gabonen berezitasun bat. Azkuek Otxandion jaso zuen «Ator, atar, mutil etxera» kantak bere deira aditzera ematen duen bezala. Kanta honek badu holako xar-mengarritasun ezti bat, lehen Otxandion bakarrik ezagutzen zena, Azkueri esker, urte guttiren buruan Euskal-Herri osora zabaldu da.

Cancionero popular vasco-ren II. tomoaren 155 orrialdean dator, eta bertako oharretan agertzen denez, letra ikutua dago; ez herriak kantatzen zuen eran. Gure aitona Sebastian Ortiz de Zarate zana (ni sortu baino lehen hila zen) otxandiarra zen, eta gure amari magnetofofuz jaso ahal izan ditudan kanta zaharretan honako hau ere bada, aitona gandik ikasia zuen bezala. Beraz, herriak kantatzen zuen eran. Hau da:

*Ator, atar, mutil, mutil etxera,
 gaztaina ximelak jatera,
 Gabon gaba zelebratzeko
 aitaren ta amaren onduan.
 Ikusiko dok aita barrezka
 ama be guztiz kontentuz.
 Eragiok mutil aurreko danbolin horri
 gaztainak erre artean,
 gaztainak erre artean,
 xipli, xapla, baun!
 Gabon gabau pasau diegun kontentuz.*

Euskal folklorean Gabonak toki zabala dute, lehenaren era askotako aztarnak aurkitu genezazke eta garai bateko janarien berri ugari ere bada.

Mundu guzian ospatzen diren Gabonetan, irakurleei zorionak opa dizkiet eta gauerdi aldera, Aramaion bezala esan dezatela:

*Dringilin dron, gaur Gabon,
 sabela betea daukat eta
 besteak hor-konpon!*

JUAN SAN MARTIN.
 1973, 1-6, 64-67.

SAGARRA ETA SAGARDOA EUSKAL HERRIAN

Sagarra eta sagardoa noiztikakoak ditugu Euskal Herrian? Aspal-dikoak noski. Baina gauza zihurrik ez dakigu. Historia idatziaren agiri-rik zaharrenetan galtzen dira lehendabiziko berriak. Agirietatik harat, lehenagorik usteen ametsetan galtzen zaigu.

Zientzia aurrera doa, eta arkeologia bidez bada lehen gizonen azternategien estratoetan landaren haziak bilatzeko era. Ekainen egin diren azterketan, adibidez, urritzaren haziak eta beste zenbait landa-rarenak aurkitu eta zehatz ikusteko bidea izan dute, garai haietako fruituak eta klima ezagutzeko. Holako zerbait posible izango litzake Erdi Aroan zehar historia aurreko garaietara heltzeko. Baina holakorik ez dugun artean beste bide seguruzko batzuk aprobe txatu beharko ditugu. Eta gaur gaurkoz agiri idatziak besterik ez dugu.

Hala ere, esan dugunez, gure historia aurrean agiri idatzirik gabe galtzen zaizkigun gauzen artekoa dugu sagar eta sagardoa. Martin de Anguiozar idazlearen ustez (1) arabeengandik hartua izan leike, baña gogoan izan behar dugu erromatarrek ere ezagutzen zutela, eta hau hola delarik leikeana da berengandik ikasia izatea. Autore batzuen iritziz, eta hauen artean E. Labayru bere Bizkaiko historian (2), XIV. mendean Euskal Herritik Normandia-ra eraman zituzten sagarrondoak eta, inguru haietan hedatu ondorean, handik zabaldu omen zen Britainia-ra ere. Dena dela, Andrea Navajero italiarrak gure herrian ikusi zituen gauzen arteko dugu sagardoa eta 1524an bere ibilerak kontatzen dituen liburuan jasotzen du hemengo edaririk ezagunena bezala.

(1) M. De Anguizar, *En el Pirineo vasco*. Buenos Aires, 1944. 87/90 orrialdeetan La sagardoa izeneko kapitulua.

(2) E. J. de Labayru, *Historia general del Señorío de Vizcaya*. Lehen argitalpena 1895 eta bigarrena 1967. I tomoaren 495/499 orrialdeak.

Bestalde, Euskal Herriko deiturarik zaharrenen artean aurkitzen ditugu «sagar» eta «sagasti» sustraiak. Hamabosgarren mendea baino lehenagoko deiturarik urri dugu, baina hala ere, ordurako anitz hedatua aurkitzen dugu gure geografia guzian. Hara hemen deitura batzuk: Sagastizabal Azpeitin, Sagasti Seguran, Sagastigutxia Beasainen eta Elgetan, Sagastiberridi Itsasondon, guziak XIV. mendekoak; Sagarminaga Zeanurin eta Arteagan, Sagastiberria Ormaiztegin, Sagarzirietan eta Sagasti Elgoibarren, XV. mendekoak.

Donazio zaharretan sagastiak agertzen zaizkigu. Elizaren ondaren arteko ziren sagastiak bere aberastasun bezala hartzen ziren. Adibidez, Bizkaiko Elorrioko San Agustin-goan San Millan de la Cogollako Monastegira bere ondasunekin eman zenean, 1053garren urtean, latinez idatziko agirian zion: «Et dedimus hereditates, terras et manganares» (3), eta Gipuzkoako Astigarribia (Motriku) elizagatik, 1128an –Garibay-k dakarrenez– «Dotase tener esta Iglesia pastos y montes y manganales, y puertos para pescar» (4).

XV. menderako sagardoak zuen balioa argi ta garbi dago Bizkaiko foru zaharretan. Foru zahar hauek lehenagoko ohitura zaharren araura idatzi eta onhartu ziren 1452an. Eta honen XLIXgarren kapituluak dakarrenez, asmo gaiztoz sagardoak upeletatik hustutzen dituenak zigortzat heriotza izango zutela. Bestalde, sagastiak jartzeko arauak ematen dira foro bereko CL. kapituluak.

Gipuzkoako foruen XXI. tituluan ere, sagardoa behar bezala gordetzeko, antzerako erabakiak agertzen dira.

E. Urroz Errok *Compendio historial de la villa de Tolosa*-n dionez, herriko ordenazetan erabaki gogorak arkitzen dira sagardoari behar baino ur gehiago botatzen dioten sagardoginentzat. Hala jasotzen du. Martin de Angulozar-ek bere lanean. Gainera, egile honek dionez, S. Agirre Miramón, Muzkiz dorreko kondea, Euskal Herrian sagardogintzari buruz egin den lanik handienaren egile omen da. Lan hauek ikusterik ez dut izan.

(3) L. Michelena, *Textos arcaicos vascos*. Madrid, 1964. 31 orrialdean jasotzen du.

(4) E. Garibay, *Compendio Historial*. Barcelona, 1628: Tomo 2, cap. XXIII, 54 orrialdean.

Bilbo hiriko ordenantza zaharretan ere sagardo salketarako erre-gelak agertzen omen ziren eta geroago, 1534 eta 1539ko lege berritzean lehengo haietan oinharritu omen ziren.

Gai hontaz zerbait idatzi duten gehienak aipatu dute Fr. Gonzalo de Arredondo-k 1500ean Fernán González kondearen historian jarri zuen bertso hura, 931. urtean Macinas-ko guduan parte hartu zuen Bizkaiko jaunari buruz esan zuena:

*Conde Don Lope, el Vizcaino,
rico de manzanas
pobre de pan y vino.*

Baina, politena, zera da, Macinas-ko gudurik ez dela izan histo-rian, poetaren irudimenean baizik. Dena dela, gure herriaren sagardo aberastasuna eta ogi eta ardo eskasia adierazten ditu XV. mendea-ren bukaeran autoreak, baina inondik ere ez X.ean.

E. Garibay-k bere gaztaroan jaso zuen Andre Milia Lastukoren eresia, Miliaren aizpak bere heriotza bide jarriak. Aipatu dugun *Compendio Historial*-en jasotzen du eta Mitxelenak ere estudiantua *Textos arcaicos vascos* izeneko liburu horretan. Kanta bera XV. mendearen lehen partekoa da. Sagar errea aipatzen duen partea soilik hartuko dugu:

*Zer ete da andra erdiaren zauria?
Sagar errea, eta ardao gorria.
Ala baña, kontrarioa da Milia:
Azpian lur otza gañean arria.*

Hemen, sagar errea adiarazten digu andre erdiaren (erdituaren) alimentutzat. Gutenez sagarraren estimazioa erakusten digu Erdi Aroko bertso honek.

Era berean, Domenjon de Andia tolosarrak, ahalde nagusien borroken kontra Gipuzkoako Hermandadeen eta Gaztelako erregeren alde bikain jokatu zuena eta honetatik hain ospe handia irabazi zue-nez, 1489an, bertso hau jarri zioten:

*Sagar eder gezatea,
gerrian ere ezpatea
Domenjon de Andia
Gipuzkoako erregia.*

Askoz geroagoak dira Miraballesko adar kontuarenak. Sagarrak dituen vitaminen berri bazekitela adiarazten digute, Andre Milia-ren

erditze zaurian sagar erreak zuen alimentua bezalatsu, gordin helduak hezueri gaitzarentzat. 1619an Tolosako herrian paskin batzuk agertu ziren, beretako bi euskaraz idatziak, bertso traketsez. Miraballesko jaunak, ez fama onik eta gainera hezueria (= gota), omen zuen, eta hoietako bertso batean sendatzeko kontseilua eman zioten:

*ezeta eske oi abil galdua,
gotak ondo eztik galuoa;
edukak geldirik porrua
eta jan egik sagar eldua.*

Bertso hoiek ere Mitxelenak jasotzen ditu aipatu dugun liburuan.

Oraintsuago, joan zen mendearen azken partean, Pepe Artolak eta bestek bertso ederrik egin dute sagardoari buruz.

Gure folkloreko sagar-dantza bera ere oso aspaldikoa da.

Gai honi buruz, S. Agirre Miramon, Muzkiz dorreko kondearenaz aparte; Gipuzkoako Diputazioak 1918an argitaratu zuen pomologiazko albur bat; F. Mokoroak ere egin zuen sagardoaren estudio eder bat (5); B. Arrabal Alvarez-ek zabalkundezko liburu batean eman zituen bere denborako sagastien berriak (6); J. M. Busca Isusik gure janariari buruzko lan batean agertzen ditu sagarraren dohainak (7) Beraz, ez da lehenago ere ikutu gabeko gaia.

Argi agertzen da sagastien berriak gure historia idatziaren hasieran bertan lausoturik galtzen zaizkigula, eta lehenagokorik zerbait jakin nahi baldin badugu beste bide batzuetaz baliatu behar garela. Esate baterako, P. Areso sedimentologoa lehen aldiz ari zaigu gure harpeen azternategietan lore-hautsak eta haziak biltzen eta analizatzen, eta hemendik lortu genezake gure herriko sagastien aintzinasuna ezagutzea.

*Juan SAN MARTIN
1975, 1-6, 39-42.*

(5) F. Mocoroa, "La sidra" (*Munibe*, V, 1953, 145/156 orr.).

(6) B. Arrabal Alvarez, *Guipúzcoa*. Lecturas. Tolosa, 1930. 75 orr.

(7) J. M. Busca Isusi, *Alimentos y guisos en la cocina vasca*. Donostia, 1958. 145 orrialdea.

XALBADOR

Heriotza mingarri batek ikutu gaitu euskaldunen bihotzak. Eta,
heriotzeak eginarazten
dauku zonbait gogoeta;

Bere omenaldi egunean hil zaigu Xalbador bertsolaria, bertsolari aruntaren mailetatik askoz goragoko dohainez Euskal Herri guzia maitasunez bereganatu zuen gizona. Holako poetarik guti izan du gure herriak, eta nekez sortuko zaigu beste bat. Uste gabeen, oraindik sasoiko,

behin betikotz isildu zauku
gure errexiñoleta.

Ber berak bertsolari adiskide baten heriotzaz egin zituenetatik hartzen ditugu lerro hauek. Bere izateaz hoberik ezingo genuke asma. Halakoa bai zen Xalbadorren etorria gai sentikor bat maitzear. Halakoa zen poeta honen bihotza. Eta hark lagun maitagarri bati eskainiak orain guk beretzat hartzea legezkoa deritzagu.

1976ko azaroaren zazpian, igandez, Euskal Herri guztitik heldutako jendez bete zen Urepel, Xalbadorren sorterrria. Alde guzietakoak erakutsi nahi zioten beraganako borondatea eta zenbait sari. Bere bigarren liburua ere han aurkezten zen. Ni ere goizean goiz harako abiatu nintzen, baina bidean izan nuen ezbehar bategatik gelditu nintzen bertaraino heldu gabe.

Bihotzeko eritasunez omenaldian bertan eraman zuen herioak, emozioz leher eginik, eguneroko berrietatik irakurleak dakien bezala. Honegatik, ez naiz jardungo gauza bera esaten eta bertsolari adiskidearen artegintzaz eta gizontasunez oroitu nahi dut.

"Herria" eta "Gure Herria" aldizkarietatik ezagutu nituen bere lehen bertsoak, hirurogeia baino lehen, haietariko bat, "Esperantzarik gabeko amodioa" izenekoa, maiz irakurri ere bai. Egun batean Azkaineraino joan nintzen bera bertsotan entzutearren. 1960tik mugaze-

mendiko txapelketetan hasi zen. Baxenabarreko euskarak ez zion laguntzen gipuzkoar publikoaren aurrean, baina bere bertsogintzaren ederra inork ukatu ezinezkoa zen. Egia esan, ez zen txapelketetarako hain yayoa, zeren gaia hain gogokoa ez zuenean bertso oso motelak ere egiten zituen. Beste batzuk betegarri eginak ere hark bezain ederrak egiten zekizkiten, baina berak ez. Berak, gai hunkigarri bat hartzen zuenean bestek baino goragoko mailletatik eramango zuen bere bertsoa. Epai-mahaikoentzat ere ez zen hain gauza erraza txapelketa batean bere balioak neurtzea. Baina baliorik handiena bihar-munetik zenbait bertso herrian hedaturik aurkitzea zen. Lehen lehenik mugazandik, bere euskalkitik hurbil, baina denborarekin mugak hautsi zituen bere bertsogintza xarmantak.

Bertso horiek bazekarten esaldi eta egitura berririk gure garaiko bertsolaritzara. Hala ere, bere erroa herri kanta zaharretikakoa zuen Xalbadorrek. Bere bertsoak irakurritz laster konturatuko gara Euskal Herriaren kantategiaren jabe zela. "Dohaina eta lana" izeneko bertsoak Otxalde eta Etxahun bertso saioaren oroitza ekarriko digu, adibidez. Baina artegintza berri batekin. Lehengo bertsolarien gisa, zenbait klitxez baliatzeaz badaki, baina sorketa berrieri begira ariko zaigu. Sorketan aurkitzen zuen Xalbadorrek bere gogoia. Sorketa ideiak, esaldiak eta bertsoaren egitura guzia eratzeaz. Adibiderik asko aurkituko dugu bere bertsoak irakurtzean, nahiz paperean idatzitakoetarik edo nahiz plazan bat-batean botatakoetatik. Sinbolojiaz ere ederki baliatzen zekien. Hara 1962ko Erregen eguneko saio hartan Donostian agurrez egin zuen hura:

*Egun Erregen eguna da ta
nik ere hartu indarra,
nunbait ni ere Erregen gisa
bidean hasi beharra,
goizean etxetik erten eta
abiatu naiz azkarra,
gero Donostiaren par-parean
gelditu zeraut izarra.*

Egun berean, Basarri, Uztapide eta Azpillagarekin batean musean jokatzera zuen gaitzat eta berari zegokion partetik grazia bizkor batean aritu zen. Orixek gogoko zuen Elizanbururen "Festa bihar-muna", jokoaren partida hain ederki eramanezko bertsoak zirelako, baina egun hartan Xalbadorrek bat-batean jarri zituenak Elizanburuk

paperean idatzi zituenak bezain onak ziren. Basarrikin pareja, beste bien kontra egin beharra zuen, eta hara hemen txandako hiru bertsoak soilik:

*Zeinek dezake haueri
partida ekendu,
Uztapidek eskuetan
jokua omen du,
nik gaizki eginak otoi,
Basarri, konpondu,
Bainan gezur guziak
utzi ene kondu.*

*Baduela dionak
berdin bat ere eztu,
jokoan nihor ezpaita
nehoiz aski prestu,
etzazutela ibili
horren bertze jestu,
beldurra iduki gutaz
nota gauden esku.*

*Museko berri badakit
nik ere lehenago,
zonbait partida tabernan
jokaturik nago,
Uztapide erregez
beterik badago,
haundia tira zazu ta
txikira hordago.*

Baina bertso apartekoen artean, bat-batekoetan behintzat, 1965eko Urte Berri eguneko txapelketakoak ditugu. Gaia, emazte hil zenaren soñekoari bi bertso botatzea jarri ziotenean:

*Pentsa zazute alargundu bat
ez daike izan urusa,
dolamen hunek, oil, ez dezala
ainitz gehiago luza,
orai urtea ziloan sartu
andreñoaren gorputza,*

*haren arropa hantxet dilindan
penaz ikusten dut hutsa.
Geroztik nihau ere nabila
guzia beltzez jantzirik,
ez dut pentsatzen nigar eiteko
ene begiak besterik;
ez pentsa gero, andre gaxoa,
baden munduan besterik
zure arropa berriz soinean
har dezaken emazterik.*

Baina guzi horiek nonbait ez ziren aski izan Xalbadorren bertso-gintza behar bezala ulertzeko. Honelako bertsoak sailean betearren, gipuzkoarrak ez ziren konturatu hoiien edertasunez. 1967ko txapelketan, epai mahaia azken saioa Uztapidekin jokatzeko aurrera pasatu zuelako txistu joka hartu zuten bertsolari pare gabea. Txistuak ez ezik bazen han protesta ohiu eta bullarik ere. Baina Xalbador, isillune bat hartu bezain azkar hasi zen agurrezko bertso honekin:

*Anai-arrebak, ez otoi, pentsa
neure gustura nagonik,
poz gehiago izango nuen
albotik beha egonik;
zuek ezpazerate kontentu
errua ez daukat, ez, nik...*

(Une honetan jendea txaloka hasi zen eta ezin jarraituz gelditu zen bertsolaria; gero, honela bukatu zuen bere bertso hau):

*zuek ezpazerate kontentu
errua ez daukat, ez, nik,
txistuak jo dituzute bainan
maite zaituztet oraindik!*

Egun hartatik gipuzkoarren eta begirapenik hoberenak irabazi zituen Xalbadorrek. Orain, Xalbador bezala ezagutzen genuen Fernando Aire gizon maitagarri hura hitzeaz gipuzkoar jator askok izan dute egun hura beren oroipenean. Geroztik alde hontako herririk gehienetan entzun bait da Baxenabarkoaren abotsa.

Goian bego, fede sendo baten jabe zen Xalbador handia.

Odolaren mintzoa, hala du Xalbadorren liburuak izentzat. Bere gogoetazko, bertso hautatuak biltzen bai ditu liburu hontan. Orotarik

bada. Baina batez ere, liburuaren bukaeraz jartzen du azken agurrezko bertsoan ziguna:

*zortaka ixurtzerat hor baitut utzia
herri huni diotan maitasun guzia.*

Behar bada, bigarren titulutzat ongi zetorkion "Xalbadorren testamentua", Txirritak bera bizi zen artean argitaratu zuen liburu bakarri jarri zionaren araura. Egilearen sentipen eta pentsameneren bidez, bada hor zernahitarik; ezta bertso liburu soil bat.

Emil Larrereren aintzin solas eder bat du ataritzat. Hitzaurregile honek, "egun oso batez irentsi baidut liburu hau, batean irakurriz eta bestean kantatuz", dio. Nik ere ezin izan dut eskutik utz liburuaren azkena jo arte.

Larrek aztertzen du liburuaren funtsa. Bi zatitan adiarazten digu egilearen bihotz kezkatia eta hari arantzapetik sortzen zaizkion loreak. Etxea eta familia, lana eta nekea, adiskideak, euskara eta herria, Jainkoa eta fedea nola diren Xalbadorren baitan; eta bere artegintzan, gogoetalarari indartsua, poeta edo olerkari seriosa eta irripar eragilea. Hoiiek ziren Xalbador bertsolariaren neurri oparotsuak. Ber berak Mikel Monako zenari jarritako bertsoak oroitarazten digu bere buru-bihotzen neurria eta beragatik esan genezake:

*Penetan da etxea, penetan auzoa,
horiekin batean herri bat osoa;
gizon baten galtzea ez baita goxoa,
guziz, gizona baten zu bezalakoa.*

Odolaren mintzoa deritzan honek bertsolaritzako liburu guzien markak bete ditu. Bertsolari liburuak, gehienetan, erajakineko irakurlegoa izanen dute, bertsozaleen artekoa; baina Xalbadorren liburuarekin ezta holakorik gertatuko. Hain da aberatsa, bai gaiez eta bai eraz. Herri poesiaren arte aldetik bada zer irakur eta zer ikas. Edozein irakurlentzako aspertu ezinezko liburu da. Gainera, liburuaren haseran, lehen 32 orrialdeak hizlauritu eta Xalbadorrek honetan ere bere dohainak erakusten dizkigu. Orrialde hauetan bere gaztaroko zaletasunak eta bertsolaritza adiarazten dizkigu, launez ere oroituz.

Bertsolaritzaz, lehenago Manuel Lekuonak eskani zigun estudio sakon bat, arte eta teknikaren alderdiak ongi aztertzen dituena, eta historiak ere baditugu A. Zabalak eta S. Onaindiak eginak, baina bertsolariak bere ekintza bere barnetik ikusirik falta zitzaigun eta hau

Xalbadorren liburuak betetzen digu; behinik behin bere ikusmoldetik erakusten diguna.

Xalbadorrek gaztetatik zuen kanturako zaletasuna eta gaztetxo zelarik ohartu zen larradietan zituen artzain lagunegandik euskaldunen kantuz. Beraz, euskal kantategia ezagutuaz jo zuen bertsolaritzara. Bertsolari izateko: "Nehork ez lezake sinets eni segurik zenbat gusta zautan", esango digu. Luzaz entseatzuz, bere baitan ari eta ari burutzen joan zen:

*Miatu behar laike ahal bezain barna,
lur hoherenak ere baitu bere lana.*

Bertsolari zaharragoengandik jaso zituen erakutsietan, batek esan omen zion, "hobe zela poto egitea, ezen ez arrazoin txar bat ematea bertsuaren bururatzeagatik".

Bertsolari ofizioa hartzearen nekeaz ere mintzatuko zaigu. Era berean ofizioa hartzetik irudimenaren bizkortzeaz. Bazekin bertsolaritza ez zela bere etxaldearen onurakor, baita ere osasunaren kalterako, baina hogeitaz urtez laburtuko bazuen ere bere bizia, bere bizirik puxka bat gure herri maitearentzat emateaz konformatzen zen. Honen negatik, holako gizon bategandik ez zen harrizkoa honako ateraldi hau:

*Nihori nehoiz ezin dut gorde
ene aurpegi iluna,
gorputza latza badaukat ere
bihotza daukat biguna.*

Neurri eta pundueri garrantzi gehiegi ez ote zion ematen, batek galde egin zionean, hara zer erantzun zion: "arrazoinamendu txar bat ongi rimaturik, pertsuago da, arrazoinamendu on bat gaizki rimaturik baino. Irinik hoberenarekin egin orea ere ez da ogi, labeaz axala egin artean". Baina, hori bai, puntu pobreak salatuko ditu, atzizki soilez edo azken silaba hutsei gaizki osatuak. Bertsu idazteaz ere gauza jakingarririk adiaraziko digu. Eta liburu hontako gehienak idatziak dira. Poema handi bat osatzen dutenak, gurasoengandik hasi, sortetxeari, herriari, artzaintzako ogibideari, amodioari, laguneri eta abar, hola jarraituko du liburu mardularen orrialdeak zehar.

Bertso biribilak, mami eta azalez ondo hornituak.

Gipuzkoaz ere asko oroitzen da. Euskaldun deserrituak, ez Espainiak eta ez Frantsiak beren estadupeko lurretan hartzerik nahi ez

zituztenak bere etxean hartuko zituela esan zuenetik zenbait eragozpen izan zuen mugazemendik, eta Galarretako frontoian bertsoetan jardutzea debekatu ziotelako, bere sentipenak agertzen ditu 267. orrialdetik, baina probintzia honi zion maitasuna argi ta garbi erakusten digu 313. orrialdetik.

Hizkuntzagatik esaten dituenegatik zer esan? Xalbadorri ere ongi sufriarazi zion gure egoerak, balta ere salatu mintzaira uzten duten anaiak:

*Badakit askoz ere nukela hobea
nehoiz ez agertu ene dolorea;
odolaren mintzoa eduki gordea
nahiko nuke, bainan ezin dut ordea.*

*Hil hobi huntan noizbait norbait balabila.
zure izaitearen herrestoen bila,
lurpetik entzunen du deihadar bipila:
Hemen dago ama bat bere hurrek hilal*

Fede sendo baten jabe zenez, moralaren alderdiak eliz dotrinan edo Bibliako adibidez epaituz ballatzen da. Hontan, bere iritziak, inguru beretik agertzen ditu, eta beti bertsoaren ederra ondo eramanez. Bertsoegintzaren tresna nagusia hizkuntza zuenez ez da batere harritzekoa bere hizkuntzaganako maitasun hori:

*Anai-arrebak. entzun ene aho-hotsa:
izaite bat ez daike hezur hutsez osa;
herria da gorputza, hizkuntza bihotza;
bertzetik berextean bitarik bakotxa.
izaite horrendako segurra hil hotza.*

JUAN SAN MARTIN
1976, 1-6, 7-13.

ANTONIO ARRUE

Uste gabeko berri beltz bat izan genuen 1976ko azaroaren 16an Antonio Arrue euskaltzaina eta *EGAN* aldizkari honen zuzendarietako bat eta kolaboratzailearen heriotzaz.

Igazko urtetik makalik zebilen, baina bere makaltasunez ere Euskaltzaindiko batzar guzietara agertzen zen eta, elkargoaren Gipuzkoako batzordeko buru bezala, azken ordura arte bete izan zituen bere eginkizun guziak eta inork ez genuen espero holako nahigabe beltzik.

Jaun honen lehen ekintzak aldetikakoak izan ziren, duela berrogeitamar urte ingurutik. Errepublika garaian Gipuzkoako Comunion Tradicionalista zeritzan karlisten alderdiko idazkari izan zen. Alderdi honen langile kartsua ez ezik hautezkundeetan hizlari bezala aritu zen, eta denbora haietan karlisten gogoak berbizteaz asko zor zaio.

Gerrate garaian bertan errege karlistaren alde jokatu zuen, gu duaren agintaritzak bere eskuetara eraman nahirik eta alderdien batasunaren dekretoa eman zutenean desterrua izan zuen. Pasarte hau beti kontatzeko izaten zuen gure euskaltzainkideak, bere idealetan zintzo jokatzearen adibidez. 1967an, Gipuzkoako familien aldetik Gorteetako diputadutza hartu arte apenaz izan zuen politikazko kargu garrantzitsurik.

Bere ogibidez lege-gizona zen. Lekarotzen egin zituen lehen ikasaldiak eta ikasketa nagusiak Oviedo-ko Unibertsitatean. 1932an hasi zen "La Constancia" egunkarian euskaraz idazten. Garai haietan bere hitzaldirik gehienak ere euskaraz izaten ziren. 1954an euskaltzain izendatua izan zen eta geroztik lan asko egingo du Euskaltzaindiaren inguruan. Gainera, baita ere, Julio Urkijo Mintegiko zuzendaritzakoa zen bere sorrera sorreratik.

Gerraondoko bertsolaritza txapelketak antolatzen ere asko lagundu zuen. Batez ere, baimen asko berari esker lortu izan ziren eta gure artean euskararen aurreragintza lanetatik sortzen ziren oztopo

eta larrialdietan ere makina bat aldiz lagundu zigun. Encomienda al Mérito Civil delakoaren jabe zen. Hoiegatik eta batez ere bere politikaren egoeragatik itzal handia zuen eta itzal horren babesera jotzen genuen, jakin jakinean laguntzarik ez zigula ukatuko. Bestalde, bere presentziak, euskara abertzale alderdi batzuen gauza soila ez zela erakusten zuen herriaren aurrean. Hizkuntza, arbasoegandik jabetu garen hizkuntza, herriarena bait da eta ez politikariena. Euskara ez da politikan negoziatzeko gauza bat, ez. Baina, bereiztu behar ditugu euskararen etsai daudenek, zeren hauek herriaren etsai bait daude.

Asteasun sortua, 1903an, baina aspaldiko urteetan Donostian bizi zen.

Idazle bezala, bere idatzi guziak bilduko baginuzke, uste baino naragoa agertuko litzaiguke. *EGAN*, *Euskera*, *El Fuerista*, *Zeruko Argia*, eta abar, ehundakak artikulua eta saiok idatzi ditu. Baita ere, euskal idazle eta euskaldungoan aritu ziren pertsonaje askori buruzko bio-bibliografia erazko hitzaldiak eman izan ditu. Hitzaldi hoiak idatzirik eramaten zituenez aipatu ditugun aldizkarietan argitaratuak daude. Hoietarik, une honetan gogoratzen garenak: Asteasuko Agirre, Gerriko, L. L. Bonaparte Printzea, Mogel (Peru Abarka liburuaren hitzaurrea), Azkue, Urruzuno, Loramendi eta abar.

Gerraondoko poesia berriaren hasierak ezagutzeko oso lan ederra da erdaraz idatzi zuen saiera bat, "Cuatro poetas vascos actuales", hitzaldiz emana eta gero Euskaltzaindiaren *Euskera* aldizkarian argitaratua.

Erderaz emandakoetarik beste hauek ere argitaratuak dira: "San Sebastián y la Real Compañía Guipuzcoana de Caracas" eta "El bertsolari Bordel en el castillo donostiarra".

Baina euskararen arloan egin duen lanik bereziena gastronomiazkoa izan da noski. Euskal Literaturan, nik dakidanik, hiru liburu soilik idatzi dira janaritzaz. Antonio Arruek, 1954tik hil arte *EGAN* aldizkariako zenbaki guzietan sail oso bat izan du "Jan-edanak" izenez. Grazia handiko idazkera zuen eta umore onik ezta falta janedaneko kontu hoietan. Bere lanok bilduko balira gastronomiazko liburu eder bat osatuko genuke, eta merezi du, zeren euskaraz ez baita gehiegi landu holako gaia. Sociedad Gastronómica Vasca delako elkartearen ere bazkide zen eta bertako boletinean ere baditu zenbait lan. Baina denen gainez, gai hontaz eman duen lanik aberatsena

EGAN aldizkarikoa izan da. Bertatik hartutako atal bat argitaratu genuen Hegatsez deritzan hiz-lauzko bilduman, Alejandrorekin elkarrizketan izenekoa, eta geuk dakigu zer harrera ona izan zuen irakurleen artean.

Euskaltzaindiaren nortasuna lortzeko lanetan ere gogoz jardun zen. Lehen lehendik izan zuen gogoko. Lehen jardun haiekin lortu ez bazen ere, geroke egoera hobea go batetik etorri bazen ere, hastapenetako haziari esker lortu zen. Ordura arte gure ekintzeta aurkitzen genituen loturak bertan behera utzi ziren, lanerako aukera hobea lortzeko.

G.B. Gure adiskide eta lankide bikaina.

JUAN SAN MARTIN
1976, 1-6, 15-17.

SALBATORE MITXELENA, ABERRI-MINAK ERAGINDAKO POETA

*Zein ederra dan
olerkaritza
bihotzak min duanean!*

Aitortu zuen Salvatore Mitxelena zenak bere poema batean. Zerk mintzen zuen? Sukarrezko kristau fedea eta aberriak mintzen zuela esango genuke.

Bere gaztaroko giroak eman zion gogoetarik aski hitzezko arte-gintzara eramateko. Gudu izigarri baten ondorea eta bere herriaren galzoriak eskaini zizkion gaiak, baina baita ere fedez larri-mindurik aurkitzeak.

Bere poemak epikoak dira gehienbat, baina lirikaz ongi jantzirik. Bertso egituretan herriz euskal kanta zaharren eta bertsoaritzaren estiloak erabili zituen, baina baita ere bertso librea, ritmoz hornitua.

Gerrak haustutako zaborretatik nekeza zitzaion lirika herri bat sortzea. Inguruan aurkitu zuen egoera latzak minberaturik eta gogoia jaso nahirik eta jaso ezinezko poesietan abiatu zen. Errealismu latz batek bihotz mindurik eta ideal bati begira. Ideal hau, fedea eta Euskal Herria. Eta, hemendik, garai hartan ezin zen atera oinazezkoa ez zenik.

Baina, oinazezko egunok, bere gogorako, bazuten gorde-leku bat: Arantzazuko Amaren itzalpea.

Hortatik sortu ziren "Arantzazu, euskal poema" (1949) liburutik hasi eta "Ama-Semeak Arantzazuko kondairan" eta "20 Kanta Arantzazuko"

Arantzaz abarotzat hartze hau, L. Villasantek dionez, Montserrateko Virolairen bertso hura ezagutu gabe izan behar zuen:

*Amb vostre nom comença nostra historia.
i es Montserrat el nostre Sinai.*

Zure izenarekin hasten da gure historia, eta Montserrat da gure Sinai.

Arantzazuko kondairen poemok izan bai ziren Salvatore zenaren lehen lanak, lehen aberriminak. Sufrikario baten aterpe Arantzazu zelarik. "Euskal-Fedea, beratan, bidazti, aldapa-gora, nora datorren jakiteke". Bere ikuspegitik eta bere gaztaro hartan hala ikusten zuen:

*Zuk zer dezu. Arantzazul
ames-kabi. erti-leku?...
Euskalerrria oso-osorik
kantari djoakizu.*

Aztertzekoa litzake orduko giroa, Salvatore zenak hala ikusi zuena; herri baten hil nahieza. Zapaldurik ere bizitzaz iraun nahirik, baina izu eta ezin aurrerapiderik aurkitu, eta ezin honek bultzatu zuen (hala deritzat) herria bera Arantzazun babes bila. Ahalmenik ez zutenek ere zerbait nahi; nahi baina ezin. Aldi ilun hura ezagutu zuen gure poetak, bere obrak hala jasoa duenez. Honegatik aitortu zuen: "honako poema hau ez dala iñorena, ez nerea. Baizik Herriarena!".

Bere garaiko gizonarentzat kantatzen duen poetak, betiko gizonarentzat kantatzen du. Giza esistentzia ez baita belaunaldi soil bate-na, baizik trazendentziarena, ororena, betikoa eta toki guzietakoa.

Honegatik, lan ederra egin digute bere obra guzia bi liburutan jaso dutenek. Lehen tomoa datorren ostiralean aurkeztekotan dira, Donostian bertan. Aste oroz, frantziskotarrak eratuko dituzten kultur ekintzaren artean, gaur arratsaldeko 7retan izango da lehen mahai-ingurua eta etzi bigarrena, Salvatore Mitxelena pertsona eta idazle bezala adiaraziz. Behar beharrezkoa genuen hau, zeren aspaldi ezkutuegi gelditua zen euskal literaturarentzat hain garrantzitsua den autorea hau, batez ere gerraondoko lehen ekintzaren eragile eta egilerik aipagarriena zenez gero.

Aldi haretan, gure poeta hau, ohartua zen transizioko poemagintzaz ari zela, bilaketa aldia zela. Honegatik beronegatik hartu zuen herritar estiloa, bertsolari nahiz koblakari eskola zaharretatikoa, lokarturik zegoen herriaren iratzartzerako hain beharrezkoa. Hala ikusi bai zuen "Herri dago guruzbidean", nahi eta ezinarekin borrokan. Urte ilunak haiek, aterpe edo babes leku bat nahirik eta herria izuaren

isilean. Dena zen eremu, eta eremuaren erditik Salbatoreren oihartzuna jaiki zen: "Aberriak min dit".

Beretzat, "Euskalerra lehenago, barruko edozein alderdi baino". Gaur ere oraindik zer lezio ederra gure ikasbiderako.

Sentipen hoiगतिक hartu zuen Unamunoren esaldi hura "Erri bat guruzbidean" antzekirako: "Un miserere cantado en común por una muchedumbre azotada del destino vale tanto como una filosofía". Bizitzaren sentipen trajikotik hartua dela ohartuko gara.

1954. urtean Eibarren Mixio bat eman zuen E. Agirretxekin batean. Ohiturarik ez zuen asko han izan zen San Andresko parrokian. Asis-koak berak ere ez dakit eibartar gehiago bildu ahal izango zuen, baina bai badakit han zen pizti bat ez zuela baretu, eta han joan zen Donostiako agintariengana salatari. Geroztik apenaz uzten zuten baketan eta asperturik joan zen Ameriketara mixiolari.

Bihotza hemen zuen batentzat ez zen aukerarik hoberena:

*Lur ezaguna utzirik
banoazu iraduz,
Zurekin bat eginda
nik atsedean, Jesus!*

Herbesteratzean argitaratu zituen "Euzko-gogoa"n "Erri bat guruzbidean" eta "Bizi nahi" (1955) poemak, lehenago idatziak non-bait, Bizkaiko guduaren poema epikoak, biziak, eta biziak baina minak. Poema bizkorra eta eraginkorra. Gure artean egin den epikarik gailenenetako bat. Orduan ez zen zabalkundea eratzeko biderik. Ez zen ahal. Eta bere poemaren mensajeak etzuen izan hedakunderik, beste olerkari guti batzuen baitan baizik. Baina, Arantzazun han utzi zuen eskola: bere lagun Alustiza "Aztiri", bere ikasle ziren B. Gandiaga eta A. Bilbao. Horrela, Joxe Azurmendira arte kate bat luzatuaz, eta beren frutuak poeta berri askoren emaitzetan. Salbatore gabe oso nekez edo hain aberats izango ez zena, noski.

"Unamuno ta abendats" (1958), saiaera liburua, bere azken lana, aurretikoekin lotura gabekoak itxuraz, baina funtsean honek ere zer ikusi handia du, bere barne prolematikaren eboluzioa aurkitzen delarik. Lan hau, lehen aldiz, bertsoz idatzia zuen, bertso librez gehiena, eta argitaratze orduan, zenbaiten eskariz, hitz-lauz jarri zuen, irakurgai errazagotzat. Zaitegin eskutik ezagutu nuen bertsozko hura, "Unamuno ta gu" zeritzana, eta unkiarriagoa iduritu zitzaidan.

Bere taxura "Unamuno ta Abendats"en azken orrietan aurkitu genezake.

1970ean Jakin sortak elkar-lanean egindako liburu bat eskaini zigan, Salvatore Mitxelenaren bizitza eta lanak estudiatzen zituena, baina bere lan batzuk oraindik argitaratu gabeak zeuden eta beste batzuk aldizkarietan sakabanaturik. Poeta ezagutzeko, honegatik genduen hain premiagarria lan guzien bilduma han. Are gehiago, poeta bera aldi berezi baten seme eta adiarazle zen aldetik. Zarautzen sortua zen, 1919an. Arantzazu, Forua eta Oliten egin zituen ikasketak. 1954. urtearen azkenaldera joan zen Ameriketara eta handik Suiza-ra 1962an eta hiru urte barru hil zen La Chaux-de-Fonds hirian 46 urte zituela. Herriari herritar eskolatik hain bikain kantatzen jakin zuen poeta bihotz mindua, egoera latzean, etsi ezinez, atsekabeturik joan zitzaigun. "Aberriak min dit eta miñak olerki...". Eta maitasunez sufritu eragin zion herritik urruti, arrotzen lur hotzetan aurkitu zuen heriotzak. Gure literaturan ongi merezia du ohorezko lekua.

*Urretxindor kantaria
baso-basoan gordia
gau eta egun ospatzen da ari
maiteño ta habia.*

* * *

Salvatore Mitxelenaren Idazlan guztiak, I. K. Iturria eta J. A. Gandarias-ek argitaratua kalean dugu. Lehen tomo honetan Olerki umezurtzak, Aberriak min dit eta miñak olerki, 1936 ezkeror, Guruzbidea, Euskal samiñaren guruzbidea, Arraun eta amets, Erri bat guruzbidean, Confixus eta Unamuno ta Abendats direlako lanak biltzen ditu. Hain ongi burututako liburu honek J. A. Gandariasen Aintzin solasez hasi eta J. Azurmendiren Salvatore Mitxelena bere lekuratzeko saiera labur eta A. Agirretxeren Mitxelenarekin pentsaketan, zein baino zein saiaera politagoak dira.

Idazlan guztiak deritzan liburu hau kontuan hartu gabe oso nekeza litzaziguke gerra osteko euskal literaturaren ekintza beraren has-tapenak ezagutzea.

OTSALAR
1977, 1-6, 95-99.

ZUBEROA GAINDI

"Orhiko xoriak Orhin du laketzen", hala dio Zuberoako esan zaharrak, eta ezta harritzekoa ziberotarrei beren lurraldea laket izatea; ez bai du Euskal-Herri guziak Zuberoan pareko den tokirik, lurrez ez ezik herriz eta herritarrez. Hala ere, Zuberoa hustutzen ari da. Barkoxeko Etxahun zenak Ofizialenak deitu khantorian esanak irau-nen bai du oraindik orain ere:

*Oi laborari gaxua,
Hihaurek jaten arthua;
Ogi eta ardu geñhatzen auherren asetzekua,
Halere haiñ haie maite nula artzañak otsua.*

Koblakariaren mende bat geroztik ere egoera berak irau-nen du eta xiberotarrek ez dute beren herrian bizibiderik. Etxez kanpotik behar diren osagarriak oso nekezak dira lortzen; eta Zuberoak behar dituen erremedioak Paris-ko gobernuaren esku daude.

Aspaldi delarik, Zuberoara osteraren bat egin gabe urterik iga-rotzen ez bazait ere, aurtengo udaran bi egun t'erdi eman dituk Zuberoan, oroitza zaharrak berrituaz eta egungo egoeraz jabetuaz. Pirineoetatik itzultzean, Olorondik sartu nintzen Pettarra haranera. Oloron-go erromanikoaren arte aberatsa ikusiagatik, hala ere, bikaina iduritu zitzaidan Ospitale-piako San Bladi. Izan ere hain da berezia erromes ospitalaren eliza erromaniko hau, griego gurutzazko zoladu-ra eta sabai-uztaiak zortzi puntazko izarra osatzen dutela, Nafarroako Torres del Río-koaren erara. Bere tipian ere badu bizantino arkitektu-raren joera.

Ospitale-piatik aisa ginen Maulen, Zuberoako hiriburuan. Baina, Zuberoak, Pettarra baino atseginagoa du Basaburua eta harat abiatu ginen, baina ez lehenago Arballa handiko Gotañen geldiune bat egin gabe. Bertako elizak, Zuberoako beste anitzek bezala, dorre hiru-koitza du. Hauetako gehienak Pizkunde garaian eraikiak dira eta teilatuak ere, bertako etxeak bezala, gailur zutinez eginak dituzte,

Pirineoak barna aurkitzen diren bezala, elurrak errazago eroritzeko eginak.

Gero, Zalgize igaroaz, Irurin sartzen gare Basaburuako Ibai-exker eskualdean. Barkoxetik igarotzean lehengo Etxahunekin gogoratzen garen bezala, Irurin ere Etxahun koblakaria (Piarres Bordaçarre) datorrigu oroimenera. Eta, Atharratzera heltzeaz, abuztuaren 26an, ostiralez, azokarekin aurkitu ginen. Euria gora-behera, jendetza handia bildu zen salerosketaren inguruan eta egun euskara da nagusi. Gu ere, jendartean nahasirik, entzumena eta ikusmena adi, harat-hunat genbiltzan. Plazako liburu-denda batean euskarazko sail bat ageri zen eta hara nondik izan nuen *Etxahun Iruri Khantan* liburu ederra erosteko aukera. Txomin Peillen idazlea ere egun han zela jakin genuen baina ez ginen elkar ikusi.

Xuberotar euskalkiaren doinua goxoa iduritzen zaigu. Ongi uleritzeko inoiz ez dugu izan eragozpenik, poliki mintzatzeko ohitura dutenez, konpreniarazitzeko eraz jarduten direnez. Gure eleagatik laster esaten ziguten: "manesa zira", baina ez arrotz. Non-nahiko euskaldun anaitzat hartzeko herri jatorra dugu Zuberoa.

Urteak dira xuberotarren artean holako egunak igaro nituela, eta iraganaren oroitzua datorkit bihotzaren alaigarri.

Urrengo egunean, Athereitik Ligi barna, Santa-Engraziko Kakueta heldu ginen. Inguru haiek ikusiaz, gure Unaik esaten zidan: Gipuzkoako parterik politenen bezalakoa edo politagoa da Zuberoa guzia. Hala da izan ere. Baina bertako jende atsegina lurraldea baino estimagarriago da. Non-nahi duzu adiskide bat laguntzeko gertu, eta arratseko azken orenetan amestu ezinezko kanta hunkigarriak entzuten dira edonon. Tristuraminez kutsaturik gehienetan, baina hala ere, nork lezakean hoién abotsez eta sentipenez barneminak haizetara ager.

Ibar-exker garaian Kakuetak haitzartea ibili ginen, euria ziharduén arren, ibaia zehar, bidetxihurrez eta zubitxoak igaroaz, mendarte mehar haiek inoiz baino politagoak iduritu zaizkida, euria gora-behera, eta urak irtetzen duten haitzuloraino heldu ginen. Ur hauek Ernazko lepoan dagoen leza batetik lurpeko eremuetan aurkitzen den ibaiarenak dira. San Martingo Harriko leza edo Lepineaux leza (aurkitu zuenaren deituraz) bezala ezagunagoa da. Duela hamazazpi urte zortzi egunez ibili ginen leza horren barrutik Verna deritzan tokira arte. Orduko neurketetatik iriki zen Santa-Engaraziko Harphidiatik tu-

nela eta egunen batean turismorako eran jarriko den ustea dago, zeren hain ederra eta haundia bai da harpearen Verna delako para-jea.

Eguna bukatzeaz, Santa-Engrazia bisitatu ondorean, Montoritik zehar ginen, Aretatik (Biarno) Arlasen hegjetatik Ernazko lepotik Belaguara eta hemendik Izabara (Erronkari) jetsitzeko.

Urrengo egun batean Orhiko gailurrera heldu ginen: "Arranoak bortietan gora dabilta hegaletan..." kanta gure ezpainetan genuela. Gaur oraindik, oroitzapenok berritzean, hartuko nuke ofizioa Iratirat unai, baina... Zuberoatik hain urruti bizi beharraren damuan.

Euskal-Herrian ez da mendirik Orhik bezain bista ederrak dituenik. Ekialdera Pirineoko mendi katea, lehen partean Auñamendi eta Hiru Errege Mahaia direla; hegoaldera, Saraitzutik behera Nafarroako lurralde zabalak ageri dira; mendebaldera Iratiko ohianak eta Atlantika aldera eten gabeko mendi tipien kate luzea; ifarrera, azpikaldean eta hurbil, Larrañe, baserri txuriak mendi maldetan dituelarik, Beretretxan khantoriaren oroitzak dakarkigun Andozeko ibar luzea, Atharratze, Zuberoa oro, Garaziko Behorlegitik Biarnoko Aramitze aldera, gibelean Frantsiako zelai zabala agiri dela. Hain bakarti eta zut egotetik du Orhik ikuspegiak aukera hau, Pirineoko mendebaldetik bimita metroko mendietan lehena. Orhi eta Zuberoa, elkar txarmengarriago egiten duten parajeak dira.

Edozein euskaldunentzat interesgarria da Zuberoarekin harremana. Euskaldunok elkartzen gaituen sustraien erroak modako politikarien uste arinak baino sakonagoak dira. Eta han berau ondo konprenitzeko ere, euskaldunok, guk geuk, gure herri eta herritarrak hobeto ezagutu beharra dugu. Hontaz eskolatik ez bai ziguten ezer erakutsi.

Orotarik baztertua eta ahantzia, hala dugu Zuberoa:

*Mertxikaren loriaren ederra
Barnean du hezurra gogorra.
Maitatu dut izanen ez dudana
Horrek baitaut bihotzean pena*

Eta behar bada halako saminduraz sentitzen zaitut ene barnean hain zorabiagarri zeran Zuberoa.

OTSALAR
1977, 1-6, 99-102.

XVIII. MENDEKO GABON KANTAK EUSKAL LITERATURAN

Azken bolada honetan XVIII. mendeko Gabon kanta berriak aurkitu dira euskal literatura idatziaren aberasgarri. Bestalde, lehendik ezagutzen zirenetaz ere argitasun gehiago dugu, egin diren azterketari esker.

Guztiok dakigunez, Olentzarorenak izango ditugu Egoberrietako kantarik zaharrenak, jentil garaian errotzen direnezkerok. Baina euskal literatura idatzia, XVI eta XVII. mendeetan landu zen lfar Euskal-Herrian eta Gabon kantadun lehen liburua Joannes Etxeberrik 1630ean argitaratu zuen *Noelak* deritzana dugu, eta bertan jasorik daudenetako zenbait, oraindik orain ere, herriak ahoz aho ekarri ditu gure egunokarte. Egia esan, Noelak liburua zenbait aldiz argitaratua izan zen.

Mugazemendik, Hego Euskal-Herrian, eliz liburuxka bat edo beste utzirik, egiazko literatura ekintza ez zen hasi XVIII. mendera arte, eta lehen ekintza hontan aurkitzen dugun gairik bereziena Gabon kanta dira. Hauetako ezagunenak era berezian agertzeko eginak ziren gainera: antzerki publikoari adirazteko. Lehen lehena 1759an Arrasaten aurkeztua izan zen, esku-izkribu ber berak dionez. Gabonetako ikuskizun hau Pedro Inazio Barrutia Aramaioko seme eta Mondragoeko eskribau zenak idatzia. Erarik herrikoieneguz egin da, bere azken zati honetan ikus genezakeenez:

*Gaur dala Gabon gaba,
Gaur dala Gabon,
Gaur egiten jaku
Jangoikoa gizon.
Ots begi danbolinak,
Lutua ken bidi,
Fiesta degiogun
Infante oni.*

Zerureanik dator
Gure artera,
Erratuai bidia
Erakustera.
Emaitera dator
Milla barri on;
Gaur egiten jaku
Jangoikoa gizon.
Ezta besteren eske;
Biotzak bakarrik
Beretzat gura ditu,
Beste bagarik.
Kunplitu egiozu
laun oni naia;
Beroni sal erozuz
Biotz guztia,
Ordeaz bera zeuri
Dakizun emon;
Gaur egiten jaku
Jangoikoa gizon.

Koruaren azken kanta da hau, baina tarteka kopla zaharretan egindako bertsoak dira politenetakoak. Pertsonaje zelebrikerik ere bada bertan eta Grazioso deritzan batenak umore gardenez beterik daude, "Lian lan bere,..." errepikaz kantatzen dituenak batez ere.

Bizi bizia eta entretenigarria da antzerki hau, Belen Arrasatetik hurbil jartzen duelarik eta bertako herritarrek Jaiotzaren inguruan kantari direla, estanza politik anitz bada.

Franzisko Xabier Maria Munibek, Peñafloidako kondeak, Sor Luisa izenordetzat harturik argitaratu zuen 1762an, Azkoitian bertan, "Gabon sariak" izeneko antzirudia. Bere obra jakitunago batena da. Segidilla eta aria politak ditu, baina bertako koplak ez dira txarragoak. Egileak hitzaurrean agertzen duenez, Martin Beltz izeneko batek lagundu zion bere bertso gintzan. Barrutia baino gehiago lotzen da Bibliako pasarteeri, baina Mundragoekoak irudimen berezia nabari du.

Hara hemen Muniberen kopla jostiluetako baten zatia:

Ezagun du munduak
Jesus jaio dena;
Ain dago mudatua,
Ez dirudi lena;
Len guzia zan pena,
Negar, naigabeak,
Ta orain atsegiñ, gusto,
Algara, parreak.

Sor Luisaren izenpean nor gordetzen zenaren zalantzak gure egunok arte iraun dute. Jose Manterolak Munibe Peñafloidako kondearenak ziren ustea zuen, "El borracho burlado"ren egile berarena. Azkenik, J. I. Telletxea Idigoras-ek uxatu zituen azken zalantzak, Amigos del País-ko Boletinean eta *Papeles viejos* liburuan argitaratu zituen ageri zehatzekin.

Antzerki eraz agertzeko egindako bi lanok, Larramendi, Kardaberaz, Mendiburu eta Ubillos idazleen lanekin batean, Hego Euskal-Herriko literatura landuaren hastapenetakoak izan ziren.

Gabon kantetan lehenagokoak ditugu Gernikako De la Gandara deiturako batenak, Telletxea Idigoras berak Larramendiren paperetan aurkituak, eta geroago, osatuago eta zaharragoak J. A. Arana Martiak aurkitutako izkribuetakoak. Ikus, 1757ko kanta hauek "*Eusker*" aldizkarian argitaratuak (*Eusker*, XXI, 1976, 89/98 orrialdeetan). Guziak, zein baino zein politagoak, elkarrengandik aski bereziak dira.

Baina, bada besterik ere. Denok dakigu Hemeretzigarren mendearen lehen partean Bilbon bertan urtero Gabon kantak egiteko ohitura zela eta hoietako asko egin zituztela Bizenta Mogel eta Paulo Ulibarrik, honen gutunetan eta L. Akesolok egindako azterketetan ikus dezakegunez.

Haien biltze eta atontze lanak ere egiteko ditugu. Literatura alorrean ere, gogoia duenak badu non landu. Zeren biltze eta klasifikatze lan hori ere egin beharrezkoa bait da, eta hori egiten ez den artean euskal kulturarekin zordun izango gara, bai literaturaren mailan eta bai linguistikarenean.

Hamazortzigarren mende hartan, Gernikako De la Gandara-renak baino lehenagokoak dira Bilbon bertan San Franzisko komentuan kantatzeko eginak, 1755ean Fr. Martin Oarabeitiak, komentu hartako organista eta kapera maisu zenak musikaz jarriak. Euskaraz-

ko Gabon kanta haiek, behar bada, "villancico" bezala ezagutzen diren zaharrenak izango dira. Orri soil batean inprimatu ziren eta Juan Ramon Urkixok denbora asko ez dela birargitaratu du.

Ageri denez, garai haletan aski zabaldua zen Gabon kantak egiteko ohitura. Joannes Etxeberri Ziburukoaren ondorean, mugazemendik lehen lehena behar bada, ezagutzen ditugunetatik, Donostian bertan 1691an Nikolas Zubiak argitaratu zuen "Doctrina christiana" hartan jaso zirenak izanen dira noski. Zortzi bertso haietako estampa polit bat, hau da:

*Donzella eder batek
Belengo errian
Seña lesu Christo
Dauko sabelean.
Eguzki dibinala
Gaberdi batean
Etorri zan lurrera
Gizonen soñean.*

Eta artzainen elkarrizketa honekin bukatzen da:

*-Matxinikito!
-Zer diok, Txeru?
-Atzorik ona,
Ze barri dogu?
-Barri dogu ze
Angeru milla
Gure menditik
Igaro dira.*

OTSALAR
1977, 1-6, 102-106.

EGUZKIA GURTZEA

Eguzkia gurtzeko ohitura aintzin aintzinako denboretatik gure egunok arte iraun du euskaldunon artean. Arkeologia aldetik begiratuko bagenuke, gutien gutienez Neolitos garaitik datorkigu ohitura hau. Eguzkiak argia eta beroarekin bizitza ematen digu, eta natura hutsaren gora beherekin bilakatu zen aintzinako gizonak, eguzkia gurtzea gauzarik bidezkoena zela esango genuke.

Aintzinako euskaldunek bitan banatzen zuten urtea: Uda eta negua. Hola aitortzen zigun Azkue berak Euskalerrriaren Yakintzaren lehen tomoko 68. orrialdean. Eta, obra beraren 158/160 orrialdeetan aurkituko ditugu eguzki gurtzearen agiriak, goizean irteran edo naiz arratsalde ezkutatzean. Gorbea ostean gordetzean: "Gaur kontsolau nozu, eguzkia; biar bere etorri zakidaz kontsolau naitean". Edo beste honako hauek, Diman: "Eguzkia joan da bere amagana, biar etorriko da denbora ona bada"; era Azpilkuetan egunsentiz: "Ondo etorri, iduzki xuri".

Eguzkia, iduzkia, iruzkia,... ezagutzen da euskalkirik euskalki, baina bere sustrai zaharra Zuberoan oraindik erabiltzen duten "ekhia"n aurkituko dugu. Eta hontatik hartzen du bere izena hil honek ere, Ifarraldeko euskalki batzuetan, Ekaina. Eguzkia goren aurkitzen den hila. Eta hil honetan izango dira eguzki jaiak ospatzeak ere, Euskal-Herrian ez ezik mundu guzian ere zabaldua den ohitura.

Eguzki gurtze hoiak jentil otoitzak ziren noski, Luzaiden "atsuen otoitzak" eta "otoitz ttipiak" bezala ezagutzen direnak. Jose Maria Satrustegik jaso zituen hoietarik anitz eta Euskaltzaindiko sarrera hitzaldizat Luzaideko Otoitz ttipiak hartu zituen (ikus, "EGAN", 1964, 1-6 zenb., 19/30 orr.). "Herri bat zer den ongi ezagutzeko, zer izana den jakin behar litzake lehenik; edo nolakatu dugun denborarekin", esango digu Satrustegik bere hitzaldiaren haseran, eta adibide askoren berri agertu zigun, ber berak zuzenki jasoak. Kontatzaileetariko

batek honela aitortu zion: "Iruzkia ateratzian zeinatu eta esku-zabalarri musu emanez potta igortzen dakogu".

Aita Donostiak ere antzerako gaia erabili zuen 1956an Euskaltzaindiko solas-aldi batean, "Euskal-Erriko otoitzak" izenez (ikus, "EGAN", 1956, 2. zenb., 34/52 orr.). Bertan zionez, Zuberoan oraindik ere esaten omen da "Ekhi saildua".

Nafarroako Larraunen honako otoitz han aurkitu zuen:

*Agur, eguzki ederra,
jetxirik zerutik lurrera,
Illuna desterratza
Eta gu argitten paratza.*

Eta Luzaiden bertan esaldi polit honi atxeman zion Aita Donostiak: "O Iruzki saildua, emakiguzu illeko ta biziko argia". Lekeition, haurtxoei, San Juan goizean goiz jaikitzeke esaten omen zien: eguzkia dantzaz agertzen zelako. Eta Baxenabarreko Banka deritzan herri-oxoan jaso zuen otoitza ere oso polita da: "Adio Iguki saintua, bihar arte; bihar xauri (atoz) egun bezala".

J. M. Barandiaranen bilketetan beste argibide asko bilatu genezake gai honi buruz. Ikus bere Obras completas-en lehen tomoan 75, 271 eta 383. orrialdeetan. Lehen partean, Euskal-Herriko Mitologian eguzkiak duen hedadura agertuko digu. Deitu ere, "Eguzkibegi" eta "Jainkoaren begi" deitua da Ataunen eta Berastegin. Eta San Juan jaiekin duen loturaz zenbait argitasun ematen digu. Alpatutako obra hauen barnean dugu *La religion des anciens basques*, eta bertan ikusten denez, inoiz emakumezko amonaren izena hartzen du; Elosutik Plaentziara bitartean Muskurutzuko mendietan jaso zenez:

*Euzki amandria
Badoia amangana,
Biar etorriko da,
Denbora ona bada.*

"Amandria", ilargiari deitzea, maizago ezagutzen dena da. Lan berean eta erakutsi dugunaren ondorean agertzen den bezala:

*-Ilargi amandrea,
Zeruan ze berri?
-Zeruan berri onak
Orain eta beti.*

Ataunen eta Ormaiztegin haurrek esan ohi dutenez. Baina, ares-tian adiarazi dugunez, "Ilargi amandrea" renak oso zabalduak dira Euskal-Herri guzian.

Bietan argia da pertsona izena hartzen duena. Honegatik, Ondarruko kopia bat honela hasten da: "Zeu zara Santa Klara, euskeraz argia..." Eta Mañari partean esaten dutenez, eguzkiaren ama dela Andre Mari, izen honekin Ama Birjina adiaraziz. Baina behar bada, lehen lehenago, Andre Mari, mitologiako Marirekin nahastu zen, Nafarroa eta Gipuzkoako zenbait herritan agertzen den bezala (J. M. Barandiaran, *Obras completas*, I, 383/384 orr.). Eta inoiz santa eta bedeinkatua aurkituko dugu. Adibidez, Errigoitin esan ohi da: "Eguzki santu bedeinkatue, zoaz zeure amagana".

Erljio berriagoak zaharragoetarik beti hartzen dute zenbait ideia, gauza eta sineskera, eguzkia gurtze honetan ikus genezakean bezala, eta Ekaineko San Juan suak zaharrenetarikoak ditugu, gure egunotara arte iraun duenetarik behinik pehin.

JUAN SAN MARTIN
1977, 1-6, 151-153.

EUSKAL-LITERATURA BERE BARNETIK IKERTUAZ

Edonongo literaturak bere nortasunean heldutasun batera iristen denean bere barnetikako kritika saioak ditu agergarririk bereziak. Euskarazko aldizkarietan, zenbait libururen parteetan eta bereziki liburuen hitzaurreetan, maiz agertu dira euskal-literaturari buruzko barnetikako azterketak, baina liburu osoak hortaz argitaratzea oso berria zaigu.

"Literatura testuak aztertzea modan jarri dela gaur leku guztietan esan genezake. Azken urteotan hainbat liburu argitaratu dira gai hortaz. Baina ez dut uste bat ere argitaratu denik euskaraz." Hala dio Mikel Zaretek argitara berri duen *Euskal Literatura (Azterbideak, Aztergaiak, Azterketak)* liburuaaren sarreran. Baina liburu beraren bibliografia partea begiratzen badugu Azurmendiren *Zer dugu Orixeren kontra*. Begiarmenen *Sei idazle plazara*, elkar laneko *Xabier Lizardi* eta Sarasolaren *Txillardegi eta Saizarbitoriaren Nobelagintza* aipatzen dira behinik-pehin, maila bereko azterketak ez badira ere, ezin ukatu literatura azterketakoak ez direnik.

Egia esan, gure belaunaldi honetan era guzietako errebisioak gailentzen diren garaian literatura azterketak ere bere lekua izatea ezta batere harrizkeoa, mendearen seme garenez gero, ideiak eta balioak erroetaraino ikusmiratu nahi dira, eta Mitxelenak ongi zion bezala, kritika eta eraberritzea geuron kaltean izango badira ere, horiexen beharrea gaude.

Gure literatura bere barnetik erakutsiaz datozen liburu hoiak literaturagintzaren aro berri baten aurrean jartzen gaitu. Lanok, etorkizunean gidari izango ditugu, elkarri erakutsiaz maila hobe bateko egoera aurkitzera eramango gaituanez. Zeren, azken batean, aburua markatuko diskigute biderik zihurrenak.

Karlos Otegi, *Pertsonaia euskal nobelagintzan* deritzan liburuaaren sarrean honako uste han agertzen bai digu: "Baina, hauxe da

arazoa. Euskarak baduela bere literatura propioa, eta geuk, inork izatekotan, behar dugula aurkitu, aztertu, kritikoki jakina, eta ezagutzera eman, norabidetu eta landu.”

Honako aitopen honen ondotik, literaturaren saiaerazko liburu hauen hariaren berri soil soilik emango dut, barneragotik ezagutu nahi duen irakurlearen lagungarri. Hara hemen testo aztertzen agertu diren bost libururen berri:

Sei idazle plazara (1974) bi tomotan argitaratu zuen Jakin argitaldaria. Estrukturalismoaren teknika arabera Mitxelena, Aresti, Larresoro, Azurmendi, Garate eta Ansola euskal izkribatzaileen ideologiazko azterketak agertzen dituzten P. Iztueta eta J. Apalategik “Be-giarmen” en izenpean. 1975eko urriaren seian *Hoja del Lunes* honetan egin nion kritika aski luze bat. Nere ustez, oinarritzko huts bat du obra honek, alde aurretik baldintza estuegiak harturik hasia denez, baldintza horiek egiztatzeko garraiatzen ditu hainbeste material beste ikusmoldeetakoak bertan behera utziaz. Hala ere, langintzarako metodologia berri bat agertu zuen, lan ederrak burutzeko ahalmena idekiko zutena, eta neurri handi batean obra berak ere salatu genuena baino alde hobek gehiago ditu. Ikerketarako urrats handi bat izan zen.

Txillardegi eta Saizarbitoriaren nobelagintza (1975), Kriseluk argitaratua, biziki ona da. Gure belaunaldi hontan euskaraz idatzi diren eleberririk hoberenak aztertzen ditu, Txillardegi eta Saizarbitoriaren eleberrien analisi serioak eginaz, irakurlearentzat gidari izango direnak. Kritika ondo burutzeaz gainera irakurgai atsegina iduritu zitzaidan I. Sarasolaren liburu han.

Zer dugu Orixeren kontra (1976), Jakinek argitaratua. Joxe Azurmendiren liburu han, bere gehienak bezala, ez da lotzen holako teknika zehatz bati metodologiaren aldetik, baina bere ideien jario aspergaitzak filosofia mugetatik ari den saio sakona burutzen du. Orixekin, inoiz gehienok pasatu ginen behar zen neurritik harat eta Azurmendik arrazoiz botatzen digu aurpegira. Gazteluk ongi zion bezala “behar bada euskal idazle batek luze-zabalean eta kalidatean inoiz utzi duen larriena, handi-haundizka harturik”. Egia esan, Orixe bere handitasunean onartzeak ez dakar kalterik, kalteak idoloetat hartzetik datorzke. Idolo bati ahoa zabalik begira egoteaz lo hartzeko arriskua duenez eta elkar lanean aritzeak dinamika pizgarria. Baina, gaur, zorionez, ez daukagu holako arriskurik, zeren goi mailetan ari diren idazleen artekoak anitz ditugunez.

Pertsonaia euskal nobelagintzan (1976) delako saiaera ederra Gerok argitaratua da. Karlos Otegi du egile, baina ulertzen ez duguna zera da, euskaratzaile hala zuzentzaile, zertan parte hartu duen Dionisio Amundarainek. Holako lan bat hain ondo burutzeko behar beharrezkoa zuen egileak euskaraz ondo jakin beharra, erabili dituen lanok euskaraz daudenez. Dena dela, bertako saiaeraren aburuak dira interesatzen zaizkigunak. Eleberriaren muina ondo ezagutzeko beharrezkoa zaigu bertan erabiltzen diren pertsonajeak ongi ezagutzeta eta hontara garamaz liburuaren egileak. Txomin Agirreren *Garoa*, Txillardegiren *Leturiaren egunkari ezkutua*, A. Lertxundiren *Ajea du Urturik* era M. Ugaldereen *Itsasoa ur-bazter luzea da* eleberrietako pertsonaietan oinarritzen da egilea, etxeko eta kanpoko anitz obrakin konparaketak eginaz.

Azkenik, *Euskal Literatura*, aurten Leopoldo Zugazak argitaratua. Mikel Zarateren liburu hauen xedea zenbait idazkariren lanetan aurkitzen diren une ilunak, sinbolojak, ideiak eta gainerako moldeak aztertzea da, nahiz hizlauruzkoak edo nahiz hizneurtuzkoak. Txomin Agirre, Otsalar, J. Azurmendi, Lauaxeta, J. M. Lekuona, R. Bustintza, Gandiaga, Intxausti, Aresti, X. Garmendia eta Saizarbitoriaren zenbait lanetan oinarriturik literatura irakurketarako lagungarri izan nahi du. Idazle bakoitzaren ingurua eta iturriak ere adiarazten ditu. Humorea ere humore sendoa du, Ortega y Gasset eta Unamunok beren marfilezko dorretik gure hizkuntzaren ezerreza era hiletak kontatu bazituzten ere, Lizardi eta Mikel Zaratek bertsoz kantatuko digute, handi mandirik gabe, gure hizkuntza apal honen gogo berria eta noranahikotasuna.

Obra hoiak erakusten digute lanaren jardunez zertarako garan eta zertarako gauza den euskarazko literatura bera.

Azken bi liburuen egitura eta beren bibliografia iturriak bide berri bat markatzen digute ikerketazko saioretan laguntzeko. Bost obrok gure belaunaldi hontako literatura balioen lekuko dira. Gure literaturaz arduratzen diren guziek irakurri beharrezkoak eta, behar bada, euskal alfabetatzeetan irakurgaitzat erabili beharrezkoak, zeren literatura erakutsiaz autoreak beren ilunbeetako agernahietara arte funtsez konprenitu ahal izateko erak ere agertzen bai dituzte. Eta horiek ezagutzeaz zernahitariko literaturak hobeto irentsiko bide baita.

JUAN SAN MARTIN
1977, 1-6, 154-163.

EUSKAL LITERATURAREN BESTE AURPEGIAZ

I.- Usteak uste direnean

Usteak uste direnean azterketa eskatzen dute, eta urrutitik eta era askotara badatoz argi asko eskatzen dute egiaren barnea ikus ahal izateko. Epe labur batean bi aldiz aurkitu dut noizpehinka erabiltzen den leloa eta argi zirriztu bat eman nahi nuke honako uste hauei buruz: Euskara garbia eta euskaldunaren mututasuna.

1977ko apirilaren 13ko "El Diario Vasco"n Elías Ruiz Ceberio-ren artikulu polit bat irakurri nuen G. Arestiren poesiari buruz. Euskal literaturara gordinkeriak agertzeaz ari zen eta aspaldiko uste haiek berritzen edo gogoratzen zituen. Menéndez y Pelayo-k Samaniegori buruz esan zuen "la honrada poesía vascongada" Ruiz Ceberio berberak baztertzen du geroztik argitaratu ziren maitasun alegiak lekuko. Migel Unamunok ere, uste berekoa zenez, euskal poesiak beharrezko zuela "deshonrarla". Esan nahi horrekin hizkuntza gordina erabiltzea adiarazi nahi zen, naiz birao edo naiz lizun, erabili beharrek bala eskatzen baldin bazuen.

Egia da Arestik hizkuntza gordina erabili zuela, gordinaren beldurrik gabea, eta indartsu erabili ere. Baina baita ere egia da Unamunok, inoiz euskaraz idatzi bazuen ere, ez Etxepare eta ez Etxahun ez zituela irakurri, ez eta ere herri literatura ezagutu. Bestela ezinezkoa zuen esaldi hoiak beste gabe erabiltzea.

Bestalde, "resucitar un megaterio es más fácil que resucitar el vascuence como lengua histórica y de cultura" esateaz, nonbait ahaztu zen latinari gertatuaz eta joan zen mendearen erdialdetik Europan hainbeste hizkuntzak izan zuten berpizkundeaz.

Baina harrigarriagorik eta ilunagorik bada. Tirso de Molina-k idatzi zuen gure leporako: "Corto en palabras, pero en obras largo", gure

esaera zaharraren kideko, "hitzetan lander, eginetan eder". Baina esan nahi honen alderdiak ez dira berdinak.

Mikel Zaratek berriro gogoratu digu Euskal Literatura deritzan liburuaren hitzaurrean Ortega y Gasset-ek Zubiaurretarrei buruz ari zelarik esan zuena: "Ser vasco es, sin más, una renuncia nativa a la expresión verbal". Mikel Zarate, Lizardi, Mitxelena, Intxausti,... eta bere bertsoak lagun, esaldi hoién aurrez aurre jartzen da edo jarritzen da.

Guk, gure apaltasunetik, badakigu gizon handiak ere epelkeriak eta txotxolokeriak esaten dituztela. Gainera, azkoz txarragoak dira aintzinagoko esaldi ilunagoetatik nolabait hartuak baldin badira. Nola-bait hartuak diot, zeren aintzinagokoak nola eta zergatik erabili zuten aztertu beharra bai dugu.

Cervantes-ek, esate baterako, Antso Azpeitiakoa (Quij., I, 8) jartzen du gaztelera traketsez mintzatzen, bere humorea galdu gabe, antzerako humorez agertuko du La Gran Sultana-n ere Cadí Madrigal-en arteko elkarrizketa, honek, adarrajoaz, elefante bati euskaraz ("En vizcaína") irakasten ari zela, esaten dionean. Baina Cervantes gizon zuurra zen eta ez zen lerratuko beste jakitun horiek bezala. Bazekien hizkuntza bakoitzak zer balio zuen mintzatzen zen herriarentzat. Eta, bere denboran, kultur mailetan oraindik hain beharrezko uste zen latin giroari erantzunez esango du: "Homero no escribió en latín, porque era griego; ni Virgilio escribió en griego, porque era latino. En resolución: todos los poetas antiguos escribieron en la lengua que mamaron en la leche, y no fueron a buscar las extranjeras para declarar la alteza de sus conceptos; y siendo esto así, razón sería se extendiese esta costumbre por todas las naciones, y que no se desestimase el poeta alemán porque escribe en su lengua, ni el castellano, ni aun el vizcaíno que escribe en la suya" (Quij., II, 16).

Orotarik esana da gure hizkuntzaren inguruan, bai ohorez eta bai irainez. Baina herriaren nortasunari eutsi nahi diogunok jaramon gutiago egitea komeni zaigu. Hobeagoa eta txarragoaren gainetik, geurea dugu, eta geurea dugun aldetik herri nortasunaren galga markatzen diguna.

Euskaldunaren mututasuna eta mintzatzeko trakestasuna, aintzinako haiantzat, aski argi dago gaztelera mintzatzetakoan zela eta ez euskaraz mintzatzean. Askoren harridura, aitonen semeak Gor-

teetan erabiltzen ez zen mintzairaz jardutzea zen, eta hainbeste izkribadu gora behera, Gorteko mintzairaz hain gaizki jardutzea. Eta, garai hartan, kultur hizkuntza, Gorteko hizkuntza zen. Honegatik, Camoesek ere aitortuko zuen jatorri noblezako baina arrazoi lehunik gabea, erromantzez aritzean behinik behin:

*A gente Biscaina, que carece
De polidas razoes, e que as injúrias
Muito mal dos estranhos compadece.*

Esaera leunik gabeko bizkaitar jentea ginen; arrotz, arrotzentzat. Baita ere, garai hartan, maiz esaten zen gure hizkuntzak ez zuela bertsogintzarako dohainik, kontsonanteak urri zituelako, baina gure egunotan harritzen dira gure bertsolariak bat batekoan nola ari diren bertsogintzan, puntuak osatzeko eragozpenik gabe.

Lehenago uste haiek behar bezala ulertzeka, hara hor oraingo "jakitunak" nola eroritzen diren arinkerietan. Baina, euskaldunok, bai orduan eta bai orain, erraz uler genezakean bezala, erdaraz ongi mintzatzen ez baginen ere, horrek ez du esan nahi euskaraz ongi mintzatzerik ez dugunik; Cervantes-ek Kixotearen bigarren partean ongi zion bezala, bakoitzak berean egiten du onduen.

Azken batean, esaera lehunak ez ezik, lizunak eta zikinak ere edozein hizkuntzak erabiltzen ditu. Pentsaerak eta sentipenak eskatuala hornitu beharra bai du literaturak, eta bala aitortzen zigun Piarrres Lafitte berak "Gazte bati, Literaturaz" egin gutunean (Hegatsez, Hitz-Lauzko bilduma, 1971). Arrazoi bideko kritikak gailentzen diren Europan ordua dugu ganarorik gabeko usteak baztertzekoa, eta hon-tarako zentzunez jokatu beharra dugu, bai etxekoek eta bai kanpo-koek.

II.- Maitasunetik lizuntasunera

Aurreko artikuluan agertzen dudan bezala, anitz dire oraindik euskal literaturan birao eta zikinkeriarik ez den ustean. Informaziorik ezak zabaldu ditu holako usteak. Badakigu euskal literatura elizkoiak gehiago landu dutela, baina bestelakorik ere bada, Irigarayk "Esbozo bio-bibliográfico de Literatura éuskara profana. (Del siglo XV al XX)", deitu lanean adiarazi zigun bezala. Ikus "Príncipe de Viana" aldizkaria-

ren 98/99 zenbakia (1965). Baina horiez gainera bada porno erakorik ere.

Adibidez, euskaraz inprimatu zen lehen liburu berean, 1945ean, Etxeparek emakumezkoaren maitasuna kantatzen duelarik, bertso eder asko eskaini zizkigun. "Emazten fabore" deritzan poesiaren azkenaldean honako bertso hauek agertu zituen:

*Munduan ezta gauzarik hain eder ez plazentik,
Nola emaztia gizonaren petik buluzkorrik;
Beso biak zabaldurik dago errendaturik,
Gizon horrek dagiela hartaz nahi duenik
Jo badeza dardoaz ere gorputzaren erditik,
Ainguriak bano oboro ez larrake gaizkirik;
Bana dardoa ematurik, zauri ere sendoturik,
Bere graziaz ezartein'tu elgarreki baketurik.*

Etxepare apaiza zen, Hita-ko Arzizprestea bezala, Trentoko Kontsilio aurretikoa eta gai horiek libreago erabiltzeko eskubidea izan zutenetako. Baina gerotik ere gordinkeriarik aski idatzi da euskal literaturan. Gordinkeriak ez ezik baita zikinkeriak ere. Eta, hontan, Etxahun ez dugu izan bakarra.

Gure egunotan J. Mirandek "Igela" aldizkarian idatziak oso auzartak izan ziren, eta bere eleberria, *Haur besoetakoa* euskaraz eza-gutzen den lizuzena noski. Baina Mirande aparteko kaso bat zela aitortu behar dugu, eta honegatik hain zuzen, ez zen gure artean ongi ikusia. Eta, Miranderen mailan Paris-korik haina Zuberoako kutsurik bazela esango genuke. Xaribari eta Xikitoak hangoak bai dire, eta bertako molde joera dute *Orhoituz* poema liburuko askok. Eta herri kanta horietan maitasunari buruzkoa maizenik ezтики erabiltzen bada ere, inoiz gordintasanik ere ez zaie falta. Hara hemen Zuberoako bi bertso:

*Meskatila ejerrak abisa zitale
Gaiazko bidajiak lanjerus dirade:
Zizañak sabelpetik lotzen bazaitzie
Bedatsian bidakuriak jelkiren zaitzie.
Ikusten dudanian maitearen aztala
jartzen zait büztana adarra bezala,
ondula lodi da, moskula gorri da,
Inbeia dü ziloa satorrak bezala.*

Euskal-Herriaren beste muturrean, Bizkaiko panderojotzaileak erabiltzen dituzte era horietako bertsoak. Hoiengandik entzunak guk geuk ere mutikotatik ezagutzen dituko bolakoak:

*Īnork eskatzen ez ta eskaintzeko lotsa,
alperrik galtzen dauka bere santu motza.
Ai, oi, ail bere santu motza.*

*Mari tranposa Mendigoittiko,
badozu milla grazia;
mutil gaztiak engaiñatutzen
gaztetatikan hasia.*

*Eibarko neskatillak
titi biribillak;
handik beheratxuago,
saiatu mutillak.*

Hoiak gainera nahikoa leunak dira. Gordinagoak eta lizunagoak ere badira. Baina komuneko gauza zikinak jan-gelara eta senar-emazte gelakoak plazara ateratzea ezta itxura. Honegatik lotsatzen gara lizunagoak hemen agertzerara; itsusi baita. Hemendik ulerteko du irakurleak gu holakoan lotsaz bagara, ez dela harrigarria kanta zaharren bilketan aritu izan direnak ere holako ahalkeak izan dituztela. Hare gehiago biltzailerik handienak apaizak izan diren ezkerero. Gainera, kontatzaileak ere, hoiel zien errespetuagatik isilarazi izan ditu era horietakoak.

Hemen, gaurkoan, askoren usteen kontra lekukotasunaren adibidezko muestra batzuk bildu ditugu. Hala ere, esan beharra dut, pikarezka lehunagoa maizago erabili izan dela. Gauzak bere gordintasunean agertu gabe, esan nahiaz adiaraziz. Esate baterako, honako beste bertso honen antzerakoak:

*Urkiola gaiñeko
paguan azpian,
akordatzen al zara
zer egin genduan?*

Edo beste honako hauen erakoak:

*Ederra zaran bezain
baziña sekreta;
sarriago joko nuke
leihoko krisketa.*

*Arrosaren pareko
kolorearekin,
zeiñek ete dauko
fortuna zurekin.*

Estilo horietan intentzio hutsak airean uzten dira, nahi duenak nahi duen eran har dezan. Eta hoietakoak ugari aurkitzen dira gure herri literaturan. Ez dira izango gure literaturaren agergarririk hobere-nak, baina horiek ere hor daude, beste edozein herrik bezala, Unamuno, Ortega y Gasset eta orainagoko batzuen usteak ustel direla salatzen haina.

*JUAN SAN MARTIN
1977, 1-6, 154-160.*

J. ZAITEGI JOAN ZAIGU

*"Gizonen eta aingeruen mintzaira
oroz mintzatuko banintz,
baina maitasunik ez banu,
soinu egiten duen metala edo
zinbal burrundari bat bezala nintzake"*

(Paulok korintioarrei, lehen gutunean. XIII, 1)

Gaur, abuztuaren hamazazpia, egun tristea izan dut. Erronkariko Izabara Jokin Zaitegi adiskide minaren hilberria heldu zait. Atzo hil omen zen Donostian, Probintziko Hospitalean, eta handik Oñatiko babesetxera eraman gaur arratsean Arrasaten ehortzeko.

Bihotzekoaz aspalditik zetorren osasunez gainbeheraka eta itzalteko ordua heldu zaio, hiru erorialdiren ondotik. Lehen bietan Arrasateko poliklinikan bisitatu nuen eta hirugarren hontan Donostiako Hospitalean. Ekainaren 19an, gure teknokrata kaxkagogor hoietako bati "teknokrazia gehiegia ez zela ona, baina humanismo gehiegia ere ez", entzun ondorean. Baina, zoritxarrez, gure herri hontan humanismo gehiegirik inoiz ez da ezagutu. Ez dakit oraindik enteratua denik.

Arratsalde beroa zen bera zegoen gelara azaldu nintzenez. Behar bezalako jabetasunik ez zuelako, han zen Pelikene Arrese, hiltzorian zegoanaren oheburuan, Paristik beste gabe etorria. Jokinek, ni ikusteaz bat, indarrez baino gehiago bere gogoaren eraginez, eskua luzatu zidan; nereen artean hartzeaz, so samur batez agertu zidan bere eskerraren sentipena. Nik ordea, gizontasuna baino gizonkeria gehiago agertu guran, barne indarrok ahalegindu nituen ene begiok malkoz ez bustitzeko.

Han konturatu nintzenez, euskararentzat ondasuna eta osasuna eman zuen gizonaren alde apenaz inor arduratzen zen, Pelikene izan ezik, bizitzaren eta heriotzaren mugan egonarren. Nemesio Etxaniz jaunak maiz bisitatu izan du, baina gainerako euskaltzaleok, deus ez.

J. M. Satrustegirekin mintzatu ondorean, Euskaltzaindiak ordainduz gaueroko zaintzaille bat jartzea erabaki genuen. Zeren, ohorezko euskaltzaina izatez aparte ez zen alperrik gure historian euskararen alde gehien eman duen gizona.

Jokinek gizontasunean eta langiletasunean zuen kemena igaz adierazi nuen "Hoja del Lunes"-ean bi artikuluren bidez. Orduan ez nuen pentsatzen heriotza hain hurbil zuenik.

Gure jakitun eta langilea, Goian bego.

Baina herriak, bereziki herri abertzaleak, oraindik ez daki nor galdu duen.

Gure hizkuntzaren alorrean inork goraipekin merezi baldin badu, lehenetakoa dugu orain joan zaigun Jokin Zaitegi jauna.

Gure historiaren ilunalditik, etorkizunera begira ari zen gure gizon hau, profeta baten gisa, herria bere mintzairarekin zuzpertz nahirik. Jaunak Isaiasen ahotik esana, beretzat pentsatua balitz bezala:

*Zoaz herri horrengana eta esaiozu:
Belarriz entzuna, ez duzue adituko,
begiz ikusia, ez duzue nabaituko.
Mokortuta bai dago herri horren bihotza,
eta belarriak entzuteko gortuta
eta begiak hertsu dituzte,
begiz ez ikusteko,
belarriz ez entzuteko
eta bihotzez ez ulertzeko,
onbidera etorririk, sendatu ez ditzan.*

(Bidallen eginak. XXVIII, 26-27)

Fariseorik ez zuen maite eta publikanoekin adiskidetasunez ibili zen. Apostolu grina zeraman, eta 1950ean, gure herriak jasan zituen ekaitzurteen ondorean, kultur aldizkari bat sortu zuen euskaraz, gure hizkuntza hau zapalduz eta kinka larrian agertzen zen garaian, *Eusko-Gogoa*. Non eta Guatemalan. Eta lortu zuen gogoen iratzarpena eta bildu zituen bere inguruan munduan zehar deserriturik zebiltzan euskal idazleak eta aberrian argi bila zebiltzan gazte batzuk.

Guatemalako puntan lau urteren buruan iraunarazi ondorean, bere asmoak eta kemena indartuz, bere Lizeoa saldu eta Miarrizera etorri zen, herriari bertatik hobeto zerbitu nahiaz. Eskuartearen zeka-

rrer, euskarara itzulia, "Bidalien eginak", eta bertako mezua ere bai nonbait: "Itzuliko naiz, eta Dabiden etxe eroria berreraikiko dut, zati urratuak osatuaz berriz zutituko dut" (Bid. e. XV, 16).

Eskaini zitzaion laguntzarik hartu gabe eta ekarri zituan ondasunak ahitu zitzaizkionean, berriz Ameriketara itzuli zen. Gutik ulertua izan bazen ere, aberriarekin eta bere gogoarekingo kunplitzak bete zituen. Euskara kultur mailarik gorenetara eramatea zen bere asmoa. Aintzinako klasikoen lanak zituen bere espezialitatetzat. Hauek euskaraturik beharko dituela biharko euskal Unibertsitateak eta bere lanaren bidez exemplu ederra emanez gazteria bultzatu zuen bide berrietatik, bakoitzak bere espezialitatean euskara lantzerantz.

Sofokles, Euripides, Platon..., hor ditugu euskaratuak.

Biharko lanak, lan ilunak; gaur egun gutik haintzat hartzen baditu ere, biharkoan ezagutuko dira bere merituak. Euskarak, biziko bada, hain beharrezko dituen lanak.

Ameriketara, berriz ere goldaketan, gure ikurriñaz olerki epikoak osatzeko adorea izan zuen. Handik berriz itzultzean burutapen bakarra zuen bere gogoan; bizi zen artean Platonen itzulpenak bukatzea eta argitaratzea. Baina asmo hau zeharo bete gabe joan zaigu.

Hala ere, bere ekintzarekin adierazpen ederra utzi digu. "Bidalien eginak" itzuli zuenak, haien gisa, lasai esan zezakean:

*Ikus zazute, nardatzaileok, harri eta itzali zaitzte.
Zeren lan bat eginen bai dut zuen egunotan,
inork esan balezaizue ere sinetsiko ez duzuen.*

(Bid. e. XIII, 41)

Testamentu berriko alpamen hauek, ez uste izan buruz nekizkientik, baizik noiz behinka gustatzen zait eta beharrezko dut Bibliaren irakurketa eta aurtengo oporraldietan nerekin ekarri dutanez, egun triste honetan nere gogoaren kontsolagarri izan dut.

Bukatzeke esan dezadan, gure gizaldiko unerik nekegarrienetan Jokin Zaittegik egin zuen lana oso nekez sinestekoa dela izan ere. Honegatik, gaur, Euskal-Herriko bazter honetan, doluminezko egun triste honetan, Agur!, Jokin.

OTSALAR
1978-79, 1-6, 311-314.

P. BORDAZARRE "ETXAHUN" KOBBLAKARIAREN OROIZ

*Bizia llaür hiltzia segür hortzaz ez gira düdatzen
Denek beitakigü heriuak nihur ez diala pharkhatzen*

Kantuz horrela aitortu zuen Pierre Bordazarre, "Etxahun" Irurikoa, itzali zaigu. Zuberoako ohitura zaharren euslea, gazte zelarik oinak arin dantzari agertu zuen bere nortasuna, adinean sartzean xirularia ez ezik koblakari iharduna da herioak eraman arteraino. Bere kantetarik oso ezagunak dira Agur Xuberoa, Goizian argi hastian eta Sorlekhura itzultzia. Horrez gainera, pastural egilea zen, aintzinako ohitureri jarraituaz bederatzi obra burutuaz: Etxahun (1954), Matalaz (1955), Berterretx (1956), Santxo Azkarra (1965), Le comte de Treville (1966), Txikito Kanbo (1967), Pette Beretter (1972) eta azkenik Ximena eta Iparragirre.

Urrilaren batean hil zen Pabeko ospitalean eta bere sorterria den lurin ehortzi zuten. 1908ko maiatzaren 28an jaioa zen.

Gaztaroan herbesteetan bizia zen; baina, Orhiko xoriak, Orhi maite. Zuberoa laket zitzaion eta bere barnean Basaburua partea.

*Agradable dirade Larrañe, Ligi eta Sante-Grazi
Aiphatürrik dira Atharratze, Alzai, Aloze, Lakharri
Zalgize ere aski plazent da, Ozazek badü batzarri
Bena ooren maithagarriena othe ez deia Iruri.*

Baina hor ez zen mugatzen bere Euskal-Herriaganako maitsuna. Duela bi urte liburu eder bat eskaini zigun, *Etxahun Iruri khantan* deritzana eta artikulu bat eskaini nion "Hoja del Lunes"-en (29-VIII-1977). Orduan agertu nuen bezala, ikuspegi zabala zuen gure herriagan:

*Goxo da bizitzia Xibero gañian
Mendi horien artian trankillitatan*

*Hargatik aithortzen dit mûgaz bestaldian
Badirela xokho hunak, itxas bazterrian
Khantatzera banua huk phentsamentian*

Gure erresumak goraipatuaz, honako agur honekin eman zuen bertsoen bukaera:

*Kunserba zitzaiela zelukoJinkuak
Bizkai ta Gipuzkoako probintzia goxuak
Ingana zitzaiela luzaz itxasuak
Guretako begiratûz bethi ber amodiua
Zirekilan beikira oso Xiberua*

Sentitu ere abertzaletasun osoz sentitzen zuen hegoaldekoentzako maitasun hori, erro errotik herrianganako maitasunez beterik bizi bai zen. Bere kantetan maiz agertzen denez, Orhiko txoriarekin buruabat egiten du:

*Sen-Jüsefen ermitatik
Goraintzi har Uskal-Herria
Zure zerbütxari fidel
Girade Orhiko-txoriak*

Maitasun hontan mugazandiko askok ohi baino haratako joanen zen, zeren koblakariaren barne gogoaz zintzoa izaki. Horrek eragin zion ondoko kanta han osatzera:

*Jeiki hadi Eiiskadi era mintza hadi
Ozenki gure gazteriar
Behardiela bethi fidelki kunserbi
Gure usantxa zahar horik*

Zenbait erresumatako giroan berri jakin zuen gaztarotik, herrialde askotan bizi izan baizen, baina azkenerako Zuberoan pausatu zen, Orhiko xoria bezala. Santa-Garazikoa hartu zuen emaztetzat eta habi goxo bat lortu zuen, pobre baina zoriontsu biziko zena. Arbasoen ohitureri jarraituz, pasturalgile, pasturalen zuzendari eta koblakari. Apaltasunezko zorionetik honela kantatu zigun;

*Nik badit etxe txipi bat Gaindañeko lurretan
Eniz aberats hargatik alagera bizi nizan
Zunbat nahi untsa diren beste herri aizuetan
Dûda dût nik izan ditin gû bezaïn plazer etan
Akordian bizi gira herritarren artian
Ahal oroz libertitûz xaharrak gaztekilan*

*Igarailek ikhus gitzela bozkarioz oro khantan
Gaindaiñtarrak Gaindaiñtarsak Gandaiñeko kharrikan*

Hainbeste lan ederren guraso zen Etxahun Irurikoa, bere me-
rezimenduegatik aspaldi izendatu zuen Euskaltzaindiak bere lagun-
tzaileen arteko. Bat bateko bertsolaritza ez zen bere ekintza berezie-
tan hain egoki moldatzen zena, baina hala ere zenbait saio egin
zituen hortaz, plazetan Mattin eta Xalbador zenakin kantatuaz. Hone-
gatik, bertsolari elkarteak heldu den urtarrilean omenaldia eskain-
tzeko hautatua zuen. Bere bizitzaren zahartzaroan egin behar zitzaion
omenaldi hori, orain, hilondokotzat egin beharraren pena dugu. Be-
ragandik sortu zen "Agur Xuberua" hainbeste aldiz kantatu duen
milaka euskaldunak oroi deitezela omenaldiko egun hortan, bera
goretsiz jar dezaten anaitasunez "Aintzinian gora Eskualdün bande-
ra", bere gogoaren gisara.

OTSALAR
1978-79, 1-6, 319-321.

BAKARRIZKETA MIKELI

Mikel: Nahiago neban orainarte lez alkarrizketaz jarraitu inoiz eztabaidatxoren bat gora-behera, zintzotasunaren indarrez alkarren lagun ginalako; baino nork uste izango eban hain gazte joango zinanik? Orain, bakarrizketaz natorkizu.

Abade egin barri Geriako egotaldian ezagutu ginan alkar. *Zirikadak* eskuan, inguru honetako umoreaz illuraturik etorri zinanean. Txorierriko guraso hizkera jatorra zenduan iturburutzat zeure amaren esaldi eta berbetako erak gogoan harturik; harrobi aberatsa zenduan hizkuntzaren zimentarri. Honegatik, zu lez hornituentzat bihurtu zan euskara batua, ebakuntza. Baina, halabe, ulertu zenduan, bizi behararen txertakuntzaz, eta nekeza izan baiatsun be, baturantz jo zenduan. Honek dira bizitzak lagatzen dituan zauriak.

Bizkai aldeko idazleak geuregan izan doguzan gora-beheretan. Azkue hartu zenduan maisutzat, eta honek irabazi eban ustekoa zinan, Bergarako Batzarretan agertu zenduan. Uste berekoa nozu.

Norbaitek esana da, euskaldunon eta euskararen batasunaren kezka leherturik hil zarala. Horrek be, gehienori lez, bihotza eragingo zeutsun, bai; baina azkoz be gehiago hainbeste lan zeure lepora hartu beharrak eta batez be hainbeste abertzaleren euskaraganako arduragabetasunak. Zerk eroan zinduzan bestela deituren eztabaida ta matrakak sortzeaz, poesi liburuaren sarrera haretan:

–“Yo soy *Baraizarra*”

–“Yo soy *Apraiz*”

–“Yo soy *Laibarra*”

Egia esan, euskararen hesparruan ez zenduan mugarik, euskaltzalerik gehienok eritzien gainetik garelako anai. Hola agertu zenduan –agertu genduan– gure Arestiren ehorte egunean, zu abade eta ni, Eibarren esaten dogun moduan, “Kura laiko”. Nere berba ahulak haizeak eroan ebazan eta zure otoitza hor gelditu jakun:

GURE AITA

esan dut, Aresti,
kaleko arkaitz,
aurkako bidezti
kontentagaitz.

Gizarte kutsatuaren
Parnaso berriko
aintzindari,
hizkuntza urbanoaren
sortzaile taldeko
mailukari,

HARRI ETA HERRI:
horritxo bat izan nahi nuke,
harritxo bat nik ere,
egunotan,
harrizko herri hontan.

Inork ez daki gogoaren indarra zer dan, baina zerbait probatu dogun euskaltzaleok gure aldazgoran. "Harritxo" bat baino gehiago izan zara harrizko herri honetan. Zure lumatik ipuinak, eleberriak, olerkiak, saiaerak... berrogeta sei urtera heltzeaz hamasei liburu eta beste bat bidean. Horrez gainera, jakintzaz jantzirik zinan, eta gazteak eskolatzen egin dozun lanez, hor ditugu euskaltzale helduak, euskaldun herriak eta idazle ikasiak, zure bakardadeko:

*Numenaren inguma,
isilaren atsegin,
mahai, liburu, luma...
eta anitz zeregin.*

Zure eten gabeko gogo betean ekinaren frutu.

Herriaren euskara bititik jasotako gatza eta piperra erabili zenduan, gure literatura idatziarentzat uzta eskainiaz. Umore bizia, humore zintzoa. Hori azaldu zenduan zeure ipuinetan, baina batez be lagunarteko alkarrizketak alaitzeko. Zuk kontatutako pare bat hizkiri-miri edo txiste agertu nituan "Usteak" zeritzan artikulua batean (*Hoja del Lunes*, 1978, II, 13) eta Timoteo de Urkiri, CMF. dalako bategandik, asto-baltzarenak jaso nituan, gutun irikiz (*El Diario Vasco*, 1978-II-16), "su escrito podría figurar, y, con bastante empaque, en una antología de prosas anticlericales" esanaz. Gertaera hau zuri kontatu

neutsunean, aze barreak egin zenduzen. Eta, nik dakidanez, egundo ez neban idatzi ha baino artikulu klerikalagorik. Abadiak kontatua gainera. Kepa Enbeita "Urretxindorra" zanaren omenaldi egunean, Autsaganan alkarregaz afaldu genduan hara hizlari joan ginenok eta, ohi zenduan lez, danbolin ederra ipini zenduan afalkideen alaigarri. Mork esango leuskun orduan hile batzuk barru heriotzak eroan behar zinuzela?

Gure artean amaika jatordu alai ipinitakoa zinan. Agur eta gorazarre, adiskide maitea.

Zuk emona, gure artean, ezta makala izan. Bai, Mikel Zarate adiskidea, zure heriotzagaz langile on bat eta adiskide hobe bat galdu dogo. Euskal-literaturan betirako leku egoki bat izango dozu; baina oindinok beharrezko zinan gure artean. Bete ete zan zure gogoak gura ebana? Ezetz esango neuke. Baina ezta izan zure ahaleginen faltaz, ez. Nekeak ito zaitu bidean, Mikel, baina zuk ereindako hazia lerdan dator eta itxaropena etorkizunean:

*Europa zaharreko
erlikia lerdan,
bitxi zapalduaren
nekezko iraupen:
Europa berria dun
hire itxaropen.*

OTSALAR
1979, 1-6, 287-289.

BERRIZ ERE UNAMUNOREN INGURUAN

Berriz ere Unamunoren inguruan eta oraingoa ere ezta azkenaldiz izango bilbotar pentsalariari buruz. Bere gogoetak hain maite ditudalarik ere, maiz gertatzen zait, maizegi behar bada, bere zenbait eritziren aurka jardutea, beti euskararen arazoa auzi dela, gure hizkuntza defenditu beharrak eskatzen duen neurrian. Izan ere, ideak eta auziak oraindik ez dira zahartu. Gorputz gehiago eta gehiegi hartu dutela esango nuke. Hala gertatzen zaigu, mende hontan Euskal Herrian sortuetatik mundu zabalean ospe handia eta hots gehien izan duen gizona dugunez.

Gure artean ere, Unamunok, behar zuen lekua egin du. Euskaltzaleon artean esan nahi dut. Agiri berezia izan genuen *Zeruko Argia* bera ere, sortze ehunurteburuan, Azkue eta Txomin Agirrerri baino orrialde bat gehiago eskaintzez. Ohore bat? Hala dirudi. Dena dela, argi dago Unamunoren eragina eta kezken itzala zabalduaz eta sakonduaz dijoala erresuma guzietan. Jakina, euskararen aldetik Azkuek eta Agirrek ohore handiagoak dituztela, gure gogorako behinikpehin. Baina, Unamuno hor dago zutik eta erraldoi mundu guzietan aurrean. Beraz, ez ahantzi.

Unamunori buruzko saiakerak gogozko ditut; baina, egia esan, ez dakit nondik hasi ere. Alde askotatik jardun ditzakegu Unamunoz, eta jardunak jardun, ezin agortu berari buruzkoa, hain zabala denez bere itzala. Gaurko hontan, neurri handi batean lehen esanak berri-tuz, har dezadan anekdoten alderditik eta euskaltzale ikuspegitik.

Unamunoren arlo zabalak gaitz dira sistemazko aburuz juzgatzen, eta gainera, era askotariko paradojak haintzat hartzera, metodismoak zeharo hausten dira. Beraz, handik eta hemendik nahasian arituko natzaizu, irakurle.

Jainkoak, Jainkorik baldin bada, ez dakit nola juzgatuko zuen gure Unamuno, baina mundu hortako katolikorik gehienek sutaratu dute bere izena, hartan Jainkoari esku-hartzea den ala ez oroitu gabe. Horrelakoak dira ikuspegi hertsia baten begiramenez epaitzearen ondoreak. Eta, Unamunoz, bere obra irakurri ez dutenek ere, inoren ahotik entzundakoaz ari dira epai emaille. Baina, gizona juzgatzeko, gizona den aldetik ekin behar zaio, beste inondikako prejuzizio gabe, obraren frutuak ezagutuaz. Era hortan, uste dut, Unamunogandik inork gaizki esatekotan, ateoak esan behar dutela. Unamunok konprenitzen zuen duda edo federik eza, baina zigortzen zuen gai horietarako axolarik eza. Ateotasunaren etsai borrokatua genuen. Valencia-ko estudiante gazte batzuei hitzaldi bat eman zienean, Jainkoa arrazoi bidez erakutsiaz eta eternitatea ukatzera hurbilduak zijoala, ohartu zen entzule gazte haiek gerorik ezarena entzuteaz pozten zirela, eta, orduan, esan zien, bere iritzia zeharo aldatuz, nahi ta nahiez egon behar zela, mundu honek legezko justizia beharrezkoa zuelako. Betiko ezer-eza zela tristeena. Eternitatearen ezer ez hutsa hobe zela betiko sua. Eta, hortariko hitz gogorekin barreiatu zituen estudianteok.

Luis Martín Santos zenak, bere «Baroja-Unamuno» saiakeran (La Academia Errante, Sobre la generación del 98, 107 orrialdean) zion: «Unamuno es un erudito, es un hombre de gran cantidad de lectura, es un hombre que domina un amplio bagaje de conocimientos filosóficos, literarios, etc.»... eta aurrerago jarraituko zuen: «Unamuno, en lo más fundamental de sí mismo, es un hombre religioso, un hombre atenazado por la preocupación religiosa». Zein urruti dauden gure arteko batzuen iritziaik.

Lain Entralgo-k egin zion biografian dionez –Unamunok berak kontatua noski–, Primo de Rivera-k herbesteraturik gure filosofoa Paris-en zegoela, joan omen zitzaion Blasco Ibáñez idazlea eta honako hau proposatu: erlijioeri buruz horrebeste zekielarik, joan zedilla Ipar-Ameriketara eta han «seta» edo erlijio berri bat sortu; gaurko izateari egokiago zetorkiona, ta bere izenaren ospea betikotasunera eramanez, era askotako ondasunak izateko bidea zuela. Unamunok ez omen zuan bere ahotik hitzik atera; beste gabe, paparretik oratuta kalera atera omen zuen. Bere gizontasunak ezin zuen oinarri faltsurik finkatu. Gaiñera, egintza hortatik agiri zaigu, ez zela askok

uste bezala, bere izenaren goresmenak betikotasunean jarri nahi zituen.

Uste oker asko izan ditu bere buruaren kalterako. Espainian, izan ere, ez da gehiegi sustraitu, oraindik ere, filosofia kritika. Jakintzat jotzen ditugunak ere ez daude hortarako behar bezala gertatuak, ta iritzi okerrak, iritzi ustelak aisa zabaltzen dira bazterretan. Dugun egoeran Unamunori onik egingo ez dioten iritziak. Hala holako aburu arinak. Horrelako iritziak adierazten digute beste gertakari hura ere. Behin, Unamunoren okertasuna era zuzenetik ulertu ez zuan bat, usterik *don Migel* ateo burrukatua zela; kontatu omen zion Jainkoaren aurkako eztenkada bat, pentsaturik parre eragingo ziola. Bukatu zuanean, isillik eta serio gelditu omen zen bere betaurrekoen atzekaldetik begira, ta handik une batera esanez: "Zeuk esango didazu noiz irri egin".

Horrela zen Unamuno heterodoxoa, sinisgabeen etsai burrukatua.

* * *

1960-ko udaran, Alpes mendietako Les Bossons inguruko errefujio batean arkitzen nintzan, atzerritar artean, bakarrik. Ater gabeko ekaitzak zerua-goibel eta elurra maiz zekarren. Han arkitzen ginenok, behera egitea nekeza genduen eta gora ezina. Egoera horretan neramazkin hiru egun. Laugarren egunean, Grands Mulets-ko errefujiotik heldurik, amerikano bat sartu zen. Nungoa zen esan zuenean, gazte batzuek esan zioten han geudenetarik hirugarren kontinentea osatzen zuela. Orduan galdetu zuan ia nontarrak zeuden eta frantsez gazte alai harek jarraitu zion, geuden bakoitzari apuntatu: alemanak, holandesak, suizoak, italiarrak, argelinoak (ta neri apuntatuaz) espainiolar... Eta, entzuteaz bat zuzenean etorri zen neregana, ta Cuba aldeko erdera batean galdetu zidan: «Espainiolar ahal zara?» Esplikazio gehiegirik ez ematearren, «bai», erantzun nion. Eta, berak: «Baina, Frantzian edo biziko zara noski». Ezetza agertu nion. «Baina, posible ahal da Espainian alpinismoa egitea? Han bai ahal da zezenak eta fobailletik aparteko deporterik?».

Orduan behartu nintzen ihardespenez esplikazioak ematera: «Espainian ere bada alpinismoa. Ez asko, baina bai zenbait tokitan; baina Espainia zeharo desberdina da alderdi batetik bestera. Han, toki batzuetatik beste batzuetara, Europako mutur batetik bestera

hainako aldeak daude. Ta ni naizen aldean, iparraldean, anitz mendizale da». «Eta, zelan deitzen da zuen alde hori?», galdetu zidan. «Euskal Herria (Pays Basque edo Vasco)», erantzun nion. Orduan ikaragarritzko erreberentzia egin zidan: «O!, Unamuno handiaren lurra. Unamunorena! Beraz, haren herritarra zaitugu». «Ba, bai. Ta, gainera Unamuno zalea». Bera ere Unamuno zalea zela esanaz jarraitu zuen. Bere idazlerik maiteena noski. Ta Bibliaren ondoren gehien irakurrita zeukan liburua *Del sentimiento trágico de la vida* omen zuen; lau aldiz ingelesez eta behin batean espainolez. Filadelfia-ko estudiantea zela, eta han, Unibersitate hartan, bazuela maisu jakitun bat Unamunoren lanak zehatz ezagutzen zituena, beragan Unamunoren alderako zaletasuna txertatu zuena. Baina, lehen aldiz ezagutzen zuela Unamunoren herkide bat.

Egun haretan berandura arteko alkarrizketa izan genduen. Hark uste zuen Unamunoren herritarrok bere obra guztia ezagutu ta maitatu behar genuela. Baina irakurle euskaldunok dakizutenez, hemen ez da holakorik. Pena handia eraman zuen hemen Unamuno, askoregandik gaizki ikusia zela esan nionean. Hala ere, pozten zen lehen herkidearekin topo egitean Unamuno zalea arkitzeaz.

Harentzat, Jainkoan ondoren, gizonen artean lehendabizikoa zan Unamuno. Eta solas luze haietan aztertu ederrak eman genituen bere pentsaerari buruz. Baita ere berak baztertzeko eskatzen zuen euskarari buruz ere. Harritzen zen, amerikanoa, euskaldunon hizkuntza oraindik bizi zela jakiteaz. Bai, zorionez; eskubide guztiak galeraziarren. Esaten nion, katuak haina bizi zuela gure euskarak; aintzina latinak menperatuaz, bere estutasun guztian ere latinak baino gehiago iraun duela.

Biharamunean, ozkarbi zen eta goizean-goiz atera nintzen Mont-Blanc-erat. Bigarren egunera itzuli nintzanean, joana zen errefujio hartatik, eta pena hartu nuen; zeren Espainia alderat etortzeko asmoetan zenez, pozik emango nion bizpahiru egunetan gure etxean ostatua, Unamunoz mintzatuaz bere herriko lurraldeak ezautarazteko. Baina gauzak bestaldera irten ziren.

Gaur, bere solas-eztitsu gogoangarriekin batean, Unamunok mundu zabalean duen itzalaren oroitza gelditzen zait. Bada zerbait.

* * *

Horraitiok, gure artean ere dena ez da izan Unamunoren kontrakoa. Eta, asko ta askok ez konprenditzea ere ez da harritzekoa. Beren buruak pentsalaritzat dituzten anitzek ere ez bai dute zehatz ulertu bere pentsaera. Gehiago da, Pío Baroja berak zion Unamunoren heriotzean: "Ya después de muerto, sin el brazo poderoso que sostenía el almacén de su obra, ésta se desmorona". Baiña ez zuen igarri. Hori gainera, Baroja bezalako batek jakin behar zuela heriotzaren inguruko misterio-kezkek gizonak bere muinetaraino sartuak daramazkiala, eta Unamunok kezka dituela bere pentsamenik sakonean inguru. Eta, urteak igaroaz haunditzen dator, zabalduaz eta sakonduaz, Unamunoren irudi intelektuala; batez ere *Del sentimiento trágico de la vida* eta. *La agonía del Cristianismo*-ko Unamunorena.

Gure euskaltzale inguruko giroan lehenengo ezagutu nuen Unamuno-zalea, Isidoro Fagoaga izango zen noski. Berak argitaratzen zuen "Gernika" aldizkarietan eman zituen zenbait berri, geroago *Unamuno a orillas del Bidasoa* y otros ensayos (1964) liburuan bildu dituenak. Behar bada, lehenengoko euskaltzalea Unamuno maitekiro tratatu zuena.

Geroago Txillardegiren hitzaldi bat ere ezagutu nuen, Unamuna eragille izenekoa (ikus, *Egan*. 1957, 3-4). Han esaten zuen: «Unamuno ezagutu duenak ez dauka aaztutzerik, eta alde batera ala bestera jotzen du. Astindu egiten du, gogor, eta ez dago geroztik txatxukeritan ibiltzerik. Arima-gosea ixiotzen du, dirukeria ondatzen du, eta berari eskerrak arkitu degu askok gure burua».

1958-an argitaratu zen *Unamuno ta abendats*, euskaraz Unamunori buruz egin den lanik onena. Gaiñera euskeraren aldetik eta Euskal Herriko semea zen aldetik begiratuta egindako saiakerak. Egille bezala, «Iñurritza» izenordearen azpian Salbatore Mitxelena zena gordetzen zen. Argitara bezin azkar nahi nion hemengo aldizkariren batean erreseña bat egin, baina beste giro bat zegoenez, ez zan posible isilpe antzera atera zen liburu hau aipatzea. Ta, hara hemendik ere gure artean kultur gaurkotasuna lortzeko edo girotzeko trabak. Amaika holako gerta zaigu gure belaunaldikoei. Gaur ordea, berandu da bertako irizpideak aztertzen hasteko. Hala ere, bertako orrialde anitzek freskura ederra dakarte euskeltzaleon hesi estu honetara.

Esate baterako, hara zer dakarren 21-garren orrialdean: "Unamunoren euskaltasuna ta eusko-zale iritziak sakonki aztertu nai ba'dira, eztugu aski arek guri buruz berariz ditugun liburu gutxi batzu oiek irakurtzea: *Paz en la guerra, De mi País, La cuestión del vascoence...* Oetan ez bezin sendo ta jator nabariko dizkiogu beste enseiu nagusienotan: *Vida de Don Quijote y Sancho, El sentimiento trágico de la vida, La crisis del patriotismo, La crisis actual del patriotismo español, Más sobre la crisis del patriotismo...* ta beste abarretan».

Are gehiago 50-garren orrialdean: «Ta onatx emen, yadanik, irakurle erabera, *Del sentimiento trágico de la vida*'ko etnika xurgatzen asmatzeko araua, euskaltzaleontzat urrezko araua nik uste, ziurkienik inortxok ez emana, baña baitare euskal biotzontzat benetan unkigarri bezin anpagarria, ta, aldi berez, gure "gogape"-albistariaren euskal-sustraiak sumaraziko lizkizukena: Unamunok diñon baikoitzean: "ni ta ni», zuk irakur: «gu ta gu», eskubide duzunez; edota Euskalerrri zarrari entzun aldarrikatzen: «Ni ta Ni».

«Bilbotarraren euskal-muñ izkutu sendoa jo nai dunak zuzen bait-luke fede auxe eramatea aren liburuetara, ok irakurri al izatekotan: auxe, alegia, batez beste: Euskalerrri berberaren agonia dugula Unamuno'rena, ta aretxen Egia, ta aretxen Miña, ta aretxen Eroa, ta aretxen Ezilkor-gosea.»

«Ta baitare, geienetan edo ia beti, Unamunoren España geure Euskalerrri berbera dugula, ari gainka eta ernalka, bere euskal buruaz eta izenaz ia erabat aztutzeraño.»

Unamunok holako hitz gozorik ez zuen jaso inoiz euskaltzale bategandik. 1918-an Oñatin egin ziren Euskal Jakintza Batzarretan ez zuten lekurik izan ez Unamunok eta ez Barojak, naiz ta hara deituak izan ziren asko ta asko euskara eta Euskal Herriaren etsai ikaragarriak izan, geroago argi ikusi zen bezala (Une hontan Esteban Bilbaoren hitzaldi hura datorkit oroitzapenera). Hara nortzuk joan ziren ikusirik ez da egiztatzen Unamuno ta Barojaren euskara ta euskal-kulturagana maitasunik eza. Bi hoiak, hara joan ziren askok baiño meritu gehiago zuten hordurako ere; ta geroztik ez ziren agertu han izan ziren zenbaitzuek bezala, zapaltzaille, ta bai ordu larrietan laguntzaille. Unamunoren heriotza holakoa izan zen gorputzez mainku eta buruz mainkuago zen Millan Astray hark gu bezalakoak, espainolasunaren aurkakoak, guztiok tiroz hil behar ginela erran zuanean.

Momentu hartan bere bizia arriskuan jarririk defenditu ginuzen. Berdin Barojak Valladolid-go *speaker*-ak esan zuanean gure dialektu-txoan mintzatzera gehiago ez zela inor ausartuko: i«Qué categoría más cómica! El dialecto, creo yo, es una de las variedades de un idioma. El francés, el italiano y el español son históricamente dialectos del latín, es decir, hijos del latín... Del vascuence no se conoce su ascendencia; decir que es un dialectucho es una necedad para un arriero de la Mancha o para un vendedor de botijos de la sierra de Cazorla». Ta bestalde, E. Bilbao-k bezala gure alde hitz egokiak esan zituenak, gero zigorra.

Unamunok ez zuen izan gure mintzaira ta gure herriaren alderako gogo onegirik, baina gureganatzen baino guregandik uxatzen gehiago alegindu zirela esango nuke. Ideen aurrerapenezko iritzietan salto handia eman zuen S. Mitxelenak, batez ere Unamunoren lanetarik *Del sentimiento trágico de la vida* eta *La agonía del Cristianismo* orandik indizean zeuden denbora haretan. Gure praile liberalarentzat ohore handia da.

* * *

Baina, Unamunori buruz, zer iritzi dute erdaldunek? Orotarik noski; baiña, ez beti hemengoekin bat datoztenak. Euskal Herria ta Gaztelania biak batera maite bazituen ere, han ere ez zeuden guztiak kontent.

Ikuspide bikain bat da «Este donquijotesco / don Miguel de Unamuno, fuerte vasco, / ...» asten den A. Machado-ren poema. Baiña beste poeta bat datorkit orain burura; gerotikoagoa eta aburu berriz ari dena: León Felipe. Ta, bere esanak bai ez direla gurina ta ezta.

1966ko udaran, «Índice»k (219-220 zenbakia), Manuel C. Santonja-k León Felipe-ri egin zion interviu, bat zekarren, ta beste zenbait gauzaren artean Unamunori buruzko iritziak. Hau zion L. Felipek: «Mira, yo me siento molesto con don Miguel. Estoy relejendo su Vida de Don Quijote y Sancho y me indigno. Claro, como él era vasco nunca entendió a Cervantes. No, señor. Además le envidiaba terriblemente ese precioso castellano fluido, que corre. Los vascos nunca han podido dominar el idioma de Castilla y además carecen de sentido del humor.»

Horrelakoak ziren Quevedo ta beste zenbait erdal-idazlek esaten zituztenak denbora haietan ere, erregeen sekretario edo bestelako idazle ta kaligrafo ziren hemengo semeegaitik. Exenplu asko dakarzki Legardak bere *Lo «vizcaino» en la Literatura castellana* liburuan. Ez legoke gaizki horrelako aburuekin bildumazko liburu bat gertatzea, hemengo euskaldun erdalzaleen lotsarirako. Ordua da izatez euskaldun diren hoiek beren jatortasunetik lantzea, norperarena ahuldu eta besterena aberastutzen jarraitu gabe.

Vida de Don Quijote y Sancho. León Felipe-rentzat mingarria bada ere Salvatore Mitxelenarentzat bestera da. Ez baita berdina hango batek ikusi edo hemengo batek ikusi.

Baiña, ideak alde batera utziaz, Unamunoren erderaz errazoa ematen diot León Felipe-ri. Erdeldun batek juzgatu behar du erdera. Hemengo askok uste izanarren bertako erdera bezin onik ez dala egiten Espainian, ni ez nago horretan. Gaztelarak Gaztelania bere kabi, ta alde hortatik heurak dute hitza. Baiña euskal umorea juzgatzeko ez dut uste L. Felipe denik gizonik egokiena. Bera ez baita gauza hemengo barne-muinean sartzeko, euskararekin jabetu gabe. Gure auzoko Plaentzia haiñako herri umoretsurik nekez arkituko da Espaiña guztian. Eta, ziberutarrek ere ez dira atzean gelditzeoak. Hortik aparte, Pio Baroja urte askoan bizi izan zen Río Tinto aldean eta hark zionez andaluzak ez omen zuten euskaldunak bezalako umorerik. Jakiña, mailla honetan esan behar da Pio, Serafin Baroja euskal idazle umoretsuaren semea zela, eta dudarik gabe Unamunokoak baino anitz gehiago zekiala euskal umorearen berri, ta ez gutxi bere barnean, aitagandik kutsatua edo. Ta zer Fernando Amezketarra?

Ikusten denez, bakoitzak, berari gerta zaizkion edo dagozkion bezala kontatzen ditu gauzak. Ta Unamunoren umorerik eza ez da adibiderik prestuena hemengoak duten ala ez duten juzgatu ahal izateko.

Baina, hala ere, hizkuntzari buruz, lezio ederra da Leon Felipek hemengo idazle erdeldun ta erdelzaleeri ematen diena.

1967ko urtarrileko «Insula»k (254 zenbakiak) oster, Leon Felipe beraren beste elkarriketa bat dakar, Maria Enbeitakin egiña. Gogozko zaidan poeta honen jardunak atsegingarriak zaizkit berak hemengo gauzak gogozkoak ez izanarren ere. Guk beti dugu heurak

baino parte hobe bat; gu sar gaitezke beren munduan, eta ez berealek gurean. Ez da azaletik ere, zeren inoiz ez bai dira gure gauzak seriotasunez, ta batez ere maitasunez estudiatzera jarri; ta guk heurenak bai, eskolatik harat, nahi ta nahi ez, gaztelera ikasi beharra izan dugunez eta bereaiek inoiz ere ez euskararik.

Solas hortan hara zer dion: «¿Y tú te llamas María Embeita? Te voy a llamar María. Todos los apellidos sean vascos o ingleses me molestan.» Ez da hori gertatzen zaion erdeldun bakarra, eta behar bada hortik ere baditu bere sustraiak gure mintzaira ondo ikusia ez izateak. Baita ere juzgaduetan euskal izenak horrenbeste gorrotatzek. Ongi probatua nuen esperientzia hauxe ere. Karanbal Ez da gero erreza euskaldunok umorea gordetzea. Baina hala. ere...

Eta, Leon Felipe-k, alkarrizketa hortan ere berriz zion: «Don Miguel era un vasco que se había empeñado en escribir bien en castellano. Era un gran filósofo; sabía mucho: griego, latín..., manejaba muy bien el hexámetro griego. Pero quería escribir con la naturalidad, con la gracia, con el ritmo, con la magia de un castellano...» Eta, aurrerago, berriz hau esaten du: «No aprendió nunca a hablar castellano. Esto no les gustará a los eruditos que lo diga yo, ¿verdad? Yo traté mucho a don Miguel... No tuvo el ritmo ni la magia del castellano. Se le veía siempre la mecánica del hexámetro. Estoy hablando como un gran profesor, ¿no?, y va a parecer una blasfemia, pero don Miguel no tenía gracia. Ningún vasco tiene gracia». Hau esatean, jakiña, Leon Felipek ez zituen gogoan izan Amezketarra, Serafin Baroja, Xenpelar, Txirrita, Urruzuno, Manezaundi ta abar. Euskaldunok euskeratik kanpora graziarik ez izatea ez da harritzekoa; hori ez da axola zaiguna ere. Herriak mintzaerak bereizten ditu gehien bat, eta inglesak eta frantsezak ere grazia gutxi dute espainiolentzat, guretzat heurak haina, hor-horren baten. Baina, batez ere, hemen grazia gutxi egiten digutenak, ta hemen bai Leon Felipe-rekin gaudela, hemengo euskaldun eta «euzkotar» erdalzaleak dira, L. Felipek irakurri ahal dituen hoiak; baina, hala ere, derrigorrez aguantatu beharrean arkitzen gera, gernua ontzitik kanpora diharduen hoiak.

Hortik aparte, Leon Felipek ez zituan maite «Generación del 98»koak. Beren artetik, gizon bezala, begirapenik gehien Pio Baroja-ren alde bazuen ere. Gaizki portatu zirala dio. Ta seguru asko ez du errazoi faltarik. Gazteri gutzia liberalismora bultzatu ondorean eta Espainia burruka bidetan jarri ondorean, egizko ordua iritxia zenean,

dezisio sendo bat hartu behar zen orduan, heurak eskuak garbitu zituztela ta... Baiña, hemen ere, ikusten denez, ez du gogoratu nahi izan Unamunoren azken profetia: irabaziko duzute baina konbentzitu ez. Ta, hortarako ere, une haretan, umorea edo zerbait holako behar zen, ta ez gutxi gaiñera.

Dena dela, «98»koak mugimentu eraginkor bat sortu zuten, gauzak alderantzi zituzten, Espaiña lokartua martxan ipini zuten. Ta mugimentu horren eragintzaileen artean zer ikusi haundia izan zuten Euskal Herriko intelektual batzuek.

* * *

Unamunoren «ni ta ni"kin, «gu ta gu". biurturik argitaratu nuen lantxo bat Zeruko Argia-n «Euskaldun zertako?» izenez (ikus 209 zenbakia, 1967-ko otsaillaren 26-koa), Azurmendi adiskideari gutun ideki lez egin nuen, ta berriz ere esan beharra dut Joxe Azurmendi «Unamuno-zale» jotea aitzakia bat besterik ez zela, ideok agertzeko; eta ez berari min ematearren. Ondotxo dakit Azurmendik, nik bezala, Unamunoren pentsamentuak ez dituela maite euskarari buruzko irizpideetan, baizik gainerako filosofian. Eta gaiñerako pentsamen filosofikoetan ere, ez bera eta ez ni, ezin gindezke danean Unamunorekin bat etorri.

Orduan esaten nuen oraindik inundi ez zuela izan erantzun sakon-sakonik Unamunok euskarari buruz eman zituen iritziegatik. Baiña orain beste gauza bat da. Orduan argitara berri zen Martin Ugalderen *Unamuno y el vascuence* (Buenos Aires, 1966), baina oraindik hemen zabaltzeke. Taxuz egindako saiakera. Bertan, lehenengo aldiz erantzuten zaio Unamunori behar dan bezala. Unamunoren eskariz euskara baztertu beharrak lehendabizikoz arkitzen du oztopo nagusi bat. Hemendik aurrera, Unamunoren iritziekin euskararen kontra jokatu nahi duenak, nahi ta nahiezkoa du Ugalderen lana ere bereziki aztertu beharra.

Hori, gainera, nere irudiz, bere agiri ugarietan ez dela gehiegi balliatu zenbait eskubide berezikin. Zeren ez da berdina gizon batek esana edo munduko interesen alde sortuak diren alkarte neutral batzuen. Hau da, esate baterako, Ugalde ez da behar bezala balliatu ONU-ren *Munduko gizonen eskubide agiria*-kin (1948), ez da Unesco'aren *L'emploi des langues vernaculaires dans l'enseignement* (1953), ez da ere *Pacem in Terris* (1963) agiriak hain garbi ta zehatz

jarri zituzten errespetatu beharrezko agiriak ziotenakin. Agiri hoietan esaten direnak ez dira gizon soil baten esanak, erakunde batzurenak baizik. Eta, erakunde bezala, aurraz soziologo, hizkuntzalari ta irakasle ekipoak egindako estudioak dituzte oinarritzat. Unamunoren usteen kontra joateko ez ziren hain beharrezkoak, noski; baina bai gure mintzairaren alderako euskubideak non-nahi eskatu ahal izateko. Gaurkoz, agiri hoiek bai ditugu gure mintzairaren alde jokatzeko armarik onenak. Ez dira guk esanak, baizik munduan hortarako jarriak dauden erakundeenak, nazio bakoitzaren interes partikularraren gainetik daudenenak, eta mundu hobeago bat lortu nahirik egiñak. Itsu ta gor azaldu nahi dutenei ere nolabait adieraztera heldu beharrezko agiriak.

Norbaitek esango du gehiegi begiratzen diodala hizkuntzaren alderdi honi, *baiña nik uste argi ta garbi jarri beharrezko gauza dela*; zeren, euskararekin jarraitzeko errazoirik ez badugu, orduan alperrik gabiltza.

Unamunok dionean: «La sangre de mi espíritu es mi lengua y mi patria es allí donde resuena soberano su verbo»... Eta beretzat hizkuntzak horrelako garrantzia bazuen; zergaitik ez guretzat?, galde-tuko dio Ugaldek. Orain amaika urte esan nuenean, «Euzko-gogoa»n, euskera zala nere aberria, ez nekizkin Unamunoren zenbait esangura, ta orain ikusten dut bat gatzela; berak erdera bezala nik euskara ikusita. Nik uste euskarari bilatu nizkiola gun hoiek, berak gaztelerari bezin ongi, eta behar bada, Leon Felipe-ren aburuak bere esate juxtuan hartuko begenitu, ez jakin bakoitza bere bidean nor gehiago generatu den. Erderagaitik hainbeste arduratu zen Unamunok ez bai du erdaldunen begirapen onik.

Unamunok, bere tesis doktoralean, *Crítica del problema sobre el origen y prehistoria de la raza vasca (Obras completas, t. VI, 85/142 orr.)* hizkuntza soila arkitzen du, euskera hutsa, bestelako jatorrizko kulturarik gabea, eta ez da hori egizkoa, zeren gure literatura landua (kultista) hain ona ez bada ere, den txikian ere, gure geurea izatez gainera, gure herri literaturak ez dio zorrik beste hizkuntzetakoeri. Baina, ahozko herri literatura hau ez zuen ezagutzen Unamunok, edo arintxo ezagutzen zuen eta ez zuen behar haina baliatu. Ugalde bera ere ez da balliatzen hontaz, bere liburuaren bosgarren kapituluan azkenaldera gauza honi ikutzen dionean: «...el lenguaje es uno de los elementos más importantes de la condición

humana de la gente»..., «el respeto a la lengua es de alguna forma el respeto a las gentes mismas, y su irrespeto es irrespeto para ellas. Los recuerdos de sus antepasados están atados a su lengua. Su poesía está en su lengua. Sus ideas y su moralidad y justicia están expresadas en su lengua». Eta puntu honetan gogorazi behar zuen gure herri literatura, gure kanta zaharren aberastasuna, garbi ta zehatz adierazteko hizkuntza huts bat baiño gehiago dela, ta alde horretatik Unamunok zuen ezjakintasuna ez da euskararen erruz. Berak, gauza hoiiek esan zituanerako, mundu guztiak ballatzen zuen edonongo herri literatura egile ezagun ospetsu edo *elite*-ko literatura landuaren mailan eta inoiz gorago ere bai. Kulturazko literatura landu hori edozein hizkuntzatan egin daiteke eta egiten da, baina aitzinatik erroetan oinarritzen den herri literaturak aspaldi eginak diranez, herrien eta hizkuntzen bereizkuntzak handiagoak ditu. Ia, hizkuntza pentsatzeko tresna danez, herriaren pentsatzeko egiturak garbiago gordetzen ditu herri literaturak. Beiñipein, gurearen balioa hor dago; baiña, berak ez zuen ikusi; ta ikusi ahal izateko beste prisma batetik begiratu beharra zuen Unamunok, berak inoiz behar bezala menperatu ez zuen euskararen prismatik noski. Baina, hizkuntzaz, jatorrizko euskara galdurik, erdera txertatua hibridoak izaki. Eta, hemen zegoen Unamunoren kakoa, Unamunoren prolema nagusia.

Unamunok uste zuen alkarrekin eraman eziñezkoak zirala kultura berria eta euskara zaharra. Eta kultura berriarekin jabetu ahal izateko eskatzen zuen, bere *La cuestión del vascuence*-ko hitz-jario luzeetan, euskara baztertzea. Nere ustez, txarreanean ere, batertzea baino hobe da behar duen mailan gaurkotze hartara igotzen laguntzea; zeren, baztertzearekin geure nortasunik bereziena galtzen bai dugu. Uste horrekin jokatu izan balute gure aurretikoek, latiña bere indarrez Europa guztian zabaldu zanean, ta bere bultzadari amor eman, gaur ez zen euskararik izango, ez euskal deiturarik, ez Euskal Herririk. Gaur ez ginen euskaldunak izango eta behar bada ez da «vascos» ere. Gure nortasunaren bereizkuntza guzi hoiiek mintzairatikakoak ditugulako. Eta, non da orain, denak menperatu behar zituen latin indartsua? Auskalo!

Euskarak estudioetarako haurrerik kalte egiten diotela uste duten beste arinkeri horiegatik hobe da ezer ez esatea. Unamunok ere, bere euskararen kontrako indar guztietan ere ez zuen holakorik aipatu. Umeeri eskolarako euskerak kalte egiten diotela uste duten gura-

so guztientzat, hori hola izatera, Eskandinabia, Suiza, Alemania eta Rusia-ko parterik gehienetan denak tontoak izan behar ziren; baiña ez da hori gertatzen, baizik, bestalde, haurrerik gutxienez bi hizkuntza irakasten dioten herri haiek direla munduan aurreratuenak. Eta, ia zenbat jakitun ezagutu ditugun hizkuntza soil baten jabe bakarrik direnak. Eta, gizonik jakituneneri trabarik ez egitera, nori kalte? Ez guri. Gainerako Espainiak guk baino askozaz ere gizon jakitunagoak eman behar zituen gauza hoiak egjak balira; baina ez da horrela gertatzen. Holakoak ere asmatu zizkiguten. Baina, gogoan izan hola-ko astakeriarik Unamunok ere ez zuela haintzat hartzen.

Beste batean, Unamuno, «solidaridad humana»ri buruz mintzo zenean (ikus Ugaldereen liburuaren 178-garren orrialdean), badirudi euskaldunok geu izateari utzi behar diogula mundukoak zintzo izateko. Hau ere ez da astakeri makala! «Solidaridad» (= elkartasuna) beharrik ez dago guztiok berdinak bagina. Elkartasunak, berak esaten du ez dela batasun monolitikoa. Beraz, jakin beza «solidaridad» guztion artean egitekoa dela, euskaldunok euskaldun izatetik gainerakoei elkarturik osatzen den gauza; besteak heurak izanaz gurekin elkarturik. Zeren Unamunok esaten duen erara ez baita elkartasuna (=solidaridad); baizik, «lotutasuna» (=sometimiento); inperialismoa bera, nahiz lur edo nahiz hizkuntzarena. Ugaldetik 204-garren orrian jartzen dituen hitzak, Wyn Griffith-ek gales idazleeri buruz esan zituenetarik hartuak, argi ta garbi ipintzen dute herri batentzat hizkuntza zer den: «La poderosa fuerza que los mueve hacia la creatividad en su propia lengua, no es ni raro ni artificial. No surge de una simple determinación de ser diferente, sino de una convicción de que de ninguna otra manera ellos pueden ser enteramente ellos mismos»,

Pániker-ek bere Conversaciones en Cataluña liburuan José María Espinas katalan idazlearen ahoan jartzen duena oso ongi dator kasu honetan: «Katalanez idaztea suertea da –dio Espinas-ek-. Katalan idazleok suerte bat dugu, munduko beste idazleek ez dutena; zergaitik burrukatu badugu: gure lurra. Hau, ez da gertatzen beste herrietan... (nik esango nuke gurean ere hala behar duela). Nik ez badut gaztelerak idazten, ez da askok esaten duten bezala, sakrifiziozko ispirituagaitik, ez. Hau problema ez ezagutzea litzake. Besteekin adierazi ahal izateko nik edozein hizkuntza erabili nezake; baiña sor-tzeko (ideak kretzeko) nere hizkuntza bakarrik erabili nezake. Hiz-kuntza ideen sorketaren iturburua da eta ez bestaldera».

Noiz konturatuko dira euskaldun izanik erdal idazle ditugun hoiak? ordua da konturatzeko beren jokaera kaxkarra dela eta beren herriaren kontrarakoa. Gernua ontzitik kanpora egiten ari diren txepel hoiak gure arimaren indarrak murrizten ari dira.

Gehienetan esan ohi da euskaldunak ez dakitela euskaraz irakurtzen, edo oraingoz ez dugula euskera orokor bat euskaldun gehieneri era berean adierazi ahal izateko; baiña hori lortzen alegindu behar gara, eta ekintzatik lortzen ez bada, beti leku berean geldi jarraituko dugu. Fedeak obrekin behar du, ta euskaldun izanik erdera hutsean idazten duena ez da euskaltzalea, ta gutxiago egiazko aberzalea. Euskaldunak euskaraz irakurtzen ikasteko eta beste euskalkiak ezagutuaz gure literaturaren giharraren berri jakiteko, zorionean hasi ziren euskaldunen alfabetatze kanpainak. Erderaren bidez euskararen alde mintza baino hobeto dugu euskara bera bakoitzak bere baitara landuz erabiltzea, zein mintzatzean ala idaztean.

Beti erderaz idazten duen euskaldun euskaltzaleren batek min hartzen badu, usterik beragaitik ere ari naizela, errazoa du, hala da ta.

Erderarekin eta erdera landuaz arrotu zen Unamuno gurea; arestian aipatu dugunez, aza onak jaso ditu León Felipe bategandik. Ikusia dago hobeto gaudela geronetik, geron muinetik kultura landuaz hobeto goazela.

M. Ugalderen saiakera liburua berriz, erderaz egotean hobeto dago, ze, euskaldun euskaltzale konbentzituak ez dituzte beharrezkoak bere saiakera hortako esanak, baiña bai gainerakoak etxe ta kanpo, auzi hoiak beregan direlako. Ugaldek taxuz eta helburu batera begira agertzen du bere lana. Ez ditu gauzak askaturik eta nahas-menduz uzten. Azterketa sakona da.

Unamunoren jokaerak gauza asko ditu konprenitu ezinezkoak. Behar bada bere amorrazioak zituen euskara behar bezala ez sakontzean, ez menderatzean.

Baita ere bada bestelako errazoirik, ta hau ez dut uste Ugaldek ondo ikusi duenik. Unamuno ez zen «garbizale» hoietakoa, ez zitzaion gogoko hitz berririk. Beretzat, euskarak, bere kolkotik behar zuen, eta bera euskaltzale agertu zan une haietan Bilbo aldeko giroak bestera ziren. Hango neolojismoak ez zuten akaburik, eta horren kontra egona zen. Beraz, alde horretatik, Unamunok ez zuen arkitzen

bere gogozko gitorik bera bizi zen inguruetan, eta erreakzioz beste muturrerat zihoan.

Era berean gorrotatu zituen Chaho ta Navarro Villoslada'ren ondoren sortu ziren gezurrezko historiak (ikusi Obras Completas, t. VI, 135 or.). Faltsua zeritzan guztiaren aurkakoa zen, eta gauza faltsurik aski arkitu zuen gure alorrean. Aipatzen dedana, Madrilen 1884-an doktoradurako tesisean dakar. Tesis beraren bukaeran dionez, oinarritzotzak zituan gauzak estudiatzerakoan, gezurrezko bihurtu zitzaizkion. Eta ordutik, une hartatik hain zuzen, esango nuke bere lehen-dabiziko jokabidetik aldatzen hasi zela. Eta ez askok uste izan duten bezala, 1888-an Bilboko euskal katedra irabazi ez zualako. Euskara baztertu behar zela, zenbait aldiz esaten bai du Revista de Vizcaya-n 1885-1886 urteetan argitaratu zituen «*Del elemento alienígena en el idioma vasco*» artikuluetan ikusi Obras completas, t. VI, 143/167 or.). Kontu hau argi laga zuen L. Akesolok bere «*Dos notas autobiográficas-en (Boletín de- la R.S.V.A.P., XXI, 57 or., 1965)*».

La cuestión del vascuence, euskara baztertzearen eskariz egindako lanik sakonena, askoz geroagokoa da, 1902-koa. Bere denboran, Julio de Urkijok, erantzun egokia eman zion RIEV-en, XI (1920), 72 orr. Baina hura soil gelditzen zen eta Ugaldereen *Unamuno y el vascuencek* bete du behar bezala.

Unamunok, bere iritzi nagusizat, sentimentuak utzi eta arrazoi hutsa hartu behar dugula zion; eta arrazoiz, Euskal Herriak aurrerapen bidea jarraitu ahal izateko, euskara utziz. Baina, Villasantek ongi zion bezala (bere *Historia de la Literatura Vasca*, 342 or.), arrigarria da Unamunok hori eskatzea, zeren bere filosofian dionez maiz jarraitu behar dela sentimentu hutsez arrazoiaren kontra.

Luis Mitxelenak zionez, maitasunak errukituaz nahi zuela Unamunok gure euskararen heriotza horrenbesteko etsipen larria luzatu ez zedin, zein eta maite den bat etsipenean sufritzen ikusi nahi ez den bezala (*Gran Vía* aldizkaria, IV urtea, 140 zenbakia, 20 or., Bilbao, 1959).

Nik uste dut, Unamunok, euskara ez zuela behar bezala menderatu eta euskaltzaletasuna ez zela bere barnean indarrez piztu. Bere kaxara ikasitako euskara, beti erdi-hillik bizi izan zen beregan, legortean landare maxkal bat bezala. Eta batetik, indarra emango zion iturburuaren faltaz eta gure «garbikeria»ren erotasunik biziaren bestal-

detik. Berak «terminacho» izenez bataiatu zuen giroak lagundu zuen bere barneko gartxoak itzaltzen.

Bestela harrigarria zen, Sören Kierkegaard bere erotik ezagutzearren danes hizkuntza ikastera behartu zenak, berea uztea. Konturatu behar zen edozein hizkuntak duela gaurko munduari zerbait berri eskaintzeko ahalmena, eta eskaintzen ez duenaren hutsa ez dagoela hizkuntzan, baizik bertako kulturadun gizonetan.

* * *

«98»koen adigarririk bereziena, erromantizismuak utzi zituen kutsuak kendu eta idea ta kultura-bideeri berritze eragina eman. Literaturan eta politikan era berritze bat ekarri zuten eta jakintza bideak aurreratuz ikerketari ere bere giroa eman nahi zioten. Espainia bere lozorrotik iratzartu nahi zuten. Hemen, Unamunorentzat ametsak egi bihurtzeko lanean aritzea ere baliozkoa zen. «*De razones vive el hombre / Y de sueños sobrevive*» Esango zuen bere *Sobre la filosofía españolan*. Eta ez dugu esan nahi sentimenak ez dutela ezer balio. Gehiago da, inoiz, sentipenak gainez egiten dio gizonari eta bere burua lantzen du sentimenen eragiñez, eta igarri gabe sentimenarentzat arrazoiak arkituaz.

Baina inoiz ere ez gera ahaztu behar, Unamunok, bere izen haundia, bera mundu guzian hain entzutetsua izatea, bere jakituria bakana, hain zuzen ere, ez zituela euskarari buruz lortuak, baizik filosofo bezala, pentsalari bezala. Eta *Del sentimiento trágico de la vida* eta *La agonía del Cristianismo* liburuegaitik ezagutzen da mundu zabalean. Kierkegaard-ek ekin zion bideari gorakada eman zion, existentzialismoaren bideetara eramateko. Eta, alde hortatik beti izango du toki berezi bat munduko pentsalarien artean. Gaiñera, pentsalari bezala, «Generación del 98»koen artetik aipagarrienetakoa da. Horregaitik, gauzak ez ditugu alderantzi behar. Batean gizon handia izateak ez du esan nahi bestean ere hola izan behar denik.

Erljio problemak ziran Unamunok gehien aztertu zituenak. Arrazoiaren eta sentimentuaren burrukaz, zalantzazko fede batean larri-mindurik bizi zelarik.

Eta, hor ere, baditeke, Unamunok, dudagabeko fededuna zalantzazko fede batera eramatea; baina, baita fedegabea dudan jar-

tzea ere, Jainkoaganako kezkak larritzen zuen gizona. Dudaren kezka beharrezkoa iduritzen zitzaion.

Horregaitik, Santamariak, Unamunori katoliko aldetik begiratzen dio, berak aurrez horrela aitortuaz. Ez baita bide zuzena askok egin diotena, katoliko aldetik gizon bezala juzgatu (ikus *Zeruko Argia*. 84 zenbakia, 1964-ko urrillaren 4-koak). Unamunori buruz Santamaria, Artetxe, Lezo eta Etxaniz-en lanak dakarzki. Gizona den aldetik, ez dago ondo kritika alderdi batera begira egitea, berekiko irizpidea bakarrik dela egiazkoa usterik. Gaztaroan mistikaz grinatua zen gizonari ez dago gehigarririk zertan jarri. Ez zuen harek inork esan beharrik nundik irtena zen, jo batera ta jo bestera zebilenean. Berak esana zen: «Nerekin ditudan pentsameneri hur ematen dioten liburuak ez ditut maite, uste dedalako, nik pentsatzen dedana bera esango didatela». Eta, egun batean Kierkegaard arkitu zuen, teolojiari buruzko gauza berriak esaten zituena eta beragana abiatu zen egi bila. Alemanez irakurtea nahikoa ez zuelarik, dinamarkarra ikasi zuen hizkuntzaren iturburutik hobeto edatearren. Ai! euskarari holako egileren bat arkitu izan balu. Baiña, guk gure pentsamenik eta irudimenez gehienak gramatikak, etimolojiak eta haueri ta neolojismoeri buruzko eztabaidetan eman ditugu. Indar hoiak testuko liburuen alde eman balira besterik izango zen.

Gauza hauegaitik, euskarari buruzko arazoak dira Unamunoren lanetarik gutxien haintzat hartzekoak. Bestelako pentsamena da, pentsamen teologikoa mundu guztian bere izena ospez zabaldu duena. Askoz ere garrantzizkoagoa: betikotasunaren egarria; izan edo ez izanarena. Hizkuntzen gaintik arkitzen zuen problematika hau.

Behar bada, Unamunok, erlijio kezkak eta bere inguruko prolemak, erlijioaren kanpokaldetik barnera begira ikusi ditu, eta ez da harritzekoa barnekoak mindurik arkitzea. Hala ere, meditazio bide bat direla esango nuke.

Puntu honetan gure Nikolas Ormaetxea «Orixe» bururaten zait. Beste norbaiti ere entzun diot; baiña, nik «Orixe»ri Unamunoren antz handia hartzen diot; eta ez biak burugogorrek zirelako, baizik «Orixe»k ere antzerako prolemak zituen, naiz ta erlijioaren barrukaldetik ikusi, eta inoiz barrutik kanpora begira. Behar bada, nik hemen aipatzen dudan «Orixe» gutxiago ezagutzen dena da. Ez «Orixe-zaleak» kementsu ezagutaraztera alegintzen diren *Euskaldunak*, *Aitorkizunak*, *Aditz lanak*, *Salmutegia* eta horrelako lanetakoa –guri sudurretatik

derrigorrez sartu nahi diguten hoietakoa ez- baizik «Orix» mistikoa; zeren olerki-mistiko hoiek beste guztiok batean haina edo gehiago balio dute noski. Aspaldiko *Barne-muinetan* liburuari geroztik aldizkarietan argitaratu zituenak erantsirik, hor bilduma ederra «Orix» ta euskal literatura goratzeko. Bestela, intelijentziaz ez jokatzea da, eta urteak aurrera ere Unamuno bezalakoei arrazoia ematea euskaraz ezer ballozkorik ez dugulakoan.

Hauek dira Unamunoren inguruan nabaitu ditudanak. Filosofian, Unamunok, bere pentsamenekin, ez gaitu eramaten helburu ziur batera, ez dugu bilatzen absoluto segururik, bere nahia hori izanik ere; baina, zer pentsa eta zertaz kezka erakutsiko digu. Bere pentsaeraren zati asko atzean gelditu badira ere, oraindik ez da agortu. Eta, behar bada, gizonak inoiz ezingo duelako bere izatearen arrazoizko helbururik aurkitu, ez dago azken hitzik.

Kontradizioz beterik nabaitzen den Unamuno paradajokoak, *El sentimiento trágico de la vida* eta *Agonía del Cristianismo* ditu lanik nagusienak esistentzialismo gaian, eta landuenak hoiek dituenez, kontradiziorik gutien ere horietan ageri da. Hala ere, eztabaldagarriak dira, baina, gutienez, norperekiko pentsaeraz eta kontzientziaz jabetzera eta jokatzera bultzatzen gaitu. Pentsamenaren eta sentieraren arteko gogoeta iratzartzen digu. Esnatu ezik, ezin ba norperekiko barne-gogoa landu.

* * *

Lehenago erabili nituen gogoetok nahikoa atzeraturik gelditu zaizkit. Eta, oraingoan beste ageri batzuk gaineratu nahi ditut. Hala ere, behin eta berriz aitor dezadan, Unamunoren jakituria, bere ospe handia, erudizioz betea, bizitza beraren arrazoia bilatu nahirik urratu zituen pentsamenezko literaturan dagoela, esistentziaren filosofian. Hor, gure begiramenik onena merezi du. Baina, gauza baten jakitun zelarik beste batzutan ere hala behar zuela, batez ere igarile mallan, ezta gauza serioa.

Unamunok, gaur egun, munduko erakunde nagusiak ez ezik gizarte eta linguistika berriaren aburuak ditu bere *La cuestión del vascuence* tesiaren kontra. Duela urte batzuk, euskaltzaleok kezkatuak geunden, gure gogoak eta gure ahaleginak zertan geldituko ziren ez genekiela. Ez bai genuen datorik herriak berak zer nahi zuen. Orduan, Euskaltzaindikoak arduratu ginen Euskal Herrian iker-

keta eratzen, herriaren baitan zer nolako gogoia zegoen jakiteko, eta Siadeko elkartearekin inkesta bidez lan sakon eta zabal bat ere burutuz: *Estudio socio-lingüístico del euskara*, eta horren laburpena besterik ezta *Hizkuntz borroka Euskal Herrian* (1979an argitaratua) 1975era arteko egoera hartzen duena. Lanaren sarrera gisa, alde aurretik espezialistek gertatua, *Euskararen liburu zuria*, urte bete lehenago agertua. Azterketa horien arabera, badirudi, Unamunok ez ziola igarri gure hizkuntzaren etorkizunari. Hor dago herri baten nahia, hor gizarte baten ustea. Berriz ere, argi nabari da, ezin garela izan unibertsalistak unibertsoko hizkuntza bat baztertu nahi badugu.

Bestalde, euskarak, hizkuntzarik gehienak bezala, soluzio politikoak behar zituen eta horiek bideratzen doaz. Esan beharra dago, politikaren mailan, euskararen etsaigoak ere bere lan maltzurra egingen duela; baina eskubidezkoa baldin bada zintzotasunez jokatzeari, Unamunoren izena euskararen kontra jarri nahi dutenek, azter *beza-te Hizkuntza borroka Euskal Herrian* deritzan liburua. Hori baita herri baten gehiengoaren erantzun agiria.

Unamunorentzat gure hizkuntza tipiegia zela? Larriminaren kontzeptuen egileak ere hizkuntza tipia erabili zuen. Sören Kierkegaard gabe zer izango zen Unamunoren esistentzialismoa? Hara, hizkuntza tipi batean oinarritu zenak zer eman zuen. Izan ere, teoriak, edozein hizkuntzak ditu zer-hartarako ahalmenak.

Gauza bat da kanpokoan harremanetarako beste hizkuntza zabalago bat erabiltzea, eta beste bat norperanean pentsatzea eta sortzea. Azken batean, gizona, borondate hutsa da, eta gogoan hartzen duen guziaz egin ahal lezake, baita hizkuntzaz aldatu ere, eta baita ideal baten ondorean berea edo besterena landu ere. Dena da posible.

Mila arrazoi dira hortaz, baina zalantzarik ez duguna, zera da, egungo Europan gizona bi, hiru edo gehiago hizkuntza menderatu beharrean aurkitzen dela.

Baina, hizkuntzak, hizkuntza bakoitzak, kultur berezi bat du bere inguru, Unamuno ber berak ongi esan zuen bezala: «Cada pueblo ha ido asentando en su lenguaje su concepto abstracto del mundo y de la vida, y en la extensión y comprensión que da a cada vocablo va implícita su filosofía» (*Obras completas*, t. III, pág. 765).

Unamunok euskara berea bezala hartzen ez bazuen, arrazoiari faltarik ez zuen izango, baina prolemarik inon izatekotan beragan zegoen. Zeren, euskaldunok, gure bizitzako, ispiritualitateko, pentsatzeko, negar egiteko edo naiz barre egiteko, geure hizkuntzaz baliatu gara mendez mendez, eta hizkuntzaren bidez gure aintzinako asabaren erroeri lotuak gaude, ber berak ez zuen alperrik esan: «La lengua, he de repetirlo una vez más, es la sangre del espíritu» (Ob. comp., III, 1081 orr.) Hizkuntzarekiko gun hori bai zen Unamuno maiz arduratzen zuena, arrazoi faltarik ez zuen izango, baina arrazoi bera jarriko genioke gure euskararen alde ere. Zer esaldi hoberik honako hau baino?: «Adueñarnos de nuestra habla es cobrar tierra, independencia y libertad espirituales». (Ob. comp., t. VI, 957 orr.). Baina, ispirituzko gauzak neurkaitzak ditugu. Era askotako eritziak atera genezazke ispirituzko arrazoietatik.

Unamunoren pentsamenetatik ere era askotariko eritziak jaso genezazke, zeren bere pentsamena zabala haina bide eta bidexka ugariduna bai ta. Horregatik, Unamunoren idelak egungo politikaren jokoan baliatu nahia, ezta zintzoa, ez arrazoizkoa, ezta ere asmo garbizkoa. Kultur munduan zerbait dela uste duenak, horrenbeste badaki.

JUAN SAN MARTIN
1982, 1-6, 139-158.

MITXELENAREN EKARPENEZ

Ekainaren 15ean, Bordeleko Unibertsitatean *Doctor honoris causa* izendapena hartu zuen Koldo Mitxelena, eta ongi deritzat bere ekarpenez zenbait gauza aipatzea. Labur baino luzaz jardutzeko gairik badu gure gizon honek, baina artikulu batera errenditu beharrez, laburkiro azalduko dut bere nortasunetikako zerbait. Bere jakintza oso zabala da. Bere irakaskintzaz zenbait berri eman nuen duela zazpi urte, Piarres Lafittek *Baionako Bulletin du Musée Basque* deritzan aldizkarian lehenik argitaratu zuen lan bat, gero gazteleraz *Boletín de la R. S. V. de los Amigos del País*-en argitaratu zena (1965) komentatuaz (1).

Aintzinako denboretan galtzen da gure kulturgintzarako ahulezia eta zaila zaigu jakintza mailak neurtzea. Mitxelena, heldu den mailara heltzeko iragan behar izan duena sineskaitza ere bada. Martin Ugaldek elkarriketaz jaso eta *Hablando con los vascos* (1974) deritzan liburuan argitaratua dugu lekukorik jakingarriena. Gure hizkuntzaganako maitasunak eraman zuen ikerketara, bere ideetan zegoen zaletasuna ogibide bihurtzeraino. Mailarik apalenetik hasita, lanaren eta nekearen bide mingotsak ezagutuaz, hizkuntzalaritzaren goren mailara arte. Bere garaia heldu den arte, gure herrian hizkuntzaz zerbait jakitun zirenek, kanpoko linguistegandik zetozten irakatsieri begira zeuden; baina, geroztik, kanpokoak dira bere ikerketeri adi eta bere esanetara begira. Gure historian lehen euskalduna dugu linguistika gaian zientifikoki ari dena.

Indoeuropar hizkuntzez espezializaturik diren irakasleak oso guti dira Europa guzian eta horien arteko bat da Koldo Mitxelena. Horregatik, jakintzaren goimaila horietan guti batzuri interesatzen zaien hizkuntzen sortzeaz, hazkunde eta bilakaeraz arduratu da. Guzien gaintik bereziki euskararen fonetikaz, morfologiaz, joskeraz, hizte-

(1) Aipatzen den lan hori ikus Gogoz liburuaen 444-447 orrialdeetan.

giaz. euskalkiez eta abar. Kanpora begira idatzi ditu gairik gehienok erdaraz. Baina, ez uste izan euskara idatzi ez duenik. Oroi Patxi Altunaren bilketa lanez, ohar argigarri eta Mitxelenaren idazlan hau-tatuak izenburuz argitaratutako liburuz. Liburu hori aski mardula bada ere, adierazpen bat besterik ezta aldizkarietan eta zenbait libu-
ruren hitzaurreetan eman duen lanarena. Izan ere, literatura mailako saiaeraz zer ez du idatzi? Pentsalari dugu, batibat. Euskalari den aldetik badakit berak esatekotan ere «pentsatzaile» esango lukeala, baina hori ere ez bere buruagatik, zeren hori baino apalagoa bait da.

Egan aldizkarian eman ditu—eta ematen ari da— bere lanik gehie-
nak eta hoberenak. *Egan*-en dugu gure literaturarako eskainiaz bere gogozko ekarpena. Gauza bat denez ikerketazko adierazpena eta beste bat gogoetazko sorketa. Biak ongi berezirik daude Mitxelenaren baitan. Hitzaurre mamitsuez gainera, zenbait pertsona ospe-
tsukin izan dituen elkarriketak, idazle zaharrerri buruzko artikuluak, liburu aburuak, zinema aburuak eta abar. Beren garrantzia ez dago euskaraz ere zenbait gai berri lantze hutsean, baizik esan dudan sorketa eta hontaz gainera bere hizketa jator eta aberatsean.

Literatur lan guzi horiek neurtzea ezta gauza erraza. Behar bada, filmeen kritikaz burutu zuen lanez, justiziarik bikainena Amaia Mugikak egin zion. Mitxelenaren aburuak bildu eta bere omenez *Denbora bateko zinema paperak* deritzana argitaratzeaz. Hortik ikus daiteke gainerako lanetan ere zer nolako gogoeta eta idea mailak erabili dituen.

Bestalde, hainbeste urteren buruan *Egan* literatur aldizkariaren zuzendaritzaz arduratzea ere ezta guti. Horrek, bilketan eta zuzenke-
tan zenbat lan eman dion bertatik hurbil ibili garenok bakarrik dakigu. Eta, hori aski ez balu, M. Agud-ekin batean *Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo»*-ren zuzendaritza daroa. Esan behar-
rik ez dugu horien zuzendaritzaz gainera, bi publikazioetan lankide ere badela, eta ez nolanaikoa. Eta, beste aldizkari espezializatuetan idatzi duenaz gainera hamar bat libururen egile dugu.

Esan beharra dago, gizon bati dana eskatzerik ez dagoela eta Mitxelenak ere, guziak bezala, izango ditu bere akatsak. Akats horie-
tako bat izan daiteke ber berak inoiz aitortu duen jenio txarra eta haserritze erraza. Baina, hori, beti ez dago norperaren baitan. Hiztegi espezializatuak zirela-ta, aburuetan neurritik landa joan zela? Bai. Badakigu gizarte batean moduak ere gorde behar direla. Baina, gaia-

ren funtsean arrazoirik ez zitzaion falta. Moduak ez gordetzearen lehendabiziko hutsa, kasu hartan, ez zetorren beragandik. Baina, hobe dugu trapu zaharrik ez mugitzea hizkuntza zanpatuaren onerako. Hala ere, bada gauza bat isildu ezinezkoa, euskaraz guti eta azkenaldian erdaraz ere urri idatzi duen salakuntza hura. Hori irakurriaren, gu isilik. Lotsagabeak, mundua bere. Holakoari, nork eta Inglaterrako Liverpooldik Robert Lawrence Trask hizkuntzalariak eman behar Mitxelenaren alde ihardespena, euskara jatorrez gainera, gure lehen hizkuntzalariaren balioak eta langintzak gorai patuz eta azken lanen zerrenda adieraziz. Anitzek, beraiek ematen ez dutena nahi lukete bestek ematea.

Argi ikusten da gure kultur maila aski behean dela holako gizon jakitun baten balioa behar bezala neurtu ahal izateko, eta ezjakinaren ausartasuna latza da. Aurrean duenaz nekez ohartuko da itsumustuan dabilena.

Dakienagandik dator erakutsia. Eta, azken batez, bakoitzak dakar bere uzta eta Mitxelenak hizkuntzalaritzazko eskola sortu du bere katedraren ingurutik. Zorionak Mitxelenari! Baita ere, eskerrak eta zorionak Bordeleko Unibertsitateari, bere jakintza ballatuz «honoris causa» doktoradutzat izendatu duelako. Han, tituluz jabetzean, kelta eta keltiberiaz erakutsi zigun bereizkuntza, Baskonia eta Gaskuñiaren kidetasuna eta Pirineoetako bi alderdietan zen herriaz, berriz ere irakaspen ederra jaso genuen. Azkenik, jakin nahi baduzu gure gizon ikasiaren jarrera zer den, sentipenetatik gogozko sorketara eta hemendik ideiak lantzera, hara bere liburu batean dakarren aitortpena: «Gizartean lotzen eta askatzen gaitu hizkuntzak, hizkuntza honek naiz horrek, bakarkako amets gogoetetan baino areago».

JUAN SAN MARTIN
1982, 1-6, 175-177.

LIZARDI ETA LIZARDIREN INGURUAN

(1983ko martxoaren 13an Tolosan Lizardiren omenezko ospakizunetan irakurria).

Agur, jaun-andreok:

Gure mende honen hasieran, oraindik erromantiko kutsu gehiegi zebilen euskal literaturan eta horren ondasun kaskarrakin aurkitu ziren Lizardi zenaren garaikoak. Kultur ekintzak ere izaten dituzte beren modak eta horrekin batean sorketak ere bai bere baitan aldakuntzen beharra. Sorketaren bidez egunean egungora aldatu beharra bere baitan bai du kultur ekintzak. Belaunaldi bakoitzean, zientzia eta teknikak bezala, kultur ekintzak ere garai bakoitzeko gizarteari moldatu eta lotu beharra dutenez.

Hortan ohartuak ziren Euskaltzaleak zeritzan elkartearen mugimendu hura asmatu zutenek. Era berritza egosiko zuen salda egokitzea edo maniatzea beharrezko zen eta horrek ekarri zuen elkartearen sorrera.

Aintzina Arkadia bereziren bat izan genuen ustea, euskaldun erromantikoez maizenik erabiltzen zuten ideia zen, orduko olerkariak sasi-lilura hartan amets egiten zutelarik. Hargatik nahi izan zuten Euskaltzaleak elkartekoek literaturaren eraberritzea eta bide berrietatik bizkortzea, euskaldun gazteria lozorrotik atereaz.

1926 eta 1927. urteetan egosi zen «Euskeraren Eguna» ospatzeko ideia, zenbait jaialdirekin batean literatura lehiaketak eta bertsolari saioak antolatuz. Horren ondorioz, 1930. urteko martxoaren 9an, Zumaian bildurik, «Euskeraren Eguna»-ren antolatzaileek, orduan ehun pertsona soil soilik taldea osatzen zutenek, Euskaltzaleak deitu elkarteari eman zioten hasiera. Beren deiak erantzun ona izan zuen eta bat batean bi mila bazkideren kopurura hurbildu:

Olerki, Antzerki eta Eleberri lehiaketak eratzeaz gainera euskara eskolekta eroateko ekintzak bideratzea hartu zuten helburuztat. Urte bereko irailean Bergaran eratu ziren Eusko Ikaskuntzaren batzarretan parte hartu zuen lehen aldiz bere egiturazko nortasun osoan. Baina aurkezpen hontan olerkiari soilik lotuko natzaio, Lizardiren garaiko giroaren adierazgarri.

Erakundeek izaten dute gizon eragilerik eta Euskaltzaleak zeritzanean Jose Ariztimuño «Aitzol» nabarmendu zen gehinik. Kulturaz jantzia zen eta ondotxo zekien literaturak gizartean duen garrantziaz eta literaturgintzaren barnean olerkariak zer nolako balioa zuen. Ikusi besterik ez dugu 1930. urtean Errenderian eratu zuten olerki sariaketaren bildumari egin zion hitzaurrean ziona: «Oraingoan, euskalduna, gure izkera apaindu eta aberastu bearrean gera. Eusko-elertia oparotsuenetakoa ez bada ere, ez da askok uste lezateken bezin argal eta makala. Euskaltzaleak, alaz guztiz, gure elertiari mendu gazteak txertatuz sendotu nai lukete. Ortarako biderik egokiena ordea, elerti gaiari eragitea zaigu. Goitar indar meea, almen-biotzetan, darabilkiten gazte azkarrak bai bai-ditugu». Eta, esaldi horren ondorean hola ko ideiak agertuko zituen: «Olerki opari-ugaritsu gabe euskera ez da ernaituko, iñungo izkerarik poesi-neurtitzik gabe garatu eta sendotu ez dan bezela... Izkera-langille bearrenekoak, olerkariak dira...». Eta aurrerago ere jarraituko du esanaz: «Izkera guzien lurraldeetan sasi eta larrak garbitu dituztenak, soroetan azia lendabizi erain dutenak olerkariak izan dira».

Horregatik, nere aldetik, behin eta berriz errepikatuko dut: literatura lantzen ez duen herriaren hizkuntzak, ez duela etorkizunik.

Baina, zenbait ahalmen lortu dugun garaian, gure kultur ahulezia nabarmen ageri da. Hizkuntza baten ondasuna literatura izanik ere, euskal idazleei laguntza emateko plangintzak, nonbait gerorako utziak ditugu. Zeren, oroi Lizardi berak hortaz ziona: «Euskerak eman digu erri-izena. Euskera da gure bereiz-alderik (hecho diferencial-ik) nabariena. Euskerak etxekotu gaitzake oraindik senide guztiok: euskera-gabetzeak arrotzu».

Eta euskararen ondasun gordailua, behar orduetan elikadura eskainiko digun gordailua, literatura lantzean dugu. Gure irrati, zinema eta telebista nahi baldin baditugu, ezina iduritzen zaigu itzulpen hutsez ibiltzea, arrotz kulturaren menpe erortzerik nahi ez badugu. Beraz, gure literatura indartu, ondasunez gaurkotu eta aberastuz,

bertan aurkituko dugu euskaldun senetikako kulturgintza, beti hartzaile eta zordun izan gabe, guretik besteengana emanez eta hizkuntzaren altxorra zainduz.

Garai hartan ere halako asmoak bultzatzeko asmatua zen Euskaltzaleak elkarteak, eta oso ongi hornitu zituzten olerki lehiaketa haiek, egitura egoki baten barnean. Zazpi urtez egin ziren eta uztaberats jasotzen ari zirelarik gerra zibilak eten zuen ekintza bikain hura. Ospatzen zen hiri bakoitzean idazleren baten gorazarrez prestatzen zen, hitzaldiekin eta jolasekin herriari parte harreraziz. Hots handia izaten zuten eta euskaldunagan literatur irakurketarako egarria sartuz. Lehen lehiaketa, esan bezala, Errenderian ospatu zen Luis Jauregi «Jautarkol» zenaren *Biozkadak* liburua aurkeztuz. Aitzol bera izan zen hizlari, liburu aurkeztuaren aburuz. Eta, urte hartako saria Esteban Urkiaga «Lauaxeta»k irabazi zuen «*Maitale kutuna*»-rekin. Lizardi ere partaide izan zen, lehenari zorrik gabeko olerki laburrekin: «Agur!» (*Maitea* zeritzan poemaren zati bat), «Paris'ko txolarrea» eta «Otartxo utsa» aurkeztuz. Partaidetza haregatik hara zer zion Aitzolek: «Euskerari bide berriak idekitzearren, bide xiurrak utzita zabaleera jo dezan, almen bikañeko olerkariak agertu zaizkigu, Agirre jauna, Lizardi izenordez, eta Tapia'tar Alexander, Iruña'koa».

Lauaxeta, garai hartako olerkaririk ikasienetako bat izan zen. Bere gogo gutzia irauli zuen olerkaritza berritzez eta indartzez. Olerkari ikasitzat jotzen zuen Aitzolek ere, aipatu dudan hitzaurre hortan ez ezik *Bide barridak* (1931) zeritzan liburuari egin zionean ere bai. Hortarako, modan jarriak ziren frantsez poeten jarraitzaile jartzen zuen: nola Jammes hala parnasisten eskolaren sortzaile zen Baudelaire. Baina, egia esan, Aitzolek aipatzen ez bazuen ere, Espanian bertan piztu zen beste modako batzuri ere jarraitzen ziela esango nuke, 27. balaunaldikoeri (*Generación del 27*). *Arrats-Beran* liburuko "Langille eraildu bati", gaia bestelakoa bada ere, García Lorca-ren Antonio de los Cambrorios-en egiturazkoa bait da. Gaia ordea, langileria arazoko olerki sozial horietakoa zen Lauaxetarena, Espainiako Miguel Hernandez-i aurrea hartuaz. Hori bedori dugu Lauaxetagan gai berritze kezka adierazgarri. Urrengo urteko olerki lehiaketa, 1931koa, Tolosan bertan ospatu zen, Emeterio Arreseren omenez. Bonifazio Etxegaray izan zen hizlari, Arreseren obra kritikatu, eta urte hortako olerki saria Lizardik jaso zuen «Baso-Itzal» zeritzan

olerkiarekin. (*Urte giroak ene begian* poema hunkigarriaren zati bat zen).

Handik laster agertu zen *Biotz-begietan* liburua. Orixe zenak izan zuen Lizardigan zer ikusirik, euskarazko orraztapenez gainera lehiaketa haietan parte har zezan eta liburu hori argitaratzen, bere hitzaurre jakintsuz. Hala aitortzen zuen *Itz-lauz* liburuaren hitzaurrean jasotzen den esaldi hartan: «Ni izan ez banintza, oraindik argitara gabe zegoan Lizardiren liburu txoragarri ori. Egia esan, ni izan ez banintza Yainkoak besteren bat sortuko zun; baña ni izan naizelako ez al daukat pozbiderik? «Etxeak bear ta bideak ekarri», dio esan zaarrak. Arentzat ontan ni ekarri nindun...».

Lizardiren olerkari balloak ez dira erraz neurtzekoak. Hala ere, Karlos Otegi lan ederra burutu du, euskarak inoiz eman duen olerkaririk handienetakoaren azterketaz. Aitzolen gidaritzapean mugitu zen Euskaltzealeak elkartearen ekintza inguruan loratu zen Lizardi ere; han nabarmendu zirenetatik ere aski olerkari berezia. Bere gogotik sortzen zitzaizkion olerkiok, gogamen aberatsa zuen eta ekarria ere halakoa; sorketarako ahalmen berezia, irudimentsua, ikuspegi berezia zuena eta txukun adierazten zekiena. Hizkuntza bera, labor esaldiz, idea osatuak, edertasunez jabeturik, hizkuntza poetikoan inori zorrik gabea.

Lehiaketa haiek berritasuna, bizkortasuna eta bizitasuna ekarri zioten euskarari. Partaideen arteko ziren, besteak beste, Orixe bera, Txomin Kortajarena, Jautarkol, Imanol Enbeita (Urretxindorraren anaia), A. Ezenarro, A. Zugasti eta abar. Baina, lehiaketa haiek bultzaturik, izen handia hartzera heldu ziren olerkari gazteagorik ere bazen; horien artean: Loramendi, Zaitegi, P. Etxeberria, S. Onaindia, Bingen Ametzaga, E. Erkiaga eta galdu berri dugun J. I. Goikoetxea «Gaztelu».

Ekintzaren zuzpertzaille zen Aitzolentzat ohorerik handienetakoa izanen zen, neurri handi batean behintzat, zuzpertze hartatik agertu zirela olerkari berri on asko eta beren artean ez ezik euskal literaturaren historian ere gailur erpinean jartzea merezi duen Lizardi ospe-sua.

Juan SAN MARTIN
1983, 1-6, 5-9.

JOAN INAZIO GOIKOETXEA «GAZTELU» OLERKARIAZ ZENBAIT ABURU

Bizitzak ez du geldi aldirik, eten gabeko martxan doa eta ekin eta jarrai hortan mamitzen dute gizonek herri baten nortasuna. Atzokoa eta biharkoa izatean hartzen du herriaren kulturak bere dimentzioa. Ez gara ezer aintzinarik gabe, ez dugu etorkizunik gaurkorik gabe. Lantze eta erain aroak dakar uzta eta gizaldirik gizaldiko uztak ematen dio herri bati bere nortasuna.

Kezka horiek berekin zituen honako olerkiok idatzi zituenak, «Herria ibai» izen buruz:

*ez egonaldi
ez bakardi,
zati bat naun
HERRIA
kantatzen dut,
herria ez dago geldi
herria ba dabil
herria ibai da
medar
ala nasai
orain ilun
gero alai,
urrundik dator
iturri askotatik
gaur alkartu diranak
lau aldetatik,
lehen artzai
nekazari
gaur langile
proletari
eta herri bat*

EUSKAL-HERRI
odol askotako
azkari,
gaur orok ibai baten
nahasi,
joan
etorri,
herria ez dago geldi
herria ba dabil,
zati bat naun
HERRIA
kantatzen dut
herria
ibai...

Bere barnean egosten zen herri gogoaren adierazgarri ditugu poetaren bertso libre horiek. Azken batean, axola zitzailona honako hau zen:

nor garaile azkenean?
ez dik ajola nor danik
galtzale ala irabazle
nola joka denak baizik.

Hori bai zen bere bizitzako esperientziatik jokabidetzat hartu zuena.

Eta, Joan Inazio Goikoetxea «Gaztelu», inongo hots handirik gabe, 1983ko Erregen egunez Donostian bertan hil zen. Nere iduriz, bere balioaz ez ginen gehiegi ohartu eta bere galeraz zer esanik ere ez. Gaztelu, bere gogoz, inorekin buruabat eginik bazegoen, bere herriarekin zen eta gure nortasuna hizkuntzaren bidezko elkartasunean ikusten zuen. Axularren esaldi hura beretzat hartuz: «Mihian da ezagun nor den betbedera».

Eta bere olerki batean hala azaldu ere:

mintza, kide,
nahiz garbi
edo lizun,
nahiz gordin
edo txukun,
mintza bederen

hil ez gaitezen...
hitza da
elkarren
ezaugarri,
ba gerala
jakitearren...

Apala ez ezik barnerakoiegia zen bere gogoaren garra herriaren aurrean kementsu azaltzeko eta horrek ezkututzen zuen gure uste zintzoan oso goiko mailetan jarria behar zuen olerkariaren izena.

Jakintza mailan ere ez zen nolana hikoia eta horren kezka ere bere olerkietan nabari da:

hutsetik bizi da
nere jakin-gosea
zulo bat bezela
ondorik gabea:
ez da inôlaz betetzen
nere jakin-gurea...

Olerkiok dira pertsona beraren iduriz eginak eta Gaztelu joanaz poeta bat gutiago euskal-parnasoan.

1908. urtean jaio zen Gazteluko Bordatxuri baserrian, Larte mendipean, Kaputxino ordenan osatu zituen bere ikastaroak, Altsasun, Hondarribian, Lizarran eta Iruinean. Gazterik hasi zen olerkigintzan eta 1934an eman zion lehenengoak *Yakintza* aldizkarian argitaratzeari. Behar bada, bere olerkaritza, Aitzol-en gidaritzapean indartu zen Euskaltzaleak deitu mugimendu haren eraginezkoa zen hastapenetan zeren Gazteluk ere sariketa ospetsu haietan parte hartu zuenez.

Gerrak barreiatu zuen etarikoia genuen Gaztelu. Herbesteturik, Ameriketara zenbait urtez bizia, Argentinako Llavallol, Mar de Plata, Córdoba eta Mendozan. 1958an itzuli zen eta geroztik, apez, Donostian. Baina, buru-belarri euskal gaiari emana. Buenos Aires-ko *Euzko-Deia*, Guatemala eta Miarritzeko *Euzko-gogoa* eta hemengo *Egan*, *Zeruko Argia* eta *Oleri* aldizkarietan argitaratu zituen bere lanak. Inoiz saritua ere izan zen eta saririk aipagarrienen arteko ditugu 1970 eta 1971. urteko Irun sariak poesiaz.

Bere olerkirik gehienak tristeak dira, inoiz etsipenezkoa ere bai. Bizitzako gertakariak eta harat-honat ibili beharraren eraginak tajutu bai zuen bere izakera:

*otanik gabe
gabiltza gizonok
galdu
gordean, norakorik gabe
ontzia bezala
jitoan.*

Baina, ez ordea bizi nahirik ez zuelako, ez. Ohartzen zen mutur batetik bestera, ezkortasunetik baikortasunera, ez eta elkarrengandik hurbil zebiltzala maizenik. Horregatik esango zigun:

*alkarri musuka dabiltz
gaua eta eguna
argia eta iluna.*

Gizonaren neurria, izanaren kosmos barnean txiki zela adierazteko. Baina, biziari ukorik egin gabe, zeren

*ona da bizia
bizitik at deusik ez da
bizia du gizonak hazta ta neurri
horregatik dario alai iturria
horregatik doa kantuz txoria
horregatik da usaidun lilia...*

Ausart agertuko zigun bere sentipena. Gizonaren dimentsioa bere tokian kokatu ondorean, izatezko gutietsiaren barnean, bizitzaren zentzua edertuz. Sorketazko ahalegina zen Gazteluren gogozkoa, ideal hori zuen eder, gizonaren minak eragitzen bazion ere karraxi eta oihu.

Juan Inazio Goikoetxea «Gaztelu»-ren lanik entzutetsuena *Musika ixilla* deritzana da, 1962. urtearen azkenaldera argitaratua. Frai Luis de León eta San Juan de la Cruz-en poesi euskaratuak dira, Orixe zenaren hitzaurrez eta Gaztelu beraren zenbait oharrez, gaztelerauko autore bien bizitza eta euskal metrikari buruzko eraskiñez. Edizio kritikoa beraz. Itzulpenean saiatu zen neurriaz gainera hitz-neurtuak azentu bidezko erritmoz ematera, irakurgai aldetik hotsen doinuz jazteko, atseginagoa izan zedin.

Gaztelu ez zegoen ados Etxeparegandik orainarte poesien metrika hertsiez jarraitu den era horrekin. Bere ustez, horrez gainera bazen beste edergarri bat ere, azentuaren erabilkerarena. Euskaltzaindiko urgazle zen aldetik, igazko ekainerako hitzaldi bat eskaini zigun gai hortaz, baina ordurako osasunez oso makalik zebilen eta agindua ezina bihurtu zitzaion, gure zoritxarrerako. Gai hortaz zituen pentsameneren zati batzu argitara bazituen ere, gehienak berakin eroan ditu hilobira.

Auñamendi argitaldariko *Español-Vasco* hiztegia, B. Estonés Lasaren eragintzaz eta zuzendaritzaz eroan bazen ere, antolaketa eta idazmoldea Gaztelurenak dira. Sei tomoak, A letratik C-ra arte, argitaratu ziren eta hil ondorean zazpigarrena. Tajuz egina da eta merezi luke lan horren jarraipenak, bereziki Gazteluk burutu zuen partearena.

Baita ere, non berea emateko, esan beharra dugu B. Estornés Lasaren, *El cantar de Roncesvalles...* (1979) deritzan liburuan II, III eta IV parteak Gazteluk euskaratuak direla.

Hala ere, Gazteluren ballorik handiena olerkaritzan datza ta *Oleri* eta beste zenbait aldizkaritan, *Egan* barne dela, aritara zituenez gainera Irun sariko biak hautatuko genituzke, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialak 1972an bi liburutan argitaratuak: *Gauean oihu eta Biziaren erroetan* izenburuz. Bietan bada gauza bitxirik, bai azalez eta bai mamiz. Bide berriak urratuz zetorren, hasieran esango zuen bezala: «Gauari hitzekin bultzatzetik nator».

Gizarte arazoak kezkatzen du eta hitza da erromes:

Hitza da erromes
eskale
behartsu
gogoa orora
baina
ez doa ñora
nahi luke mundua besarka
nahi-ala
esan
esan-ala
egin
ogia ogi

*harria harri
baina nahi izatea
ez da ahal izatea
eta nahia huts doa
luze du hegoa
baina motz zangoa...*

Hitz joko horietatik zijoan bere filosofia, eta herri minari ikutzen dionean irule fina agertuko zaigu, igarri nahi duenari keinuka:

*herriaren keinu hori
haizearen azmamiak laztantzen duten
argiaren kutxan gorderik dagoen
herriaren keinu hori.*

*baldin erdoirik
edo zahar-kutsurik
balinba nokurik
nahiz eta lohirik
erantsi bazaio.*

*herriaren keinu hori
ez baztertu
ez zapuztu
gutxiago ukatu...*

herriaren keinu hori.

Lehen liburua Vietnan-go gerra hurbil zela idatzia da, eta hango gertakariak eta heriotzak ere gizonki eta ausart salatu zituen, sol-nekoak urratuz, bilus eta maitasunez:

*maitea bilus kantatzen dut
maitea bilus
soil
tipil
bipil...
hostoa bezain has
galburuak bezain has
Kristok eskuetan
marruskatu zituenak
behin
maitea bilus
hilobi gainean zutik dagoen*

vietnandar haurraren:
 HEMEN DATZA ANA MARI,
 HEMEN DATZA HO CHI MINH...
 Port Knox-eko urregorriak
 dolar beltzak ideki duen
 hobi gainean dagoen
 maitea bilus...
 behi-begi izutuetan itzuri doan
 belar-izpietan dardaraz dagoen
 Sapelatzen oin-azpian zapart egin duen
 harmagileen zumil-artean lehertu den
 Herio-tolarean maluskatu den
 maitea bilus...

Era hortara, oihuak indartuz doa liburuaren azkenaldera, bukarako bertsoak esaldi gogorrez azalduz. Egia esan, bere barnerakoitasunetik inoiz ez zen agertu hain ausarti. Azaltzen digunaren arabera, badirudi, bere erraietaraino kixkaltzen zuela gerra mingarri harek.

Bigarren liburua, bere izenburuak dion bezala, *Biziaren erroetan* dabilen olerki mina da. Bere izatea bere herriko lurrarekin lotzen du, maiz panteista tajurako ideiak agertuz bere sentipenik sakonenetan lurraren barne-taupadak jasoaz:

hire muño gurien
hire baso ta oihan itsuetan
hire mendi ta arkaitz gorrietan
etzin nadi naizen hau zabal...

Bere aragia lurturik herio loa opariz. Baina esperantza eta desesperantza elkarri burrukan ageri dira liburuaren azken orrietan. Nahia eta ezina, gogoia eta etsipena elkarren aurrez aurre; hala ere:

halare
oraindik eder zera, larrosa,
atomo-bonba izan arren
umeen
gazteen
zaharren
emasabelen emaitza
duena hiltzen...
halere
oraindik eder zera, larrosa,

*zure irudiaren betetasunean
zure mamiaren guritasunean
zure kolorearen zoriontasunean
zure usai onaren mozkortasunean
bai
oraindik eder zera, larrosa,
edertasun irudi panpoxa!*

Ezbehar guziak gaintituz, oraindik bizitzari aurkitzen zaio ederrik eta natura bera da gizonentzat exenplu. Horregatik, Gazteluk, etsipenen barnetik ere lagun urkoaganako maitasuna bizi agertuko digu, zenbaitzuren ankerkeriak gora-behera.

Inoiz ordea, ankerkeria horiegatik etsipendurik, poeteri isilaraztea eskatuko dio, zeren onerako eginalak eginarren guzia alperrika-koa somatzen du. Alperrik,

*malko guzien pisua
nere barruan,
amets guzien errautsa
nere barruan...
ezer ez da iraunkor .
gizonen oinazea baizik,
dena da iragankor
eta da alperrik.
ixil zaitezte poetak, munduak
ez du merezi zuen kanturik...*

Bizitza nekatuan, anparu bila, nolabaiteko babes behar du gizonak, nekeen ihesbide besterik ez bada ere, eta Gazteluk bere haurtzaroko oroitzapen eztiak ditu maite. Era berean, gizonon sorkundera itzuli nahia, norbere erroetara gogozko eutsigarri bila, naturalezak berak hartara bultzaraziz, eta oroitzapenak ditu gogoko. Erroetara itzuliz aurkitu nahi du bere abaroa.

Bestalde, haurtzaro eta gaztaroko zenbait gertaerak eta norbaiten edo norbaitzuen kontseilu eta eraginez hartzen bai du gizonak bere bizitza guzia markatuko duen erabakia. Gero, adinduz, inguru eta auzo eta herbesteatatik jasoko ditu ideak, gertakari berriak, la-guntzak eta oztopoak; ezagutuko ditu gizonen maitasunak eta gorrotoak, eskuzabalak eta maltzurak. Gizarte korrentak eramango du ur garbi eta zikinetan zehar, orain tira, gero bultza, era askotariko tentazio eta gogoetetatik. Hala ere, guzien gaintetik, bere izateak tiratuko

du eta gidatuko du barnetikako gogoen eraginez. Inoiz, naturak agintzen bai du beste ezerk baino gehiago.

Naturaren misterioak ordea, berezkoa du gizona bere sorkundera begira jartzea eta lehen ezagutu zuen argia, aintzina maitasunezko kontseiluz hezitzen ahalegindu ziren pertsonak, odolak berez tiratzen duenaz gainera, oroituko ditu eta beraietan aurkituko du nolabaiteko babes eta atsedeen hori. Bizitzan zehar hainbeste aldiz ausnartutako gogoetak eta oroitzak indar handia dute edonorrengan eta Gazteluren baitan, dirudienez, amona Gregori izan zen lehen hezkuntzan eraginik gehien izan zuena. Horregatik eskainiko dio bere hileta soinua amona Gregoriri, maitasun lokarriak heriotza bera baino harantzago eroan nahirik, bere gogozko izatearen zordun agertuz eta esker onez sentipenik sakonenak eskaini zizkion:

*zin gogor den biziak alkartu gindunok
berezitea alkargandik,*

Berriz elkartu nahi du bizitzan gehien maitatu zuen pertsonarekin, oroimenak doaz haurtzarora, gogoz sorkundera begira jarritz, baina badauki materialki ezinezkoa zaiola eta gogozko lotura ez zaio aski. Berbizkundeaz zalantzak ditu nonbait, edo hortaz ez du gehiegi sinesten. Egiz, lur materia aurkituko du guzcion altzo edo, gutienez ere, hori ez dio ezerk ukatuko eta gogozkoa betetzeko bide zaio. Bete nahi hori hitz hauekin agertuko du liburuaren bukaeran:

*Amona Gregori:
oraindaiño bizian lagun zindugunok
lagun gaituzu aurki hilik
lurrean
guztion altzoan...*

Pentsamenduok garrantzizkoak iduritzen zaizkit gizon gogatsu eta pentsamen ausnarkor bategandik datozenez. Gaztelugan, hitza haragi da. Bere izate guzia hor agertu bait du. Bere alde filosofikoan azalpen horiez gainera besterik ere bada, irakurketa bareago eta sakonago baten bidez ideia, pentsamena, gogoeta eta sentipena hobeto ezagutzera iritsiko ginатеke. Oraingoz, lerro ximple hauek izan bitez behar haina ezagutzera heldu ez garen poetaz.

Bestalde, esan beharra dago, bere hizkera oso aberatsa dela, ugaritasunez eta edertasunez.

OTSALAR
1983, 1-6, 79-88.

NORBERT TAUERREN ONDASUNA

Edozein hizkuntzatako literaturan garrantzizkoak dira idazleen gutunak, maiz horietan azaltzen bai dituzte egile edo autoreek bere obretan jarri ez dutenik. Gutunez, adiskideki, aitortzen bai dira barne-tikako gogoeta, kezka, pentsaera ta abar, bereziki publikatzera au-sartu ez denetik. Pragako Norbert Tauer izan zen euskal idazle asko-rentzat pertsona konfiantzazkoa beren pozak, ezbeharrak, minak eta zalantzak agertzerakoan, Tauer zenaren neurririk gabeko euskaltzale-tasunak guztientzako eramankortasuna zuenez gero.

Norber Tauer txekoslovakia-arrak gerraondoko euskaltzale guzie-kin izan zituen harremanak, eta hemen, bertako egoeraz, pentsame-nez eta sentieraz, Franco eta bere kideek jarri ziguten diktaduragatik ezer esaterik eta ezer idazterik ez genuenez, askorentzat, N. Tauer izan zen testaferra edo holako zerbait egingo zuen gizona. Makinatxo baten negarrak eta asmoak jaso zituen; bakoitzak bere penen, ekin-tzen edo ikuspegien berri emanaz. Horregatik, bere gutundegia ge-rraondoko euskararen historia da. Han bai daude bestetan aurkitzen ez diren agiriak.

Egan-en aurreko zenbakian (1983, 1-6, 23-48 orr.) G. Arestik literaturari buruzko kezka idatzi zizkionak agertu genituen. Literatu-ratik apartekoak Euskera aldizkarian agertuko direnez. Muestratxo horrek ematen digu gutundegi horren balioa zer denaren adieraz-pena.

J. M. Satrustegiren eskutik eta bere adierazpenez etorri ziren Tauerrek Arestiri idatzitako hamar gutunak eta Arestik ihardespenez egin zizkion zazpirak. Guziak euskal literatura eta euskararen egoerari buruzkoak.

Gutundegi ballagarri hori, N. Tauerrek, bere hilburukoan, Euskal-tzaindiari eskaini zion eta J. M. Satrustegi idazkariaren bidez erakun-de horren Azkue Bibliotekako agiritegira pasatu da.



© Tauer-en liburutegiaren irudiak

N. Tauer-en liburuak ex libris hau daramate ezaugarritzat.

Gutziz, 6.326 gutun dira, 384 pertsonakin izandako harremane-takoak. Bitik gora idatzi zituzten Euskal Herriko pertsonen artean 246tik 5.939 gutun; beste 116 pertsonak (tartean elkarteren bat ere bada) gutun bana. Horiez gainera badira zenbait atzerritarrenak ere, hizkuntzalariak gehienak.

Gabriel Arestiren gutunak, guztiz, 26 dira. Aurkibidez ondo sail-katurik *daude eta edonorrentzat izan daitezke aztergia*. Aurreko *Egan*-en argi erakusten da, Arestirenak bide, horien balioa. Jon Mi-randerenak 45 gutun omen dira eta horietarik eginen duen hautape-nez beste lantxo bat prestatuko duen esperantza agertu digu Satrus-tegi berak. Hala bedi.

* * *

Baina, laburki bederen ikus dezagun Norbert Tauer nor zen. Atzerritar euskaltzaleen artean izan da bera baino jakitunagorik, baina ez euskaltzaleagorik. Euskararik ez dakiten abertzaleek hura hartu baluke eredu, euskara salbatzeko biderik erdi egina zegoen.

Zenbait aldiz errepikatu zigun:

*Bizi bedi betiko euskara eztia,
Zuen aurrekoen ta ait'amen elia.
Euskaraz egizute toki guzietan,
Ta batez ere beti zuen sendietan.*

Hitz-neurtuzko kontseilu horrekin bukatzen zuen Praga-ko Tauer euskaltzale suharrak *Bere idazkiak* (1962) zeritzan liburuxka. Aitortu beharra dago, bere deiak, euskaldun askoren baitan piztu zuela *euskaltzaleatasuna eta ez dira guti euskaraz idazten jarri zituenak ere*. Euskara ikasi, gure literatura ezagutu eta «euskaldunei euskaraz»

esaldia ikurtzat hartuz abiatu zen euskaldunongana, gure kultur aldizkarietan artikulak argitaratuz eta euskaldun askori gutunak idatziz. Jokaera horren ondoriozkoa izan zen 1955etik 1962ra Buenos Aires-ko Euskaltzaleak zeritzan elkarteak eratu zituen eskutitzen norgehiagokak bata bestearen ondorean Tauer-ek irabaztea. Horregatik, samingarria zitzaigun 1983ko urtarrilaren 28an Pragatik iritsi zitzaigun berri beltza: Norbert Tauer hil zela.

Euskarazko kultur aldizkarietan idatzi zituen artikuluez gainera milaka gutunak idatzi zituen euskaltzaleentzat. Gutunon muestra tipi bat baizik ez da *Bere idazkiak* liburua. Hala den bezala G. Arestiri buruzkoan *Egan*-en aurreko alean agertu zena bera. Baina epistola bilduma hutsa ez da arestian aipatu dugun liburutxo hori, zeren gutunez gainera dakarrena ez baita bertako hitzaurre luzea bakarrik, bukaeran berak ondutako bost olerki ere baditu, denak Euskal Herri eta euskararen goresmenez. Aldiz, berak ere jaso zituen hemengo goresmenak eta, besteak beste, Euskaltzain ohorezko genuen. Buenos Aires-ko Euskaltzaleak deritzan elkarteak ere ohorezko bazkide izendatu zuen eta *Instituto Americano de Estudios Vascos* erakundeak bere taldekide hartu.

Hemengo aldizkarietara euskaraz idazteaz gainera, Txekoslovakia-koetan euskara eta euskaldunon berri ematen ere ahalegindu zen.

Euskarazko lehen lana 1928an Donostiako *Argia*-n publikatu zuena izango da noski. Han ordea, «Baskové» (Euskaldunak) Narodni obzer aldizkarian 1936an argitaratu zuena. Geroago, hemengo egoera iluna ezaguturik, «Baskovtina a jeji dnesni situace» (Euskara eta oraingo bere egoera) 1965ean. Baina, lanik garrantzitsuena, Espainia eta Portugalko idazleen hiztegian (*Slovník spisovatelů. Španělsko portugalsko*) eskaini zuen lan hura da. Praga-ko Odeon argitaletxeak 1968an argitaratua. Elkarlanean osatua zen, gaztelera, portugesa, katalana eta galegoarekin batean euskarazkoa barne zela. Euskarari buruzko lana Tauerrek eginga, sarreran gure literaturaren historia labur bat duela eta liburuaren barruan, euskaldun idazleen berriak beste lau hizkuntzakoekin batean.

Praga-ra heltzen ziren euskaltzaleak bisitatzen zuten Tauer eta duela bi urteko udagoienez Satrustegi eta Hernandorenan bisita izan zuen, lau urte lehenago nerea izan zuen bezala. Ikus *Bidez* liburuaren 412-420 orrialdeetan garai hartan eman nituen berriak. Ordurako

kezkatuak ginen bere liburutegi aberatsak eraman zezakean burubi-deaz, zeren Tauer-ek ez bai zuen oinordekorik, bere emazte Franziska eta iloba batzuk baizik. Bere borondatea ordea, Satrustegiri agertu zionez, Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekara ematea zen. Baina, handik ekartzeak bere zereginak zituen.

Gure mende honen haseran, Tauer, Euskal Herriak beragan dituen berezitasunekin txoraturik gelditu omen zen eta Campi3n-en *Gramatica bascongada*-z euskara ikasten hasi. Atzerritar gehienei gertatu zaien bezala, gure hizkuntzaz liluraturik gelditu zen eta bere esaldia izan zen: «Euskara, munduko hizkuntza guztien artean ederrera ta bere egituragatik harrigarriena da».

Gerraondoko euskaltzaleontzat bere garrantzia izan zuten euskaldunoi dei eginaz idatzi zituen artikulu aipagarri haiek: «Bizi bedi geure Euskara maite maitea» (gutun erara egina, «Neure euskaldun gazte maite maiteak» deiaz hasia, (*Azkatasuna aldizkarian*, 1946-X-15); «Euskal literaturari buruz» (*Euzko-gogoa*, 1951, 7-8 zenb.); eta «Euskararen pizkundea» (*Euzko-Deya*, M3xico, n.º 226. Pragatik 1959an bidalia). Gaur egungo ikuspegitik lehen baino balio gehiago duten idazlanak, euskaldun asko euskaragatik etsipendurik bizi ziren garaia izatez. Bestalde, gerragatik herbesteraturik agertu ziren euskaldunei itxaropena eta berriz idazteko arnasa berritua eskainiz. Beraz, ezta erraz neurtzekoa Norbert Tauer euskaltzale kartsuari zenbat zor dion gure egunotako berpizkundeak.

Bera, izatez, Txekoslobakiako Pizen-Pilsen hirian sortua zen 1898. urteko ekainaren 6an. Merkataritzarako ikasketak egin zituen eta zenbait hizkuntza menderatzera iritsi zenez, Enbaxadako merkataritzaz arduradun izana (agregado komertzial mailan) Paris eta Madrid-en, gure herria ezagutzeko aukera izan zuen. Azken urteetan, jubilatzea hartu arte, Pragako Udaletxean lan egin zuen.

Pragan, Vinohradská kaleko 126.ean ez zitzaion falta euskal girorik bere azken urteetan, ikurriñaz gainera bi lauki Valentin Zubiaurre pintorearenak, Lucas-ena beste bat, pizkunde garaiko espainiol bargeiño bat ere bazuen hall-ean, eta Euskal Herriko zenbait argazki laukietan jarriak. Horrez gainera, biblioteca handi bat euskarazko eta euskal gaiezko liburuz hornitua eta gutundegizko agiritegi berezia, harremanak zituen euskaldun eta euskaltzaleenak, guziak egoki antolatuak, pertsona bakoitzarenak karpeta berezi batean jarririk. Hor ematen zituen Tauer zenak orduak eta orduak, bere emazten Fran-

ziskaren laguntzaz, berea bezala sentitzen zuen Euskal Herriaren oroitzapenetan.

* * *

Tauerrek, bere liburutegian ale bitxiarik ere aski zuen. Denak ekartzea ezinezkoa zenez, hautaketa egin beharra zegoen: Kardaberraz, Xurio, Larramendi, Diharassarry, Ubillos, Haraneder, Royaumont, M. Salaberry, Barbier, Haristoy..., autoreen XVIII eta XIX. mendeetako edizioak; Astarloa, Darrigot, Xaho eta beste zenbait apologistaren lanekin batean Baltasar Etxaberen *Discursos...*, México-n 1607an argitaratua, Perotxegiren *Origen...*, Iruinean 1760an argitaratua (Honenik bi ale baizik ez omen dira ezagutzen osorik, beretako bat Madrid-en Biblioteca Nacional-ean). Horiekin batean, Ebangelio itzulpenak eta Kantika Izpiritualak ere bai, hauetako ale bat xilografiazko grabaduz apaindua.

Liburu bitxi horien artean berezietakoak dira Julien Vinson-ek *Collection de Curiosités Basques* sailean argitaratu zituen ale haiek eta beretarik bi heldu zaizkigu Azkue Bibliotekara. Merezki du beren xehetasunak hemen ematea, zeren 75 ale soileko inprimaketak izan zituzten eta beraletarik 74. zenbakidunak bai dira. Hara zer diren:

Les petites oeuvres basques de Sylvain Pouvreau (Chalon-sur-Saone, 1982). 20,5 x 13,5 zm. - XVI + 99 orr.

L'office de la Vierge Marie en basque labourdin par C. Harizmendi (Chalon-sur-Saone, 1901). 20,5 x 13,5 zm. - XV + 132 orr.

Biak Vinson-ek bere hitzaurrez eta oharrez argitaratuak. Gipuzkoako Foru Diputazioaren Urkixo Bibliotekan biak daude. Hauek 57. zenbakia daramate eta hain bitxiak direnez, Leizarragaren Testamentu Berriaren lehen edizioa (1571) eta beste zenbait liburu bitxi edo arrarorekin batean seguritatezko kutxa berezi horietako batean gorderik daude.

Vinson-ek hitzaurreetako batean dionez, Euskal Literatura balio gutikoa da, bere edukina itzulpenezkoa denez gero beste hizkuntzetan pentsatuaz oinarritzen baita. Hala ere, Villasantek bere historian azaltzen digunez hori ez da guztiz egizkoa Axular adibidezko jartzen baldin badugu. Dena den, hizkuntzentzat beharrezkoenatarikoa da bere baitarik sortu beharra eta behin eta berriz errepikatuko dugu

idazleei lagundu beharra eta sorketazko literaturgintza bultzatu beharra.

Baina, Tauerren ondasunetik jaso ditugun bi ale bitxi horiek oso estimagarriak dira eta Julien Vinson-ek, bere bibliografiako lan harekin ez ezik gainerako beste zenbait lan biltzen eta argitaratzez laguntza ederra eskaini zigun. Vinson-ek hor eskaintzen dizkigu, bere hitzaurre hartan, XVII. mendeko S. Pouvreau-ri buruzko zenbait berri interesgarri, era berean Pariseko Bibliotheque Nationale-an *Celte et Basque sailean* dauden obrak haintzat hartuz, garai bereko beste zenbaitzunak aipatuz.

Bigarrenaren eraskinean, M. E. S. Dodgson-ek Oxford-ik ematen dion berria dakar, Bibliotheque Bodleyenne delakoan Harizmendiren *Ama Virginaren hirur officioac* deritzanaren ale baten aurkitzeaz, Bordelen 1660an argitaratua, eta bere azalaren fotokopia ematen du azken orrialdea.

Gutundegia aberatsa bada ere jasoak diren liburu horiek ere ez dira txantxetakoak. Gainera, liburuetarik zenbait Julien Vinson berarekin izan ziren eta horiek larraz oso ongi enkuadernatuak daude, joan zen mendean Paris-en ohi zen bezala.

J. S. M.
1984, 1-2, 31-37

LANGILERIAREN KEZKA ETA BORROKA LEXXO ZENAREN BERTSOTAN

Bertsolaria, maiz, historiaren kronikagile bihurtzen zaigu bere garaiko gertaerak kontatzen dituelarik. Baina kronikatzat har genezakean bertsoetan guti da langileriaren kezka eta borrokak kontatu dituenik. Literatura mota hau oso berandu zabaldu zen Espania aldean hasierako lekukotasunez Miguel Hernandez hartzen baldin bada, baina hein batean Tomas Meabe berak ere bide horiek hartuak zituen. Gure artean, euskaraz idatzi zutenen artean, kultur mailakoe-tan begiratzen baldin badugu, Estepan Urkiaga «Lauaxeta» zenak zer bait landu zuen. Horren lekuko dugu *Arrats-beran* (1935) deritzan liburuko «Langile eraildu bati» eskaintzen dion olerkia. Baina, gai horiek herriko jende xeheagan errazago aurkitu genezake eta gure bertsolarien zat aukerako gaia zen. Bertsolariak ez bai dira izan nekazariak soilik. Langileen artean ere izan dira bertsolariak, eta gauzarik normalena zen beren ogibidezko gora-beherak bertsoz kantatzea. Eibarko forjarien kantak, Azkoitiko Urkiologi sindikalistarenak eta Le-xorenak ditugu lekuko.

Langileriaren borroka literatura konprometitua egin dutenen artean interesgarrietako bat izan zen Lexo bertsolaria. Hala adiarazi nuen Antonio Zavalak egin zuen bildumari buruz *Egan* aldizkarian idatzi nuenean (ikus *Egan* 1969ko 4-6 alearen 153. orrialdean).

Lexo, bere bataio izenez Juan Jose Sarasola, Lezon sortua zen 1867. urtean eta gaztarotik Errenderian aritu zen lanean, eta bere garaiko langileen kezka eta borrokak beste inork baino lehen eta hobeto idatzi zituen, hemen agertuko ditudan adibideak erakusten digutenez. Bertsolari honek, 1894an, hauteskunde eta huelgari buruzko bertso paperak atera zituen bederatzi puntuko bertsoz. Hara hemen nola hasten zituen:

*Komentuan zer pasa dan
askok du jakindu,*

oso oker aundiak
 egin bagendu,
 kulparik ez duenak
 ipurdian min du
 aguriak ordena
 ala itz egin du,
 besteri agindu;
 ark ere nai duenik
 ezin egin du.

Lehen bertso hontan norbait harrituko da potoak edo ote dau-
 den. Baina, ez. Holako bertsorik maiz egiten zuten lehenagoko zaha-
 rrek. Hainbeste puntu denez bukatuarren azken aurreko bi silabaz
 osaturik doaz: eragin du, egin du, utsegin du, legezkoak dira, poto
 bakarra azkena da berriz ere egin du jartzez, egin hori era hortara bi
 aldiz jarri zuelako. Baina, hala ere gure zalantzak ditugu, inprimategi-
 ratzean aldakuntzaren bat ez ote zioten egin. Azken-aurreko silabaz
 puntuosatzeak, «Bilintx»ek berak egin zituen «Izazu nitzaz kupira»
 lekuko, han beti bat-ekin bukatzen zuenez. Horregatik esan dut ber-
 tsolari zaharrek legezko zutela era hori.

Baina, guri hemen gaia interesatzen zaigu, langileriak bere lor-
 penetarako erabili zituen ideak eta bertsolariak nola kantatu zuen.
 Huelga egiteaz lanpostuak galtzeko arriskoak, eskirolak eta langile
 arrotzez baliatzeaz, horiek dira bosgarren bertsoan agertuko zitue-
 nak:

Askok kausatu dute
 beren enpleguak,
 galtzeko beldur ziran
 bensajeruak;
 desiatuagatik
 zerbait anparuak,
 guretzat eztaude
 leku seguruak;
 gizon onraduak,
 artu nai graduak,
 beste jeneruak
 itzdun lizeruak;
 ia gailendu dira
 forasteruak.

*Botorik ez degunak
Lanteritik fuera
abill-ustian tonto
gertatu gera;
gu despatxatutzeko
artu dute era;
daukaten kolera,
denantzat galera,
oien ezaguera
dakigula gera;
ez dago segurantzik
onez aurrera.*

Era hortako hamalau bertsoak osatzen dute. Hemen, batzuk baikik ez ditugu jasoko gertakariak herri literaturan izan zuten eragina erakusteko. Hara bederatzigarren bertsoan nola jarraitzen duen:

*Zerbait duenan alde
askok uniuia,
biarrak ematen du
opiniua;
agintzen ari dena
itzdun seriua,
gero izango dalako
erremeriua;
arrazoi pillua,
maiz desafiua,
txarra jeniua,
burura iua...
ez dek orrela guardatzen
erlijui!*

Eta azken bi hauekin bukatzen du:

*Guregatik ibilli da
ainbeste komeri,
batzuek ez diote
utzi lanari;
kargarik ez diot bota
kulpa gabiari,
pazientzia eskatu
denan Jabiari;*

*bengantza ugari
egin digute guri,
saltsan enaiz ari,
egia da ori...
penarik dubena bada
kejatu bedi.*

*Motigu orrengatik
sartu gabe preso
eskatuko al da
Juan Jose Lezo?
Gure gañera dator
Hamaika eraso,
Alare ez gabiltza
Estutuak oso;
Egon animoso,
Izan kurioso
paperak eroso
nai duenak jaso,
bi sosetan badira
amalau bertso.*

1903. urtean zortzi ordukoaren alde atera zituen bertsoak. Ordurarte, lantegietan, lanik baldin bazen hamar eta hamabi ordu ere egiten ziren eta lanez urri zebiltzanean egunerdikoan, lau ordu egunean, edo lantegitik kalera bota. Hala izaten ziren garai hartako gauzak eta gure mende honen lehen urteetan egunean zortzi ordu baino gehiago ez egitearen aldeko borroka egin zuten langileek lana hobeto errepartitzeko asmoz. Eta kanpaina hortakoak ditugu «Gipuzkoako partian / kariñoz bizi gaitian...» hasten direnak. 2, 3, 7 eta 16. bertsoak soilik jasoko ditugu hemen:

*Bertsuak jartzen naiz asi,
ez derizkiot itsusi,
gusto dubenak ikasi;
erreinu ontan desiatzen du
estranjeruak nagusi;
guziak nai degu bizi,
oiek ainbeste noblezi
guk ez al degu merezi?*

*Aurten mudantza berria
Donostian da jarria;
ordubetako neurria;
zortzi orduan irabazten da
jornaleruen ogia;
argitu zaigu begia,
au ez da txorakeria,
bazan zerbaiten premia!*

*Langillaren bizitza
bastante penagarritza,
jendiak ala deritza;
guk dabilkigun diariua
ez da uts egiten gaitza;
kunpliten ez bada itza
estimazio murrirtza,
progaturikan gabiltza.*

*Agintzailleak kejavu
ezin dirala bajatu,
aundienera jokatu;
langillearen izerditikan
zenbaitek nai du zupatu;
bere legiak ukatu,
opiniua trukatu,
ori ez al da pekatu?*

Zortzi orduko lanaren aldeko kanpainaren ondorean etorri zen igandeak jai egitearena. Hor ere, lehenago, ez baizen mugarik. Lan asko zen garaian igandetan ere lana egin beharra zuten eta langileek beren borrokaren bidez lortu zuten igandea jai egitea. Hara hemen gai hortaz Lexok 1904. urtean atera zuen bertsoa:

*Milla beatzireun eta laugarren
urtian gera gertatzen,
oraingo fiesta dominikalen
ordenak errespetatzen;
etsai gaiztuak asiagatik
noizian ta bein tentatzen,
bere onduan nai gaituenak
ez du ezertan paltatzen;
lendabiziko fundaziotik
asiera nua kantatzen.*

Baina, zoritxarrez, hasierako bertsoa baizik ez dugu ezagutzen. Besterik ez baita aurkitu.

Eta, Lexo ez zen langileriaren arazoez kezkaturik eta identifikatu-rik ibili zen bakarra, baziren beste batzuk ere, bereziki Azkoitian eta Eibarren. Hortaz zenbait berri eman nituen *Gogoz* (1978) liburuaren 267-271 orrialdeetan. Baina, Lexoren bertsoak, gai hortaz interesga-riak izatez aparte, Errenderiako industri historiaren kronika ballaga-riak dira.

Juan San Martin
1985, 1-2, 55-61.

NOR ZEN AITA LIZARRALDE?

Euskal kultura ere askok uste baino konplexoagoa da, eta ximplekerietan eroriaz eta gainera iraultzaren izenean, ez da harritzekoa errurik gabeen lepora zigorra joatea. Igaz horrelako zerbait gertatu zen Zaldibiako herrian, bere gogo guziarekin herriaren alde bizia eman zuen bat nabarmen agertzeko, lehendik zeudenen irudiak kendu. Han apenas egin zen ezertariko bereizkuntzarik, baina nere eritzi apalean era askotara ematen da herriaren alde bizia, eta uste horrekin borondaterik handienarekin ibili zen Fr. Jose Adriano Lizarralde zaldibiarrarena ere baztertu zen. Non mina, hara mihina. Eta benetan mingarria izan zen neretzat holako pertsonaia bat baztertzea. Herri bateko Udaletxea baino maila goragokoa merezi zuen gizona bere sorterrian baztertu zen.

Aita Lizarraldekin batean baziren beste batzuk ere, baina nik hura nuen gogokoen beragandik jaso nituen ikasbideegatik. Harrigarria badirudi ere, ondoko lerroen bidez emango dut nondikakoa nuen bere ezagutza eta maisutza.

* * *

Hautzarotik nekarren naturaminak oso gazterik eraman ninduan mendizaletasunera eta kirol honen bidez Euskal Herria ezagutzera. Herriz-herri eta mendiz-mendi, igande eta bestelako jaietan, ahal nuen guzian, neretzat ez zegoen gauza ederragorik mendiak eta herriak ezagutzea baino. Hortarako bazen eibartarron artean lehena-gotik zetorren zaletasunik eta adinekoengandik kontseiluak eta gidaritza ez ezik, maiz zahar eta gazte elkarrekin ibiltzen ginen. Horietaiko bat zen Indaleki Ojanguren fotografo ospetsua, zeinegandik ikasi nituen gure historiako pertsonaia askoren lehen berriak. Guda bukatetik laster zen eta gure herri honen nortasunezkoak ziren gauzetaz zerbait jakiteko ez zegoen beste biderik.

Ojanguren, Marzelino Barrutia «Karo», Eleuterio Murua «Eulete» eta beste zenbaitekin iritsi nintzen lehen aldiz 194lean Urbiako zelaira Aizkorriira igotzeko asmoz.

Donostia, Bilbo, Tolosa eta Eibar izango ziren urte haretan mendizale talde tipi batzuk baizik ez zituztenak. Geroago etorriko zen mendizaletasunaren hazkuntza, herriz herri ugaritu zena eta gehientsuek erromeria giroz hartu. Baina gure hastapenetan ez zen horrelakorik. Gu, bakartiar, isilik, inguruak begiz miakatuz, harriak zein landareak izenez eta izanez ezagutu guran..., bidez bide aurkitzen genituen iturrietan ur txarrak, onak eta hobeak bereizten ikasi eta mokaua jaten gelditzen ginen une berean inturrietako orbelak ken, garbituz eta txukunduz. Gaur egungo pista-biderik ez zen, eta herrietara autoz iristeko aukerarik ere ez. Bizpahiru lagun elkaturik, trenez eta lineako autobusez ahal genituen kominazioak eginaz heltzen ginen mendi barrenen inguruetara, oinez ikaragarritzko ibilaldiak egiteko. Urtean zehar, zenbait aldiz, hogeai edo hogetahamar laguneko taldeak autobusa edo kamioia (kamioiok hortarako bankoz hornitzen genituen) kontratuz antolatzen genuen urrutiko mendiren batera eskursioz joateko. Urrutitasun hori oso erlatiboa zen. Urruti bai ziren egun berean kominazio normalez iritsi ezinezko tokiak. Oñatin bertan Aloña, Butraitz eta Gaboño ziren Eibartik egun berean doi doi ostera egin ahalezkoak; ez ordea Aizkorri eta gutiago Aralar.

Elolako lepotik lehen aldiz Urbia ikusteaz zeharo txunditurik gelditu nintzen. Larradi zabal eta eder hura altura hartan eta haitz zuri handiagoen babespean, haize garbiz eguzkitan ardi eta behor taldeak, isilaren barean zintzarrien zurrumurrua baizik ez. Leku zoragarria! Haitzen barranean saroiak eta erdialdea zelai. Eta, han, zelaiaren erdian bertan mendizale eta artzaien ostatua. Handik hurbil, gaintxo batean, ermita.

Ermita horren sortze historiaz, Ojangurenen ahotik izan nuen Aita Lizarralderen lehen berria. Gure mendizale talde haiek, eibartar jatorrenetan ohi bezala, gehingoak heterodoxoak hornitzen zuten eta heterodoxo artean bertan Heterogeneotasuna nabaritzen zen. Hala ere, han, holako ermitarekin aurkitzeak harridura pozgarria sortzen zigun. Inork esan gabe ere bagenekien gizonaren beharrak ogiz bakarrik ez zirela asetzen eta miretsiz ikusten genuen ermita hura, zeren paisajea ederra izanik ere Urbia basamortua bezala zen. Jabetzen ginen inguru haietako artzaiei zer nolako mesedea egin zioten

ermita hura eraikitzea asmatu zutenek. Gogoarentzako babesza ez bait da guti paraje aparteko haietan. Horregatik heldu ginen Aita Lizarralde mirestera, batez ere Ojangurenak kontatzean asmo hutsetik laguntza eskean hasiz, ermita eraiki ez ezik, hura apaintzeko laguntzen artean hartu zuela gure herriko-seme genuen Zuloaga pintorearen lauki bat ere, Andra Mariaren erretratoa. Baina ekintzetarik bereziena, artzainak mendi goietan zeuden garaian igandero meza ematera joatea.

Ojangurenak asko tratatu zuen Aita Lizarralde, estimu handian zuen eta geroko egun batean berak ateratako argazki batean erakutsi zidan: betondo pentsakordun fraile buru-motza, okotz aski handi eda sudurra neurriz; itxuraz, gorputzez ez hain sendoa, aldiz bai gogoz.

Artzaiekin arduratzeaz gainera, horien bizitzazko berriak jasotzen ere lan ederrik egin zuen, *Anuario de Eusko-Folklore*-ko lehen tomoetan ikus ditzagunez.

Gure artean, ez gure historiarik eta ez gure arterik erakusten ez zenean, gai horien azterketan aritu zen A. Lizarralde. Ni neu gai horietan sartu nintzenean, neuk bakarrik dakit bere iker lanak zenbat lagundu zidaten. *Andra Mari* deitu liburuen egilea bai zen Aita Lizarralde. Katalogatze iker-lanez Gipuzkoako tomoa egin zuen lehenik eta Bizkaikoa gero. Arabarekin jarraitzeko asmoa omen zuen, baina osasunak ez zion lagundu eta hura burutu baino lehen zendu zen. Katalogo horietan Erdi Aroaren azken parteko imajinak estiloz zehaztu zituen bere begi zoliak. Hitzaurreetan adierazten duenez, hortarako arauak finkatze iturrietarako non onarritzen zen erakutsiz. Eta, era berean, gure herritar artea imajinagintzan zer zen erakusten digu. Eta, hori, Lizarralderen lan bat baizik ez zen. Haren obra ezagutzeko, liburuaz gainera aldizkari eta omenaldi liburuak jarraitu beharra dugu. Egin zuen guziak du bere garrantzia, ikerlaria halakoa zenez. Jaintzaz hornitua eta adimen zorrotzekoa. Artxiiboak ondo miakatzen zituena eta frutu ederrik utzi ziguna.

Arestian adierazi dugunez, historia gaietan ere ez zen makala. Izan ere, Karmelo Etxegaraireren hitzaurrez argitaratu zuen Azpeitiko Komentuari buruzko lan sakonak Academia de la Historia-ko kidea izateko ateak ideki zizkion.

Euskarak ez zuen garai hartan oraingo osperik, baina Aranzazu aldizkariaren zuzendaria izan zenez, sorreratik bertatik elebidun egin zuen eta hala bultzatu nahiak eraman zuen berberak ere zenbait euskarazko artikulu idaztera. Artikuluak ez ezik, euskarazko ipui bat ere bai.

Arantzazuko historiaz gainera, Oñatiko Unibertsitate zaharrari buruz ezer badakigu ere berari esker da, zeren *Historia de la Universidad de Sancti Spiritus de Oñate* deritzan liburuaren egilea bait da. Tolosako Lopez-Mendizabalenean 1930ean argitaratua. Eta inork ezin uka beste lan askoren iturri izan ez denik. Azken urteotan, Luis S. Granjel eta J. L. Góti ederki baliatu dira Salamanca eta Euskal Herriko Unibertsitatean Medizinarekin Historia Sailean, zeren Lizarralderen obran azaltzen bai dira XVI. mendearen azkenaldera Oñatiko Medicina Fakultatean zer eta nortzuk irakasten zuten. Hara hor, Brocar-ek 1496an Iruñean argitaratu zuen inkunabilearen ondotik Lizarralderen lanera jo beharra egun Euskal Herriko Unibertsitatean.

Benetan, pertsonaia interesantea zen Fr. Jose Adriano Lizarralde, 1884an Zaldibian jaioa. Bere sorterriko Udaletxean Honbrados Oñatibiak pintatutako erretratoa dute. A. Lizarralderen lanak ezaguturik, ohore murrizta iduritzen zitzaidan bere herrian holako lauki soil bat oroitzapenez. Historian, artean eta etnografian egin zituen iker lan bikain haien ordainez eta ondoko belaunaldiek eredutzat har zezaten, bere sorterrian monumentu bat eraiki eta Diputazio Jauregian artista ospetsuren bati eraginiko laukia jarriko nizekion hori nere esku balego. Baina, hara hor, alderantzizko gertakaria, jaiotzaren mendeurrenean bere laukia kendu eta sotora baztertu. Hori izan da A. Lizarralderi eman zaion ordaina. Frailea omen zen. Batzuen usetzeko libertatean, beraiek agindu behar dute besteak zer izan.

Hau da gure integrismoaren paradoja: komunista polakoak harro Koperniko-rekin, eta hemen, inkisizioaren aurka mintzatuz eta joera bera bultzatuz.

Lizarralde gizajoa 1935ean Bilbon hil zen, bere fedearekin eta naturalitate guziz. Nork daki biziaz iraun bazuen martiri gisan ez ote zen hilko, zeren martxa honetan gillotinarekin aitzoa zorrozten ere hasiko zaizkigu.

Baina, gizona bere frutuetatik ezagutzen da, eta Aita Lizarralde-
renak hor daude guzion probetxurako, bereziki Euskal Herriaren kul-
turarako.

Herriगतik bizia ematea hainakoa ez ote herriarentzat bidezkoa?

J. San Martín
1986, 1-2, 7-11.

[LIBURUAK]

Aita Donostia, *Obras completas*

AITA DONOSTIA, *Obras completas*. I eta II Artículos, III Diarios y Reseñas. Editorial La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbao, 1983. IV eta V Conferencias. Sociedad de Estudios Vascos, Gipuzkoako Diputazioaren babespean. Donostia, 1985.

Argitaratu diren bost tomo horietan euskaraz lan guti batzuk baizik ez badira ere, bertako edukirik gehiena euskarari eta euskal kulturari loturik dago, bereziki euskal literaturari, horregatik eta noiz-bait aldizkari honetan ere kolaboratu zuen pertsonaia jakintsuaren mendeurrena oroitzeagatik dakargu.

Obra garrantzitsu honen hitzaurre eta oharra Aita Jorge Riezu-renak dira, baina lan horietan zerbait gehiago zor zaio Aita Riezuri. Izan ere, Migel Querol musikari jaunak hain ongi esan zigun bezala, Aita Donostiak sorte handia izan zuela A. Riezu bezalako gizonaren eskuetan lanak uzteaz, egilearen ondasunak argibidean jartzeaz batean bere izen ona gordetzen lagunduko digulako.

Batzuk nahiko hurbildik dakigu lehenago, 1960. urtetik hasita, zenbat neke hartu duen Aita Jorge Riezu eskergeak, *Obras musicales* argitaratu eta gainerakoak argitaratze bidean jartzeaz.

Orain, honako hauen lehen tomoan, folklore oharretatik hasi eta musikari klasikoei buruzko artikulua arte, ehundakak idazlanak biltzen ditu. Arin irakurtzekoak, zeren erudizioz beterik egon arren irakurgai atsegingarriak bai dira A. Donostiaren lumatikakoak. Gaiz era geografiazko aurkibideak falta zaizkio, behar bada azken tomoan erastekoak, era horretan lanak probetxugarriagoak bihurtuko direnez nornahik ikerketak jarraitzeko. Kulturgintza bultzatzeko beharrezkoa deritzagu eta hala bedi.

Lanik gehienak gazteleraz idatzirik daude, baina badira batzuk frantsesez eta euskaraz idatziak. Bilketazko kantarik gehienak, zer

esanik ere ez, euskarazkoak dira. Aurrerantzean, euskal literaturaren ikerlanetan, edo naiz bildumetan, kontutan hartzekoak.

Etnografia gaiak oro: musika, dantza; kanta, euskarazkoek gainera, gaztelera- eta sefardierazkoak ere bai, guti batzu bederen. Haurrentzakoak, Erreginetan, Mayak, Toberak eta abar. Baina, bestalde, musikaririk ospetsuenen bizitza eta lanez.

Lehen tomo honen hitzaurre jakingarria irakurri beharra dugu lanaren muinez eta edukinez jabetzeko.

Bigarren. tomoan, «Artículos» anuntziatu arren, artikuluak baino zerbait gehiago biltzen dira. Hor daudenez, besteak beste, bere ikerlanaren fruituz burututako liburu ezagun batzuk ere: *Música y músicos en el País Vasco* (1951. urtean argitaratu zena fakzimilez erreproduzituraz), era berean *Instrumentos de música popular Española* (1947), *Instrumentos musicales populares vascos* (1952), Madame de la Villehelio-ren *Souvenir des Pyrénées*, Iztuetaren *Guipuzkoako Dantzak* gaztelera itzuliak eta abar. Nork esango luke artikuluak direnik?

Hirugarren tomoan egunkarikoak eta erreseñak, han-hemenka barreiatuak eman zituen idazkiak, egunean egungoari loturik, kronologikoki, egileak hain bere zituen gaien inguruan beti. Eguneroko deitzen direnak 292 orrialde osatzen dituzte, *Euzkadi* eta *El Día*-n argitaratuak gehientsuenak, guti batzuk *Easo*, *El Universo* eta bestetan. Bigarren partea, beste 120 orrialdekoa, folklore eta musika gaiez. Hauetan behar zuen H. Angles eta J. Pena-ren *Diccionario de la Música*-renak ere, 291. orrialdean aipatuak, baina ez da agertzen.

Tomoaren funtsak, Aita Riezu hitzaurrean ongi dionez: "El P. Donostia tuvo el acierto, desde su juventud, de preocuparse de la cultura vasca, sin echar en olvido la ajena, que, sobre acrecentar el saber, dispone a la confrontación de ambas y a descubrir posibles influencias mutuas. Tal actitud o hábito intelectual, que preside y dirige todas sus actividades, resalta particularmente en *Diarios y Reseñas*».

Hor biltzen dira 1913tik hasita idatzi zituen erreseñak. Hor daude, besteak beste, Carlos Bordes, Chopin, Smetana, Glinka, Mozart, Ghéon, Hemsí eta abarren bizitza eta lanen berriak, baina baita ere Galizia, Leon eta Salamanca-ko kantategieri egin zizkien erreseñak.

Lanok hor gelditu ziren argitaratzaileak porrot eginda. Eta, Eusko Jakintzaren eraginari eta Gipuzkoako Diputazioaren babesari esker, jarraipena eman diote, beste bi tomo argitaratuz eta ondorengoen promesaz. Bene benetan zoriontzeko ekintza, zeren Aita Donostiaren lanak oinarri-oinarrizkoak bai dira euskal kulturari.

Laugarren tomoak hitzaldiak biltzen ditu. Hauek ere, gehienak, lehen han-hemenka azalduak eta guti batzu inoiz argitaragabeak. Frantsesez eta euskaraz emandakoak jatorrizko eran eta gaztelera-zko itzulpenez ematen dira.

Neri, pertsonalki, grazia handia egin dit A. Riezuk IV. tomo honen hitzaurrean (ikus 10. orrialdea) Pedro Sarasketak 1917. urteko martxoaren 17an *La Voz de Guipúzcoa*-n publikatu zuena hor sartzeak. Pedro Sarasketa zena, liberal ezkertiarra zen, oraingo Antxon Sarasketa Colpisa-ko kazetariaren aitona. Artikulu haretan erakusten zigun, eibartarren liberaltasuna ez ezik, Aita Donostirena. Pedro Sarasketa harek, inoiz Pedro Gorri izenez ematen zituen bere lanak, Eibarko historiaz monografia bat publikatu zuen 1909. urtean, *Euskal Herria* aldizkarian zenbait lan argitaratu eta *El país de los gabachos* eleberria Frantziako liberaltasunaren alde. Bestalde, Gascue-ren laguna zen, honen euskal-musikaganako begiramena zailantzan jartzen zen garaian, eta horrek eman zion haria eibartar kazetariari: «Escuché atentamente la lectura de su conferencia y, durante ella, entre infinidad de citas de autores que de la música vasca han hablado o escrito, tuve la satisfacción de oír que el capuchino donostiarra citaba al amigo Gascue, y le consideraba amigo. Bello ejemplo de tolerancia, que me cautivó. y a esta tolerancia y a la democracia eibarresa se encomendó el P. Donostia al principio de su peroración; y en verdad que hizo bien en confiar en nosotros, porque desde el beato más retrógrado, hasta los socialistas más caracterizados que en el teatro estaban, escucharon con gran interés el trabajo del P. Donostia y aplaudieron imparcialmente...» eta era horretan jarraitzen du musikako banda gorri eta iraultzaile zena Aita Donostiaren batutapean jarri arte. Gu jaio aurreko Eibarrek nolabait markaturik utzi ginduzen eta gure belarrietaraino iritsi zitzaigun anekdota hura, *Zirikadak* (1960) liburuaren 104. orrialdean datorrena, dugu harreraren lekuko.

Ikerketaz biltzen duen gauza bitxietariko bat XV. mendeko «Une mousse de Biscaye» da, IV. tomo horren 275 eta 304. orrialdeetan

zehaztasun gehiagoz esaldiaren gipuzkoartasuna agertu behar zuena. Hau da, errepika aztertzean, ongi zion Aita Donostiak gipuzkoar eritzia agertzean, *Soaz, soaz ordonarequin, ordu onian* oraindik erabiltzen delako; baina, nik, gehiago esango nuke, bukaerako *-quin* (-kin) horrek ematen diola gipuzkoartasuna, zeren ordu onian Bizkaian ere erabiltzen da, baina ez ordea deklinabide horrekin, *-gaz* atzizkiarekin baizik.

Tomo honek, bere azken orrietan musikako exenploak pentagramaz emanik biltzen ditu.

Bosgarren tomoa ildo beretik doa. Batzutan inondiren atonkuntza bitxiak agertzen ditu bere hitzaldietan, adibidez, landare eta abere euskal kantak hain egoki adieraziz.

30 hitzaldi guztiz. Gainera, 30. hau euskarazkoa eta *Egan* bertan 1956.-ean argitaratua. Bere hasierako oharrean dionez, «*Euskal-erriko otoitzak*» ez omen dute gaztelerazko itzulpenaren beharrik, 20. hitzaldiaren bertsio bera delako. Baina, berdina ote? Ezetz esango nuke, gehiengoan behintzat. Euskarazko hori, medikuntza gaietatik haruntza, eguzki eta ilargi eta abar gurtzeaz ari denean euskaldunon aintzinako sineskeraz ari da eta hogeigarrenak ez du holakorik ikutzen.

Lan txalogarria egileak utzi ziguna, baina baita ere Aita Riezuak gal eratzez eta inprimatzez bere lepora hartu duena eta zer esanik ere ez argitaratzeko laguntza prestatu eta babestu dutenena. Gure kulturarentzat oinarritzko diren lanak argitaratzeko arreta beti bait da txalogarria.

J. San Martin
1986, 5-6, 167-171.

[LIBURUAK] Bitoriano Gandiaga. *Gabon dut anuntzio*

BITORIANO GANDIAGA. *Gabon dut anuntzio*. Arantzazu - Oñati, 1986.

Liburu hau baino lehen, egilearen haurtzaroan, Gabonak ziren Orbelaunen eta betirako itsatsirik gelditu zitzaizkion sutondoko irudiak. Irudi emankorrak usuario zaharretatik esperantzaren berrikuntzara begira.

*Tradizioak, ohiturak,
zeinuak eta fedea,
dena genuen batera bizi,
hori zen gure legea.*

*Hotza kanpoan eta
su ederra barruan,
han dakusat Orbelaun
baso-sailen erdian
sutondo bete pozez.*

Pozik anitz ekartzen digute Eguberriz jasotzen ditugun erregalixoak, baina 1986an jaso ditudanetan pozgarriena B. Gandiaga adiskideak eskuizkribuzko eskaintzaz bidali zidan *Gabon dut anuntzio* deritzan liburua izan da. Txukun aurkeztua. Musika: Pello Zabalak ondua; irudiak: Xabier Egañak pizkarri prestatuak; eta maketa: X. Egaña berak J. A. Adurizen laguntzaz egokitua.

Gizarte tradizioa ez ezik, gure literaturakoa ere jarraitzen du liburu honen gaiak. Bukaeran ikus dezakegunez, duela ehun urte Beovide-co Alta Fr. Crispinek *Asis-co loria* (1885) zeritzan hartan ere erabilia.

Gai honen hasiera, Detxepareren aipamena eta herri literatura alde batera utzirik, Ziburuko Joanes Etxeberriren *Noelac* (1630) de-

ritzan liburuarekin dator. Hortaz berririk anitz eman dut *Gogoz eta Bidez* liburuetan.

Gure literatura bera bezain zahar den gai hau agortu ezinezko bihurtzen da, beti fresko eta beti berri holako poetaren baitan. Gainera, behartsuaren aldeko itxaropenez Asisko Franziskoaren mezua dakarte olerkiok bere muinean, kontsumoan eroria den gizartea kritikatzu eta era berean anaitasuna, maitasuna eta esperantza barreiatuz.

*Gabon dut anuntzio
desinteresatu;
Eguberri-poza dut
nahi erregalatu:
Gabon-Eguberrien
berria haizatu,
doan dadin jendea
munduan gozatu.*

1983.etik 1985.era *Egan*-en argitaratu genituen Christmak sail ederra osatzen dute liburu hortan. Egia bada "hitz atsegin eta beroz, horretara poztuta" bizkortu duela ekintza, aurrerantzean ere mika aldiak ken eta bizkorrazteaz ahaleginduko gara. Ez du axola denbora galdu alde arituko bada ere, bere ekarria antzua ez denez gero.

*Otsalar
1989, 1-6, 237-238.*